

Año LVII. urtea

140 - 2025

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES

LINGVÆ

VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre



FONTES LINGUAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Euskal hizkuntzalaritzako aldizkaria, 1969. urteaz geroztik argitaratua.

Seihilabetekaria.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

ARGITALPEN BATZORDEA:

ZUZENDARIA: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Espainia).

ERREDAKZIO KONTSEILUA: Dorota Krajewska (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia) • Amaia Marquina Obanos (Nafarroako Gobernua, Espainia) • Eneko Zuloaga San Román (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia)

BATZORDE ZIENTIFIKOA: Carolyn J. Benson (Columbia University, AEB) • Iñaki Camino Lertxundi (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia) • Lyle R. Campbell (University of Hawai'i at Mānoa, AEB) • Lisa L. Cheng (Leiden University, Herbehereak)

Greville G. Corbett (University of Surrey, Erresuma Batua) • Jeroen Darquennes (Université de Namur, Belgika) • Joaquín Gorrochategui Churrua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia)

Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, Espainia) • José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, AEB) • Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, Espainia)

Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Alemania) • Joseba Andoni Lakarra Andrinua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia) • Danilo Manera (Università degli Studi di Milano, Italia) • Céline Mounole Hiriart-Urruty

(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, Frantzia) • Maria Polinsky (University of Maryland, AEB) • Liina Pylkkanen (New York University, AEB) • Gijsbert Rutten (Leiden University, Herbehereak)

Mario Santana (University of Chicago, AEB) • Blanca Urgell Lázaro (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Espainia).

IDAZKARIA: Jesús Arana Palacios (Nafarroako Gobernua, Espainia).

ERREDAKZIOA ETA ADMINISTRAZIOA:

Nafarroako Gobernua. Argitalpen Bulegoa

Navarrería kalea, 39. 31001 Iruña

TEL: 848 424 732 • fontes@navarra.es

HARPIDETZAK:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa

Navas de Tolosa kalea, 21. 31002 Iruña

TEL: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Artikuluak ataleko testuendako, sistema anonimo bat erabiliko da (itsu bikoitza), kanpoko gutxienez ere bi aditu izanen direlarik aztertzaile.

Testuen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

Attribution-NonCommercial 4.0 International (CC BY-NC 4.0) lizentzia baten azpian.

Aldizkari hau ondoko hauetan dago sartuta:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI); Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science); ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List; MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road; Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2024): CiteScore 0.7 (458/1126, Percentil 59, Q2); SJR 0,109; SNIP 0,209 • Journal Citation Reports (JCR) 2024: JIF 0.1 (Linguistics Q4); JCI 1.19 (Language & Linguistics Q1, Linguistics Q2, Literature Q1) • Dialnet Métricas 2024: 0,03 (C3 Filología Hispanikoa/C4 Filologiak) • CIRC: A maila (Giza Zientziak); B maila (Gizarte Zientziak) • CARHUS+ (2025): A maila (Filologia, Hizkuntzalaritza eta Soziolinguistika) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2023 = 6.202.

© Nafarroako Gobernua. Kultura eta Kirol Departamentua
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

© Egileena.

LG NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DISEINUA: Giovanni Malucelli

KONPOSIZIOA: NB Servicios Gráficos

INPRIMAKETA: Linegrafic, S. A.



FONTES LINGVAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Revista de lingüística vasca, editada desde 1969.

Publicación semestral.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

CONSEJO EDITORIAL:

DIRECTOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, España).

CONSEJO DE REDACCIÓN: Dorota Krajewska (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España) • Amaia Marquina Obanos (Gobierno de Navarra, España) • Eneko Zuloaga San Román (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

COMITÉ CIENTÍFICO: Carolyn J. Benson (Columbia University, EEUU)

Iñaki Camino Lertxundi (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Lyle R. Campbell (University of Hawai'i at Mānoa, EEUU). Lisa L. Cheng (Leiden University, Países Bajos)

Greville G. Corbett (University of Surrey, Reino Unido) • Jeroen Darquennes (Université de Namur, Bélgica)

Joaquín Gorrochategui Churrua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, España) • José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, EEUU) • Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, España)

Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Alemania) • Joseba Andoni Lakarra Andrinua

(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España)

Danilo Manera (Università degli Studi di Milano, Italia) • Céline Mounole Hiriart-Urruty

(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, Francia) • Maria Polinsky (University of Maryland, EEUU)

Liina Pylkkanen (New York University, EEUU) • Gijsbert Rutten (Leiden University, Países Bajos)

Mario Santana (University of Chicago, EEUU)

Blanca Urgell Lázaro (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, España).

SECRETARIO: Jesús Arana Palacios (Gobierno de Navarra, España).

REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN:

Gobierno de Navarra. Negociado de Publicaciones

Navarrería, 39. 31001 Pamplona

TEL: 848 424 732 • fontes@navarra.es

SUSCRIPCIONES:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21. 31002 Pamplona

TEL: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Los textos de la sección de Artículos serán sometido a un sistema anónimo (doble ciego) de revisión por pares de al menos dos especialistas externos.

El contenido de los textos es de exclusiva responsabilidad de los autores.

Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial 4.0 Internacional (CC BY-NC 4.0).

Revista incluida en:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI); Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science); ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List; MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road; Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2024): CiteScore 0.7 (458/1126, Percentil 59, Q2); SJR 0,109; SNIP 0,209 • Journal Citation Reports (JCR) 2024: JIF 0.1 (Linguistics Q4); JCI 1.19 (Language & Linguistics Q1, Linguistics Q2, Literature Q1) • Dialnet Métricas 2024: 0,03 (C3 Filología Hispánica/C4 Filologíak) • CIRC: categoría A (Ciencias Humanas); categoría B (Ciencias Sociales) • CARHUS+ (2025): categoría A (Filología, Lingüística y Sociolingüística) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2023 = 6.202.

© Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura y Deporte
Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

© De los autores

DL NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DISEÑO: Giovanni Malucelli

COMPOSICIÓN: NB Servicios Gráficos

IMPRESIÓN: Linegrafic, S. A.



FONTES LINGUAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Journal of Basque Linguistics, aimed at the academic community and published since 1969.

Biannual publication.

<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/>

EDITORIAL BOARD:

CHIEF EDITOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Public University of Navarre/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Spain).

EDITORIAL BOARD: Dorota Krajewska (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain) • Amaia Marquina Obanos (Government of Navarre, Spain) • Eneko Zuloaga San Román (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

SCIENTIFIC COMMITTEE: Carolyn J. Benson (Columbia University, USA) • Iñaki Camino Lertxundi (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain) • Lyle R. Campbell (University of Hawai'i at Mānoa, USA).

Greville G. Corbett (University of Surrey, UK) • Jeroen Darquennes (Université de Namur, Belgium).

Joaquín Gorrochategui Churrua (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

Juan Manuel Hernández-Campoy (Universidad de Murcia, Spain)

José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, USA)

Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza, Spain) • Georg A. Kaiser (Universität Konstanz, Germany)

Joseba Andoni Lakarra Andrinua (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain)

Danilo Manera (Università degli Studi di Milano, Italy) • Céline Mounole Hiriart-Urruty

(Université de Pau et des Pays de l'Adour, IKER UMR5478, France) • Maria Polinsky (University of Maryland, USA)

Liina Pylkkanen (New York University, USA) • Gijsbert Rutten (Leiden University, The Netherlands)

Mario Santana (University of Chicago, USA)

Blanca Urgell Lázaro (University of the Basque Country/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Spain).

SECRETARY: Jesús Arana Palacios (Government of Navarre, Spain).

EDITORIAL OFFICE AND ADMINISTRATION:

Gobierno de Navarra. Negociado de Publicaciones

Navarrería, 39. 31001 Pamplona, Spain

TEL: +34 848 424 732 • fontes@navarra.es

SUBSCRIPTIONS:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21. 31002 Pamplona, Spain

TEL: +34 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Texts in the Articles section are subjected to double-blind peer review by at least two external specialists.

The contents of the texts are the sole responsibility of the authors.

Attribution-NonCommercial 4.0 International (CC BY-NC 4.0).

Journal included in:

Capes; Centro de Documentación César Borgia; COPAC; Copernicus International (ICI); Dialnet; DICE; DOAJ; EBSCO Essentials; Emerging Sources Citation Index (ESCI, Web of Science); ERIH Plus; Generalif; INGUMA; InRech; ISOC; ISSN Register online; Latindex; Linguist List; MIAR; MLA-Modern Language Association database; NPI-Norwegian Register for Scientific Journals; Recolecta; REGESTA IMPERII; ResearchBib; RESH; Road; Scientific Indexing Services; Scopus; SJIF; SUDOC; ULRICH's; ZDB. Scopus (2024): CiteScore 0.7 (458/1126, Percentil 59, Q2); SJR 0,109; SNIP 0,209 • Journal Citation Reports (JCR) 2024: JIF 0.1 (Linguistics Q4); JCI 1.19 (Language & Linguistics Q1, Linguistics Q2, Literature Q1) • Dialnet Métricas 2024: 0,03 (C3 Hispanic Philology/C4 Philologies) • CIRC: A category (Human Sciences); B category (Social Sciences) • CARHUS+ (2025): A category (Philology, Linguistics and Sociolinguistics) • ICDS (MIAR) 2021 = 10 • ICV (ICI) 2020 = 85.10 • SJIF 2023 = 6.202.

© Government of Navarre. Department for Culture and Sports
General Directorate of Culture-Príncipe de Viana Institution

© The authors.

LD NA 184-1969

ISSN: 0046-435X • ISSN-e: 2530-5832 • ISSN-L: 0046-435X

DESIGNED BY: Giovanni Malucelli

LAYOUT BY: NB Servicios Gráficos

PRINTED BY: Linegrafic, S. A.

Country of Publisher: Spain

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVII. urtea - N.º 140. zk. - 2025

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera Kepa Diéguez Barahona	229
Exploring lexical diversity in Basque news: original vs. machine-translated texts Amaia Solaun Martínez, Nora Aranberri Monasterio	273
Mendigatzaren gutunetako <ss>: hautu grafikoaren jatorriaz Leyre Rojo Horrillo	317
Hizkuntza-errutinak: euskarazko ahozko oinarrizko komunikazioan trebatzeko ibilbidea Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Olatz Bengoetxea Manterola, Idurre Alonso Amezua	349
Genero-alborapena Elia itzultzaile automatikoan, euskaratik gaztelaniarako norabidean Klara Ceberio Berger, Aitziber Elejalde, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Eneko Sagarzazu Martinez, Zuriñe Sanz-Villar, Naroa Zubillaga Gomez	383
Bigarren Hezkuntzan eskola-hizkuntza garatzeko diziplinarteko diseinu bat: kasu-azterketa bat Oihana Leonet, Olatz Lucas, Ane Lamarka	405
Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen <i>Kristalezko begi bat</i> liburuan Elena Olave Duñabeitia	433
Hizkera-mailaren araberrako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai Irati Urreta Elizegi	451
Karmele Erraztiren iturriak euskal emakume-eredua eta olerkarien genealogia femeninoa eraikitzeko Enara San Juan Manso	479

Sumario / Aurkibidea

Euskarazko alfabetatze goiztiarra: dispositibo didaktikoen ezaugarritzea eta sailkapena Diego Egizabal Ollokiegi, Agurtzane Azpeitia Eizagirre, Arantza Ozaeta Elorza	505
---	-----

VARIA

<i>In memoriam.</i> Koldo Artola Kortajarena (1938 – 2025) Ekaitz Santazilia	543
---	-----

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	551
--	-----

ARTIKULUAK
ARTÍCULOS
ARTICLES

Eguraldiaz mintzatzea, kultur jarduera

Hablar del tiempo atmosférico, tarea cultural

Talking about weather, cultural activity

Kepa Diéguez Barahona

Ikertzaile beregaina

kepa.diegez@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0003-2390-251X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.1>

Jasotze data: 2024/11/06. Behin-behineko onartze data: 2025/05/11. Behin betiko onartze data: 2025/10/05.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Aroaz mintzatzea, eguneroko jarduera, ez da hutsala: kultur ekintza aparta da, hiztunak bere baitan dauzkan hizkuntza- eta kultura-tresna guztiak abian jartzen baititu, zenbaitetan oharkabea, baina beste zenbaitetan ohartuki. Hori azaltzeko, lehen-dabizi, kulturaren kontzeptuaren nondik norakoaz jabetzeaz gain, hizkuntzaren eta kulturaren uztardura zertan den adierazten da, etnolinguistikaren ildo egokiena dela ikertzeko agertuz. Jarraian, azaltzen da eguraldia hizpide izanda hiztunen adimen-be-giak nolako nozioak sortu dituen. Sailkapen etnolinguistikoa ematen da jasotako ter-mino guztien berri, alderdi kulturala eta kognitiboa kontuan harturik. Azkenik, zen-bait ondorio plazaratzen dira.

Gako hitzak: eguraldia; lexikoa; etnolinguistika; kultura; kognizioa.

RESUMEN

Hablar del tiempo atmosférico, una actividad cotidiana, no es algo trivial; es un acto cultural destacado. Se activan todas las herramientas lingüísticas y culturales que se poseen, algunas veces de manera inconsciente, pero otras de manera consciente. En primer lugar, se profundiza en el concepto de cultura y de su fusión con el lenguaje, demostrando que el enfoque etnolingüístico es el más adecuado para investigarlo. Seguidamente, se describe cómo el tema del tiempo ha generado ciertas nociones en la mente de los hablantes. Se proporciona una clasificación etnolingüística de todos los términos recogidos, primando los aspectos culturales y cognitivos para llegar a ciertas conclusiones.

Palabras clave: tiempo atmosférico; léxico; etnolingüística; cultura; cognición.

ABSTRACT

Speaking about the weather, a daily activity, is not trivial: it is a unique cultural act, as the speaker activates all the linguistic and cultural tools they possess, sometimes unconsciously, but sometimes consciously. To explain this, we first delve into the concept of culture and the fusion of language and culture, demonstrating that the ethnolinguistic approach is the most suitable for investigation. Then, we explore how discussing the weather has shaped certain notions in the minds of speakers. An ethnolinguistic classification of all the collected terms is provided, taking cultural and cognitive aspects into account. Finally, some conclusions are presented.

Keywords: weather; lexicon; ethnolinguistics; culture; cognition.

1. SARRERA. 2. EREMU ETNOLINGUISTIKOA. 2.1. Kultura zertan den. 2.2. Lexikoa zertan den. 2.3. Kulturaren eragina lexikoan. 2.4. Hizkuntza eta kognizioa. 2.5. Zientzia eta lexikoa. 3. EGURALDIAREN EGOERA HIZPIDE IZATEA. 4. SAILKAPEN ETNOLINGUISTIKOA. 4.1. Eguraldia bera izendatzeko terminoak. 4.2. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den. 4.3. Eguraldiari buruzko jarduerak. 4.4. Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia. 4.5. Nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak. 5. ONDORIOAK. 6. LABURDURAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Artikulu honetan aditzera emango da norainoko garrantzia daukan kulturak lexikoaren eraketan. Ez dago aditurik hizkuntza eta kultura banaezinak direla ukatzen denik: hizkuntzak kulturari eragiten dio, eta kulturak hizkuntzari. Elkarrekin bizi dira, eta elkarri eragiten diote: hizkuntzalaritzaren ildoan artean, etnolinguistikak jorratzen du hobekien hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztardura (Martin Camacho, 2016). Elkarrekintza hori argitara emateko, eguraldiaren lexikotik, harexetaz mintzatzea hautatu da elkarren beharrian hori ezin hobekiago islatzen da eta. Ezbairik gabe, mintzaira baten lexikoan ispilatzen da hizkuntza-komunitate baten kultura; halabeharrez, adierazi egin behar da. Nolanahi ere, harreman hori ulertzeko bidea ez da samurra, malkar samarra da, eta horretarako, segidan, urraspidearen berri emango da, irakurlea harreman horretaz era egokian jabetuko bada. Ez da dirudien bezain gaitza, aukeratzeko bidezidorra aproposa bada. Metodologia etnolinguistikoa sakondu nahi duenak jotzea dauka egileak urtaroei buruz egindako azken artikulura (Diéguez, 2024). Hantxe azaltzen da luze eta zabal nola sailka daitezkeen datu linguistikoak etnolinguistikaren arabera.

Lehenengo eta behin, kulturaren eta lexikoaren barne-muinak azaleratu behar dira, zer den kultura, zer den lexikoa; izan ere, hori zedarritu gabe, nekez ulertuko da artikulu honen mamia. Behin kontzeptu horiek xehatuta, aztertuko da nola eragiten dion kulturak lexikoari, nolako hazkurria ematen dion, nola eguneroko bizimoduak, ekanduek eta aiturek ziprztintzen duten lexikoa, nola ematen dituzten osagaiak hizkuntza baten lexikoa eraikitzeke: motor sendo, errime eta gotorra dugu kultura.

Aurrerago azalduko da eguraldiaren egoera hizpide izatea ez dela gizakion jarduera txatxarra; aspalditxotik transmititutako jakintzaren bitartez, kontu sozial eta kultural ugariren berri ematen da oharkabeen. Baina, jakina, ez dago lexikoaren eta kulturaren arteko azterketa sakonik, hitz-corpus zabal eta sendo batez baliatu ezean. Gaur egun, corpusak¹ erabiltzea aski ataza erraz bilakatu da Interneti esker: ia oro daukagu amaraunean, eta horrek ikertzaileari lana ikaragarri errazten dio.

Guztiarekin ere, egin beharreko lana ez da nolanahikoa, xehe-xehe, goitik behera, miatu behar dira corpusak taxuzko ondorioetara iristeko. Zerbait ahazteak sistema guztia aldarazten du. Arakatze hori eginda, jasotako eguraldiaren gaineko herri-kontzeptuak azalduko dira.

Aipatu bezala, horrainoko bidea malkar samarra izango da, baina ordurako nahiko zelaituta egongo da: herri-kontzeptuez baliaturik, sailkapen etnolinguistikoa egingo da, betiere, kulturak lexikoan daukan eragina nabarmenduz, hau da, anabasa dirudien herri-berbategia ordenatu egingo da irizpide etnolinguistikoen bitartez. Hasteko, eguraldia bera izendatzeko terminoak azalduko dira; horren baitan, eguneko eguraldia nola adierazten den aztertuko da. Segidan, zer den klima eta zer den eguraldia (sarritan nahasten dira), eta klimari nola irizten zaion.

Lehendabiziko atal hori urraturik, eguraldia nola dagoen eta nolakoa den adierazteko hitzak eta esapideak azalduko dira, aipatu bezala, hizkuntza eta kultura uztartuz. Segidan, nolakotasun horren barruan, lehenengo eta behin, eguraldi on eta egokia nola izendatzen den aztertuko da, eta, jarraian, ifrentzua, eguraldi txarrari nola irizten zaion.

Baina, eguraldi kontuetan, denak ez dira izenak eta izenondoak bakarrik, jarduerak ere izaten dira, eta hori dela eta, ikuspegi etnolinguistikotik esapideak eta esamoldeak ere aztertuko dira. Jarduerak banan-banan xehatuko dira, irakurleak aiseago ulertzen dituzan.

Horrenbestez, dagoeneko koadroa ia osorik margoturik dugu, baina kontu garrantzitsu bat falta dugu: egoerei edo aldiei lotutako eguraldia tarteko, zein izen, izenondo eta esapide erabiltzen diren han-hemenka. Eredu horretan bikain islatzen da kulturaren eta lexikoaren arteko harremana. Osagarri gisa, eguraldia asmatzeko egunen gaineko izendapenak azaltzen dira.

Azkenik, bidezidor guztia urraturik, zenbait ondorioen berri ematen da, egindako bidea argiago gera dadin. Ziurrenik, ordurako, irakurlea bere ondorioetara iritsita

1 Iturri nagusiak honako hauek dira: DVEF, *Diccionario Vasco Español-Francés* (Azkue, 1905-1906/1969); DRALV, *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca* (Akesolo et al., 1991); EH, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*; EHHA, *Euskal Herriko Hizkeren Atlas* (Euskaltzaindia, 2008) eta OEH, *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mitxelena & Sarasola, 1987 – 2005). Azken honek ezin konta ahal liburu eta ikerlan biltzen ditu bere baitan. Mokoroaren ikerlana ere nabarmendu behar da, hala nola Iñaki Gaminderen Bizkai aldeko lana eta Joxe Landak *Gara* egunkarian egindako aro-iragarpenak.

egongo da, baina berriz gauza bera diogu: zoragarria da eguraldi-kontuetan euskararen narotasuna, eta zorigaitzez, euskarari berari osoki hartuta gertatzen zaion bezala, lexiko-higadura gero eta latzagoa da.

2. EREMU ETNOLINGUISTIKOA

2.1. Kultura zertan den

Kulturaren definizioan sakontzeko, egin daitekeen biderik labur eta errazena euskararen hiztegi-tara jotzea da, *kultura* nola definitzen duten aintzat hartzeko; adibidez, hau bazter utziko dugu: «gizaki baten jakintza eta ezagutza, ikastearen, irakurtzearen, bidaien, telebistaren, ikus-entzunezkoen, sare sozialen eta abarren bitartez». Hori ez dugu inongo hiztegitan aurkituko, baina *vox populi* izaten da. Horrelaxe ulertzen du jende askok kultura. Ez daukagu euskaraz hitzen definizioa ematen duen hiztegi askorik, baina dauzkagunetan sakondurik, bat egiten dugu honako definizio hauekin:

Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoa; gizakiak gizartean ikasten dituen jokamoldeen multzoa, herentzia biologikoaren bidez hartutakoari kontrajarria (*Harluxet* hiztegi entziklopedikoa).

–Gizarteetan, ikasten diren jokamoldeen multzoa; herri edo zibilizazio baten buru-lanaren emaitzen multzoa (EH).

Definizio horiek aztertuz gero, funtsezko ezaugarriak azaleratuko dira: *kultura*, lehenik, bi esparru handiren inguruko errealtate-multzoari dagokio: immaterialari buruzkoa (izaera espiritual, psikiko edo mentalagatik), eta materialari buruzkoa. Ondorioz, kulturaren emaitzak immaterialak zein materialak izan daitezke, berez naturari kontrajarriak. Natura da gizakiari berez dagokiona, gizakiak berak esku hartu gabe, alegia, dela izaki gisa dagokiona (gorputza, organoak, gogoa...), dela ingurumenari dagokiona (lurra, ibaiak, izakiak...); kultura, oster, hauxe izango litzateke: gizakiak naturari eragitean landu eta egindako produktuen multzoa, gorputzez zein gogoz jardutean (Casado Velarde, 1988, 11.-12. or.). Adibide xume eta erraz bat: arrautza bat, berez, natura da, oiloak errundakoa; baina jateko frijituz gero, kultura izango da, produktu kulturala da, natura eraldatu dugu eta; transformazio-prozesua jasan du. Hortaz, arte guztiak kultura dira, nolabait, natura eraldatzen saiatzen baitira. Gure artikulua muinera etorrira, eguraldiaren herri-eremua edo eremu etnometeorologikoa, aipa dezagun *mataza* artilez osatutako multzoa dela, «euskarririk gabe bira handietan bildurik dagoen haria» (EH), baina elur-maluta (handia) adierazteko erabiltzen badugu, prozesu kultural baten ondorioa da, irudi batez, nolabait, natura eraldatu baitugu metafora baten bitartez. Eguraldiari buruzko lexikoa metafora eder ugariz osaturik dago. Prozesu kognitiboen bitartez garatzen dira hizkuntzen lexikoak. Hiztunek hizkuntza baten lexikoa garatzen dute adimen-begiaren bidez: irudi-multzo egituratua eratzen dute. Palmer-ek (2000) egindako

ikerlanean adimenaren iruditeria² jotzen du ardatzat hizkuntzak eta kulturak iker-tzean: «hizkuntza adimenaren iruditerian erabilitako hitzezko sinbolo-jokoa da. Adime-naren begiaz, *mind's eye*, ikusten duguna da iruditeria, eta osterantzeko sentsazio eta sentipen batzuk». Haren ikuspegiaren arabera, «irudikatzen duguna pertzepzio-forma guztien bidez lortutako esperientzietan oinarrituta dago, eta, gainera, hitz egiten dugu» (Palmer, 2000 apud Diéguez, 2021, 34. or.). Joera bertsukoa da ikerlan honen izenbu-rua: «Hablar y pensar, tareas culturales» (Velasco, 2003); mintzatzea eta pentsatzea kultur jarduerak dira, eta eguraldiaz mintzatzea ere, inolako zalantzarik gabe, kultur jarduera dugu. Ezagun da hizkuntzen eremu batzuen lexikoa natura eraldatzeagatik sor-tzen dela, hots, kulturaren eraginez produktu kulturalak gauzatzen dira; nahitaezkoa da kulturaren eta hizkuntzaren arteko uztardura, hizkuntzak aurrera joango badira.

2.2. Lexikoa zertan den

Kulturaren nondik norakoa ezarriz gero, azter dezagun nola ulertzen dugun lexi-koa ikuspegi etnolinguistikoaren arabera. Hizkuntza baten lexikoa hitzez ez ezik, atsotitz eta esapidez ere osaturik dago, Coseriuk (1977, 113.-118. or.) *diskurtso erreplikatu*a deitu zuena; izan ere, *elur* hitza zein *Goiz gorri*, *arrats euri* atsotitza eguraldi-lexikoaren atalak dira. Ezbairik gabe, hizkuntzalaritzaren eremuetan, lexikoarenean zuzenen eta garbien hautematen da kulturaren eragina. Hizkuntza baten lexikoa, eta gure kasuan eguraldiarena, aztertzeko, jardunbiderik egokiena etnolinguistikak ematen du hizkuntzalaritza kognitiboaren laguntzaz, egileak bere tesian frogatu zuenaren arabera (Diéguez, 2021). Metodo etnolinguistikoa oinarri eman zuen argitara egileak nolako prozesu kognitiboak gertatzen diren hitzunen garunean adimen-begiaren bidez; adibidez, zertan oinarritzen diren zenbait hitzun euri xehe-xeheri deitzeko: *euri-langarra*, *kuku-izerdia*, *aixaixak bustitzeko euria* eta abar. Hitzunek, gehienbat, metaforak eraiki izan dituzte errealtatean atzeman dituzten zenbait ostagi³ izendatzeko.

2.3. Kulturaren eragina lexikoan

Alderdi ugaritan azpimarra daiteke kulturaren eragina lexikoan; hori dela eta, era-gin hori era askotara azter daiteke. Besteak beste, haxe nabarmenduko dugu (Martín Camacho, 2016, 198.-202. or.).

Lehenengo eta behin, inguruneak eragiten dio lexikoa eraikitzeari: lexikoa inguru-nearen arabera eratzen bide da. Hizkuntza oso gida baliotsua da jakiteko nola gizar-teak egokitu eta moldatzen diren beren ingurune natural, sozial, material eta naturaz

2 Adimen-iruditeria adimen-begiaz ikusten duguna da, Palmerren esanetan. Erdarazko itzulpenean «imaji-neria» eta «ojo de la mente», hurrenez hurren.

3 *Ostagi* berba Azkuek asmatu zuen «fenomeno atmosferikoa» esateko. Beste batzuetan, *egurasketa* erabili zuen. Ez zuen arrakastarik izan, eta guztiz ahaztu zen; izan ere, behin baino ez zuen berak erabili *Euskale-rriaren yakintzaren* laugarren liburukian, 205. orrialdean, ostadarraren izendapenen berri eman zuenean: «Lan onen lehenengo liburuan, [...] bekuski irakurleak ostagi onen [ostadarraren] beste amazapi izen» (Azkue, 1935-1947/1989).

gaindikora (Morant Marco & Díaz Rojo, 2005, 10.-16. or.). Horrela bada, hitz eta esapide ugari islatzen dute nola taxutu eta interpretatu duen gizarte batek hizkuntza jakin bat. Beraz, natura, giza harreman eta sinesmenen elementuak –mitologia ahaztu gabe– izendatzen dituzten berbak, kulturak arlo horiek interpretatu dituen moduaren ondorioak dira.

Ingurunearen eraginaz gain, lexikoa bereizketa semantiko ugari azaleratzen dira (Casado Velarde, 1988, 68.-69. or.). Oso ohikoa da baieztatzea komunitate baten kulturaren alderdiak, gizabanakoen bizimodurako berebiziko garrantzia daukatenak, bereizketa lexikoak sortzen diren gunen bihurtzen direla. Bereizketa horien bidez, hizkuntzak alor jakin batzuen interpretazioa zehaten du; adibidez, italierak pastari deitzeko hitzak edo nola sortu duen armak izendatzeko lexikoa AEBko ingelesak. Euskarari dagokionez, bereizketa semantiko ugari dira ostagiak desberdintzeko. Ez da artikulu honen helburua, baina euri motak bereizteko, han-hemenka, Euskal Herrian barrena, ehunka berba dauzkagu (Diéguez, 2021).

Esan gabe doa, kultura bilakatuz doan heinean, lexikoa ere bilakatuz doala. Horrela, kultur aldaketek lexikoari eragiten diotela azter dezake ikerketa etnolinguistiko batek eta, era berean, nola agertzen diren hitz berriak eta nola galtzen diren beste hitz batzuk. Etnometeorologiaren esparruan, zalantzarik gabe, zientzialarien iritziz gertatzen den eguraldi-aldaketak ezinbestez eragiten dio berbak erabiltzeari; izan ere, gal litezkeen fenomeno batzuei dagozkien hitzak ezari-ezarian lozorroan eroriko dira, ez baitira beharrezkoak: beharrezana nolako, hitzak halako. Agian, inoiz, norbaitek iratzarriko ditu berriz ere hitz horiek.

Lexikoa inguruko kulturari erabat atxikita dagoelarik, komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla da. Alderdi hori garrantzi handikoa da. Maiz baieztatu izan da hitz batzuek giza komunitate baten oso alderdi intimoak adierazten dituztela. Euskarak fenomeno zehatz bati deitzeko hitz elkartu jakin bat erabiltzeak eman lezake aditzera zein ote den gizarte baten «ideologia» edo bizitzarekiko ikuspegia (Barthes, 1971). Eremu etnometeorologikoan ugari dira eratutako metaforak, oso sinbolismo aberatsa sorturik; esaterako, *izotz-burruntzia* hitz elkartuaren bigarren osagaiak islatzen du euskal hitzunaren pentsamoldea, nekazaritzari lotua, lan egiteko tresnei uztartua (Diéguez, 2021). Beraz, «izena den guztia omen da» deritzon euskal esapidea, ikuspegi hermeneutiko batetik begiratuta, «hizkuntzak errealitatearen giza esperientzia eta bizipen guztiak antolatzen ditu; ondorioz, errealitatearen eta gizakiaren arteko elkarrekintza adierazi eta irudikatzen da izenean, eta, izena aipatzean, elkarrekintza hori eratu eta interpretatzen da» (Ortiz-Osés & Garagalza, 2006, 54. or.).

Hitzen etimologia arrunt arlo labana delarik ere, ikertzearen ikertzeaz, antzinako kultur egintzak argitara eman ditzake, behialako gizarte baten egituraren berri eman dezake. Kontu handiz egin beharreko lana izanik, arduraz eginda erraztu dezake kulturaren ezkutuko datuak deskubritu eta azaleratzea; esaterako, *ostots* terminoa *ortz(i)* + *hots* berben bat egitetik bide dator, hau da «ortziko hotsa». Uler bedi *ortzi* lurraren gaineko zero oso gisa. Horrelako eleak eta hitz elkartuak xehatzeak eman litzake eremu batzuetan oso ondorio adierazgarriak.

Etimologia ez ezik, maileguak jaso eta aztertzeak ere gizarteak erabili eta ezartzen dituen kulturarteko ezagutza-iturriak azal litzake. Horrek ere eman lezake, ezbaierik gabe, euskararen kulturarteko harremanen berri. Zenbaitetan lexikoaren eremu batzuetan egon litezkeen hutsune semantikoak betetzera etorri izan dira, baina beste zenbaitetan bi hizkuntzaren arteko harremanen isla besterik ez dira. Esaterako, *enbata* eta *galarrrena* hitzak erabiltzen dira fenomeno bera izendatzeko, eta biak maileguak dira, itsasoan lanean jardun duten arrantzaleek ekarritakoak, beste hizkuntza batzuen hitzunikiko harremanen ondorioz. Beraz, giza harremanek ahalbideratzen dute lexikoaren ondarea ugaltzea.

2.4. Hizkuntza eta kognizioa

Prozesu kognitiboak ulertzea ere biziki emankorra izan liteke hitzen eragina gizabanakoaren pentsamenduan aztertzean, etnolinguistikaren xedeetarako bat baita, gaur egungo hizkuntzalaritza kognitibora hurbilduz (Ibarretxe-Antuñano & Valenzuela, 2021). Horretarako, Sapir-Whorf deritzon printzipio istilutsu askoa dugu, hainbat hauts harrotu zuena. Hizkuntzak pentsaerari eragiten ote dion hipotesia frogatzen saiatu ziren Sapir (1921/1962) eta Whorf (1956/2011). Nahiz ideia hori garai hartan berria izan ez, Benjamin Lee Whorfek, Edward Sapirren ideia interesgarriak oinarritzat harturik, beste era batera lotu zion aferari. Whorfek eman zuen aditzera hizkuntza bakoitzaren sistema linguistikoa ez dela ideiak adierazteko sistema erreproduzitzaile huts-hutsa, baizik eta sistemak berak gizabanakoaren ideiak eratu eta itxuratu egiten dituela, hots, gidari duela adimenaren jardueretarako eta inpresioak aztertzeako. Antza denez, gure mintzairek finkatzen dituzten arauak lagun, natura atalkatu egiten dugu. Whorfek garatutako erlatibismo linguistikoa hiru adierazpenetan azaltzen da: lehenengo, erlatibista hutsa da, eta agertzen du bestelako mintzairen berbadunek mundua bestela eratzen dutela, hots, mundu-ikuskerak desberdina daukatela. Bigarrena, determinista da, hizkuntza ez da komunikatzeko tresna hutsa, pentsamendua determinatu egiten du. Hirugarrenak aniztasun linguistikoa aldarrikatzen du, eta aurreko biak baino lehenagokoa da. Gizabanako eta komunitateen jokabide linguistikoaren aldakuntza izan liteke norma. Aniztasuna izan liteke norma (Diéguez, 2022).

2.5. Zientzia eta lexikoa

Bestalde, esparru jakin bateko lexikoa aztertzeak ondorio zientifiko zinez interesgarriak eman litzake, beste zientzia batzuen osagarri. Eguraldiaren herri-lexikoa azterturik antzeman daiteke nola bilakatzen den Euskal Herriko klima. Aipatutako faktore eta ondorio hauek aintzat harturik, hau da, nola eragiten dion inguruneak lexiko etnometeorologikoari, kultura aldatu ahala lexikoa bilakatuz doala, eta lexikoa izaten dela komunitate edo gizarte baten mundu-ikuskeraren isla, hauteman daiteke herri euskaldunetan klima bilakatuz doan heinean, era berean lexikoa aldatuz doala (Diéguez, 2021). Begi-bistan dago klima-aldaketak lexikoari eragiten diola: zenbait berba ahanzturaren zorroan edo, kasurik onenean, lozorroan, jausten dira, eta beste batzuk sortu, gaur egun, oro har, eta salbuespenak salbuespen, maileguak edota desegoki eratutako hitz elkartuak eta ikuspegiak; adibidez, *urdingune* ostartea izendatzeko.

3. EGURALDIAREN EGOERA HIZPIDE IZATEA

Ur handi samarretan murgildu baino lehen, meteorologia-zientziaren ikuspegitik eguraldia eta klima bereiztea komeni da; eguraldia eguratsaren egoera zehatza da, unekoa; klima, ordea, lurralde bateko egurats-giroaren eta eguraldiaren ezaugarri multzoa, gutxienez 50 urtean jasotako datuetan oinarritua.

Ezin uka daiteke lagunen arteko solasaldi bati ekiteko eguraldia aipatzea dela bitartekorik ezagunena. Aspaldixotik eguraldia hizpide izateak bete izan du (Jakobson, 1963) funtzio fatikoa edo erlazonala deitu zena: igorlearen eta hartzailearen arteko komunikazio-kanalera bideratuta dago, eta elkarrizketa bat hasi, luzatu, eten edo amaitu nahi du, edo, besterik gabe, kontakturen bat dagoen egiaztatu. Informazio-edukia urri samarra da, eta agurtzeko modu gisa erabiltzen da. Funtzio fatikoaren helburua ez da nagusiki informazioa ematea, baizik eta kontaktu soziala erraztea, gero eduki handiagoko mezuak transmititu, eman eta optimizatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, eguraldiaz beraz mintzatzeak, zenbaitetan, funtzio fatikoa badu ere, beste zenbaitetan ez da horrela izaten, eta hitzen eta esapideen bitartez kontu kultural eta sozial ugariaren berri eman daiteke.

Lehenik, hainbat hiztegi, liburu eta corpusetan arakatuta (ikus 1. oin-oharra), emango da herri-ikuspegiaren araberrako hitz eta esapideen sailkapena. Hiztunek beheragoko kontzeptuak erabiltzen dituzte eguraldiaren berri emateko, aroarekiko irudipenak. Kontzeptu batzuk, jakina, eztabaidatzekoak dira, batik bat eguraldi «on» eta «txar»-aren ingurukoak, egokia edo ala desegokia ote den... gaur egun aisialdiari uztartuagoak lanari eta nekazaritzari baino. Hauek dira bildutako herri-kontzeptuak:

- Eguraldia izendatzeko hitzak
 - Eguneko eguraldia
 - Klima
- Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den
 - Aldakorra
 - Beroa
 - Busti-lehorra
 - Edonora joateko edo inora ere ez
 - Egokia
 - Euria ekartzen duena
 - Euririk gabea

- Euritsua
- Ez eguzkitsua, ez euritsua
- Ezohikoa eta oso beroa
- Garbia
- Goibela
- Hezea
- Hotza eta lainotsua
- Lainotua
- Lasaia (oso)
- Lehorra
- Nahasia
- Osasuntsua
- Ziurtasun gabekoa
- Ona eta egokia
- Txarra, gaiztoa eta desegokia
- Eguraldiari buruzko jarduerak
 - Lagun eta aldekoa izatea
 - Eguraldiak hobera egitea
 - Eguraldiak txarrera egitea
 - Eguraldia aldatzea
 - Eguraldia epeltzea
 - Eguraldiak zein itxura hartu
 - Eguraldi txarrak bat-batean harrapatzea

- Eguraldia eta urtaroa bat ez etortzea
- Eguraldiak egonkor irautea
- Eguraldiaren joera adieraztea
- Egoerei edo aldiei lotutako eguraldia
 - Aldiak
 - Gaueko eguraldi gozoa
 - Gaueko eguraldi txarra
 - Nonbait egoteko edo zerbait egiteko eguraldi aproposa
 - Ibiltzeko
 - Jateko
 - Kanpoan egoteko
 - Lo egiteko
 - Sutondoan egoteko
- Lan-jarduerak egiteko eguraldi ona
 - Belarra mozteko
 - Ereiteko
 - Lan egiteko
 - Mahatsa biltzeko
- Urte barruan nolako eguraldia egongo den asmatzeko egunak
 - Urtarrilaren lehenengo hamabi egunak
 - Otsailaren lehenengo hamabi egunak
 - Abuztuaren lehenengo hamabi egunak
 - Abuztuaren lehenengo hogeita lau egunak

4. SAILKAPEN ETNOLINGUISTIKOA

4.1. Eguraldia bera izendatzeko terminoak

Sei hitz bide dauzka euskarak eguratsaren egoera adierazteko: *aro*, *bedaro*, *denbora*, *eguraldi*, *giro* eta *sasoi*. Bakoitzak bere berezitasunak badauzka ere, testuinguru jakinetan baliokidetzat har daitezke. Esan gabe doa aldaerak ugari direla, eta hemen bakar batzuk baino ez direla jaso, ikuspegi orokor bat ematearren⁴. Jarraian azaltzen diren berba gehienak OEHN dauden arren, interesgarritzat jotzen da jatorrizko sorburua aipatzea, batik bat ahozkoa denean; esate baterako, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA).

Ezaguna da, oso, *aro* hitzaren eremu semantikoa: denbora adieraztetik, atzizkia ere bada, eguraldia adierazteraino. Biziki emankorra da izen zein atzizki gisa: «Erdi Aro»; «aro latz»; «urtaro». Ikusiko dugunez, eguraldi-kontuetan ere aski emankorra da; adibidez, hurrengo elea: *bedaro*. Gehienetan *aro* berbak eguraldia bera adierazten du, baina Azkuek jasotako adiera batean, hiztunaren adimen-begiak bestela hautematen zuen eguraldiaren egoera: itsasoari lotzen zion, eta txarraldiaren ondoren, eguraldiak hobera egitea esan nahi zuela adierazten zuen. Jarraian, jasotako corpusa ematen da ezagutzera hitza testuinguruan aiseago uler dadin.

Aro

aho: zuberera. Harriet (OEH).

ao: Z-Altzai (EHHA).

aro: B-Lemoa (EHHA). «Aro ona dau». «Aro ona dau ibiltzeko nai solorako nai beste gause baterako» B-Jatabe (Gaminde, 2002). *Término de mar, mejora o embellecimiento del tiempo después del malo* (DVEF).

au: Z-Pagola, Sohüta (EHHA).

ha(r)o: Z-Santa Grazi (EHHA).

Bedaro hitza OEHN jasota dago «eguraldi ona dela belarra mozteko», hots, *belar/bedar* + *aro*. Aipatu bezala, hemen -*aro* atzizki gisa. Hala ere, *eguraldi* berbaren baliokide gisa ez da azaltzen, baina, bai EHHAn Zuberoako hiru herritan, gutxienez. *Bedau* ahoskatzten dutelarik ere, ezbairik gabe *bedaroren* aldaera da. Hiru herri horietan *egünaldi* eleaz ere baliatzen omen dira; beraz, *bedau* aldaera galzorian egon liteke, *egünaldiren* alde.

Bedaro

bedau (egünaldi): Z-Altzürükü, Larraine, Montori (EHHA).

Ondoko erdaretan gertatzen den bezalaxe, euskaraz denbora eta eguratsaren egoera hitz berbera baliatzen dute hiztun askok: *denbora*. Euskal Herrian, han-hemenka, aldaera ugariarekin egiten dugu topo, eta zenbait herritan bizpahiru ele elkarrekin bizi dira: ez da inongo desberdintasunik sumatzen, bata zein bestea erabiltzen dute, Lekeitioko adibidean bezala: «Lekeition eguraldia nahi denporea erabilten dira gauza bera esateko».

4 Corpus zabalagoa nahi duenak jo beza *Orotariko Euskal Hiztegira* (OEH).

Denbora

denbora: G-Oñati (Izagirre, 1971).

denpora: B-Lekeitio «Lekeition eguraldia nahi denporea erabilten dira gauza bera esateko». «Denpora zantarra = Eguraldi txar-txarra». *Lekeitioko Berbak 2*. «Itxostxoridxe urtetan badere errire, guk ametik askotan ikusten dus, denpora txarra dator, orrek denporalie dakarre, orrek a min deuke, itxosoan min deuke orrek». B-Bakio (Gaminde, 1999).

tenbora: N-Gaintza (EHHA).

tenpra: erronkaria. «Odeiak Jakara, tenprak kakara». «Mendiak egiten deinean sonu, tenprak euri barrontatan du» (Estornes, 1997).

Eguraldi hitza gailendu da batez ere euskara batuan. Egia da ezagun samarturik dela Euskal Herri osoan, eta, agian, *denbora* ≠ *eguraldia* bikotea bereiztearren, erabat zabaldu da hedabideetan. Nolanahi ere, gogorarazi behar da *eguraldi* berbak denborarekin daukan zerikusia, ezen, azken batean, «egunaren aldia» besterik ez baita. Ezaguna da antzinako hitzetan *-n -r* bihurtzen zela atzizkiak hartzean, ahoskatzearen mesede; adibidez, *oihan + zabal > oiharzabal*. Ez dirudi adiera berezirik daukanik *eguraldi* hitzak, baina hitzun batzuek, non entzunda ezin esanda, «denbora ona» adierazteko baliatzen dute: «Gaur *eguraldia* dago». Beste batzuek, aldiz, beherago ikusiko den bezala, «eguneko eguraldia» aipatzeko baliatzen dute. Hala eta guztiz ere, gaur egun hedatu egin da «eguraldi ona» eta «eguraldi txarra» esatea, izenondo eta guzti.

Eguraldi

ebeldi: N-Etxarri (Larraun) (EHHA). «Beste zelan dau izena eguraldiak?, Egualdia, egualdia ta ebeldia». *Euskaltzale*, 1897, 27. or. (DRALV).

egoaldi: bizkaiera. «Berakatz eta kipulak egoaldi oanagaz atara». *Arantzazu Egutegia*, 1962-06-01 (DRALV).

egoialdi: «Egoialdiak negu antza. Euri otza ugari oraindik aurrera». *Arantzazu Egutegia*, 1960-XI-01 (DRALV).

egualde: N-Igoa (EHHA).

egualdi: «Beste zelan dau izena ‘eguraldiak’? – “Egunaldia” “Egualdia” ta “Ebeldia”». *Euskaltzale*, 1897, 272. or. «Egualdi ona, zeru garbia, izarratu ederra...» D. xAgirre, *Euskaltzale*, 1897, 67. or. (DRALV).

egueldi: goi-nafarrera. «Alolako egueldie daukagu» (Intza, 1927, 1928 eta 1974).

eguraldi: eguratsaren egoera (EH).

egünaldi: Z-Altzai, Pagola (EHHA).

egürraldi: Z-Sohüta (EHHA).

eunaldi: N-Aniz (EHHA).

Giro berba eztabaidatzekoa da sail honetan sartzea, *eguraldiren* baliokide gisa. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (EH) dakartzan adiera guztiak irakurrita, «eguratsaren egoera» aipatzen du; beraz, zenbait testuingurutan sinonimotzat har litekeenez, ez da zentzugabekoa hemen sartzea.

Giro

giro: eguratsaren egoera; eguraldia, ingurunetzat hartua. «Udaberriko giro epela», «Giro euritsua», «Udan bai han giro ederra, inon ederrik bazen» (EH).

Azken ele hori, *sasoi*, lekukotasun idatzietan ez da *eguraldia* adierazteko azaltzen. Baina, ahozkoetara joz gero (EHHA), lagin txiki bat emanda, garbi ikusten da Euskal Herriko zenbait bazterretan iraun duela *eguraldiren* sinonimo gisa. Lemoan, berriemai-leari eginiko galderaren erantzunean dago gakoa: «Hemen aroa esaten da? Ez, sasoi» (EHHA). Altzürükün, ordea, *sasu* eta *egünaldi* elkarrekin bizi dira.

Sasoi

sasoi: B-Lemoa, Zollo. «Hemen aroa esaten da? Ez, sasoi» (EHHA).

sasoiñ: L-Donibane Lohizune (EHHA).

sasu (egünaldi): Z-Altzürükü (EHHA).

Eguraldia izendatzeko hitz guztiak aztertuta, ez dago inolako arrazoirik gure arbasoen adimen-begiek eraikitako adiera guztiak ertzeratzeko; tokian tokikoak, sasoiak sasoiak eta egoeran egoerakoak baliatzea da bidea. Ez ditzagun kulturaren oinarrituriko eleak ahanzt!

4.1.1. Egunekeo eguraldia

Jarraian, azpisail bat osaturik, «egunekeo eguraldia» aipatzeko hitzen berri emango da. Ez da ikusten eguraldiaren eremu semantikoa kontuan hartuta, baina hiztun batzuek desberdin samar sumatzen dituzte «eguraldi orokorra» eta «egunekeo eguraldia». *Labayru hiztegiak* baizik ez du adierazten Azkuek jasotako adiera, *egun* + *aroz* osatua. *Eguraldi* berba bera ere erabiltzen da «egunekeo eguraldia» aditzera emateko. Aurrerago emango zaio toki berezia hautemate eta adiera horri.

Egunaro

egunaro: (Azkue, 1923-1925/1969). «Tiempo atmosférico a lo largo del día». «Egunaro ona dagoanean, etxe-aurreko landan egoten dira kontu-kontari» (*Labayru hiztegia*).

Eguraldi

egunaldi: «Ezinduak olako egunaldi baten ondotik, nola berriz loth bideari?» «Har zatzu Jainkoaren eskutik zuen hotz-busti ta egunaldi on eta gaixto guziak». Jonnateguy, *Sainduen*, I, 489. or. *Fedearen Propagacionea*, 1881, 38. or. (DRALV).

eguraldi: orokorra. «Eguraldi ederra zegok» (gipuzkera). «Atzokoaren damurik ezta-
kar eguraldi onek». *Euskalerriaren yakintza*, 1989, 341. or. [*Se dice cuando al día siguiente de un día malo viene otro peor*] (Azkue, 1935-1947/1989).

4.1.2. Klima

Klima luzaro neurtzen den lurraldeko bateko eguraldia da; beraz, urte luzaz eguraldia nolakoa izaten den hautematen da. Hori izendatzeko, gehienetan *klima* maileguaz baliatu ohi gara, baina, zenbaitetan neologismoak sortzera jotzen da, hiztunen adimen-begiari itzuriz; haietariko bat *egurasti* da, *egurats* + *-tiz* osatua.

Egurasti

egurasti: «Garai artan (Paleolitos) egurastiak aldaketa izugarriak egin zituan». Barandiaran. *Leen gizona*, 13. or. (DRALV).

4.2. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den

Gizakiak maiz eguraldia nolakoa den eta nola dagoen adierazi beharra dauka, eta horrelaxe egiten du. Ohikoena da *txarra* edo *ona* dela esatea, baina adimen-begiak hortik haratago ikusi ohi du, eta orotariko izenondoak, izenak, aditzak eta aditz-lokuzioak erabili ohi ditu. Eguraldiari «lagunak» ematea zeharo kontu kulturala da, oro har, nekazarien jarduerari uztartua, baina, gaur egun, «ona» edo «txarra» dela aditzera ematea aisialdiari lotutakoa dela begitantzen zaigu. Jarraian, taula batean kontzeptu guztiak adierazi eta horrekin batera, eguraldiaren egoerarekiko oparotasunaren erreferentzien lagin handi samarra agerraraziko da. Taulan *ona* eta *txarra* elkarren ondoan ipiniko dira, erkaketa aiseago egingo delakoan. Ezagun da ikuspegi ezkorra gailentzen zaiola baikorrari, hiztunen adimen-begiaren arabera. Aurrerago eguraldi «ona» eta «txarra» direla-eta, beste sailkapen bat egingo da ñabardura sakonagoak zehatuz, batik bat nekazaritzari lotutako kontzeptuak. Beheko taulan, gehienbat, eguraldiak hartzen dituen izenondoak eta izenlagunak azalduko dira.

1. taula. Nola dagoen eguraldia eta nolakoa den

Aldakorra	Beroa	Busti-lehorra	Edonora / Inora ez	Egokia
<i>aldakor</i>	<i>zergel</i>	<i>busti-lehor</i>	<i>edonoraro / inoraro</i>	<i>aro hauta</i> <i>aroi</i> <i>arol</i> <i>egotaro ona</i> <i>eguario</i> <i>eguraldi</i> <i>eultzi-giro</i> <i>goibara</i> <i>ongiro</i> <i>zeruak goiz ona</i>
Euria ekarri	Euririk gabea	Euritsua	Eguzki-euri	Ezohikoa, oso beroa
<i>samur</i>	<i>muzin</i>	<i>busti</i> <i>langasta</i> <i>nabar</i> <i>txatxu</i> <i>zirtzil</i>	<i>hori</i>	<i>marmoka</i>
Garbia	Goibela	Hezea	Hotza + laino	Lainotua
<i>abaldenbora</i> <i>ostraka</i>	<i>erori</i> <i>goiarre</i> <i>muzin</i> <i>zarpail</i>	<i>busti</i> <i>umel</i>	<i>zimu</i>	<i>lodi</i>
Lasaia (oso)	Lehorra	Nahasia	Osasuntsua	-Ziurtasun
<i>eguraldi manea</i> <i>egon</i>	<i>gogor</i> <i>idorgiro</i> <i>lehorgiro</i> <i>sapoltsu</i> <i>zail</i> <i>tenkor</i>	<i>harroxka</i> <i>lardaka</i> <i>lardats</i> <i>lorrin</i> <i>nahasi</i> <i>narras</i> <i>senetik irten</i> <i>urrigiro</i>	<i>sano</i>	<i>badaezpadako</i>

Sailkapen honi dagokionez, adimen-begiak bizitzaren beste alor semantiko batzuetatik hedatu ditu adierak eremu etnometeorologikora; alderantziz ere gerta liteke, eguraldiari buruzko terminoak beste alor batzuetara ere pasatzen dira; adibidez, *goibel*, «pertsona bat triste dagoela adierazteko». Eremu etnometeorologikora lerratu direnen artean, den-dena ez da aztertuko, bereizgarrienak soil-soilik. Honako hauek dira aipatzekoak:

Zergel Azpeitian jasota dago, eta kasu honetan ere badirudi zabaltze semantikoren bat suertatu dela, *zerbel*, *zerepel* eta *zerrepel* ere dokumentaturik daude-eta. Epeltasunari eta berotasunari loturiko adierak dira. *Zerrepel* ere entzuten da, pertsona bat «txolindurik» dagoela adierazteko.

Samur berba beste eremu batzuetan irakurri eta entzutea oso arrunta ohi da; hemen euria dakarrela esan nahi du, hau da, adimen-begiak sumatzen eguraldia prest dagoela euria jasotzeko.

Muzin da, oro har, «norbaitek zerbait atsegin edo gogoko ez duela erakusteko egiten duen keinua» edota «haserrea edo atseginik eza erakusten duena» (EH). Bistan da, eguraldia hizpide, eguraldiak euriari *muzin* egiten badio, «euririk gabekoa» eman nahi duela aditzera.

Kontrakoa, aroa euritsua dela agertzeko erabiltzen direnen artean, *nabar* dugu, «kolore argi eta ilunen nahasteaz osatua, kolore askotakoa; orban ilunak edo arreak dituen» (EH). Hitzunen adimen-begiak eskualde batzuetan horrelakoxe kolorea hautematen du euria egiten duenero.

Txatxu hitza ere ildo berekoa da, pertsona bat «ergela» edo «ganorabakoa» adierazteko erabilia, *eguraldi txatxua*, «eguraldi ergela, euritsua» dela azaltzeko da.

Zirtzil terminoa ere oso interesgarria da, «oso euri mehea» esan nahi du-eta. Jatorriz, arroparekin erabiltzen den berba dugu, «jantzi zahar eta urratua». Hortik igaro da, hitzunen adimen-begiak metafora ederra osaturik, euri xehe-xehea adieraztera. Soinekoen zirtzilak eta euriaren mehetasuna erkatzen dituzte hitzunek.

Horia da eremu etnometeorologikoan erabiltzen den beste kolore bat. Hitzunen adimen-begiaren arabera, ez dago eguzkirik, lainoturik dago, baina ateri da, ez du euririk egiten; giroa, eguratsa, ortzia *hori* sumatzen dute hitzunek.

Aro bero-beroa dela eta, *marmoka* elea jasota dago. Garbi dago beti erabiltzen dugula «ehun gardenez osaturiko itsas animalia» (EH) aditzera emateko. Zaila da jakiten hitzunen adimen-begiak zer-nolako alderaketa egiten duen animalia horren eta eguraldi oso beroaren artean. Agian, tankera horretako aroaz baliaturik, marmokak hurreratzeko dira kostaldera.

Hori dela eta, ahozkoaren lanketa eta aldamiatzeko-lana erraztuko duen metodologia edo ingeniari-tza didaktikoa (Dolz & Mabillard, 2020; Gagnon & Dolz, 2016) eraiki beharra ikusi dugu; batetik, irakasleari ahozko hizkuntza lantzeko ikas-objektuak zehaztu eta hizkuntza ebaluatzeko eta aldamiatzeko irizpideak non jarri jakiteko gakoak eskainiko dizkiona; eta, bestetik, bigarren edo hirugarren hizkuntza ikas-terako estrategiak bilduko dituena: metakogniziorako estrategiak, hizkuntza-egiturak finkatzeko estrategiak, diskurtsoa luzatzeko estrategiak zein akatsak zuzentzeko estrategiak. Artikulu honetan aztertu nahi izan dugu ingeniari-tza didaktiko hori inplementatzeak zer-nola laguntzen dion ikaslearen ahozkoaren garapenari. Izan ere, hizkuntza-errutinei esker, oinarritzeko komunikazio-egiturak modu sistematikoan eta mailakatuan landu dira, bereziki ikaslearen ahozko hizkuntzaren gaitasun hartzailean ez ezik, gaitasun sortzailean ere eragiteko helburuarekin.

Jarraian, hizkuntza-errutinen proposamena sortzeko eta aldamiatzeko funtsezkoak izan diren oinarri teorikoak jaso ditugu. Hasteko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza eleaniztuna testuinguratu dugu, hizkuntza gutxitua erdigunean jartzean hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuetako beharrak azaleratuz. Ostean, proposamen berritzaileek hutsune horiei erantzuteko aintzat hartu beharko lituzketen hatsarreak aztertu ditugu (besteren artean, testu-generoaren markoa, praktika sistematikoen garrantzia nahiz ikas-objektuen aldamiatzea). Horren ondotik, hatsarre horietatik abiatuta diseinatu dugun hizkuntza-errutinen metodologia edo ingeniari-tza didaktikoa bera justifikatu eta azaldu dugu.

2. EZAGUTZA, MOTIBAZIOA ETA TESTUINGURUA

Testuinguru eleaniztunetan egiten diren hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesuak aztertzeko eta euskararen biziberritzea eta erabilera sustatzeko premia nagusia izaten jarraitzen dute (Díaz de Gureñu et al., 2021) eta alderdi hori sakon ikertzen ari dira (Manterola, 2024; Ortega & Manterola, 2022). Nola lortu ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia eleaniztuna garatzea euskara ardatz izanik? Nola sustatu euskararen erabilera? Nola hobetu ikaslearen ahozko hizkuntza? Nola eragiten die komunikazio-kompetentzien garapenak beste arlo batzuetako edukien ikaskuntzari? Zer harreman dago eskolako hizkuntzen artean? Galdera horiek guztiak ditugu euskal hezkuntza sistemaren jomugan (Pérez et al., 2021; Sainz Osinaga et al., 2012), eta horiei erantzun sendo eta bateratua ematea giltzarri izango da euskarak etorkizunean funtzio guztiak beteko baditu.

Hizkuntza gutxiagotu bat erdigunean duen hezkuntza eleaniztuna sustatu nahi da eta, aldi berean, ikasleak atzerriko hizkuntza batean edo bitan komunikatzeko gai izan daitezkeen nahi da. Gainera, ikastetxeetan kultura eta hizkuntza askotako ikasleak ditugu. Garai batean gehienek erdara bateko edo biko familietako haurrak baldin bagenituen

ere, orain ikastalde bakar batean hainbat familia-hizkuntza ere aurki ditzakegu euskaraz eskolatzen ari diren ikasleen artean, eta horrek euskal hiztun berri horiek euskal hiztun aktibo bihurtzeko erronka gehigarria eranstean dio (Amorrortu et al., 2017; Ortega, 2017). Egoera konplexu horrek zuzenean eragiten du eskolaren eredu pedagogikoan eta erabiltzen den metodologian. Eta erabaki asko dira eskola bakoitzak, bere errealitateari erreparatuta, hartu behar dituenak.

Ukaezina da euskararen biziberritzean eskolak izan duen eragina (Diaz de Gereñu et al., 2021; García-Azkoaga et al., 2019; García et al., 2022; Manterola, 2024; Zalbide, 1998). Hezkuntzaren egitekoa bereziki erabakigarria da hizkuntza gutxituaren hizkuntza-elementu guztiak transmititzeko (Gartziarena, 2024). Gainera, hizkuntza jakite hutsak ere ez dio hizkuntzaren erabilerari eragiten. Horren lekuko dira VII. Inkesta Soziolinguistikoan Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (2023) argitaratutako datuak. Horien arabera, duela 30 urte baino 261.000 euskaldun gehiago daude, eta gazteen artean nabarmen egin du gora ezagutzak: % 25etik % 75era. Alabaina, igoera horren ifrentzuan, esanguratsua da euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenen kopuruaren jaitsiera, % 34,6tik % 27,4ra (Eusko Jaurlaritzak, 2023). Iurrebasok (2023) bere tesian emandako datuek ere egoera kaskarragoa iradokitzen dute euskararentzat: hiztunen % 7,4ri bakarrik zaie errazagoa euskaraz hitz egitea erdaraz baino, eta, aldiz, erdaraz errazago moldatzen direnak % 84,6 dira (Iurrebaso, 2021, 2023).

Neurri handi batean, eskolari esker lortu da hiztun potentzialen kopurua handitzea; izan ere, ikasleen % 83,7 eskolatu da D ereduan 2023-2024 ikasturtean (Eusko Jaurlaritzak, 2024). Hala ere, orain hiztun potentzial horiek hiztun aktibo bihurtzea da erronka, eta jakin badakigu derrigorrezko ikasketa-ibilbide guztia D ereduan egite hutsak ez duela bermatzen eguneroko bizitzan dauden arlo guztietan euskaraz eroso aritzeko adinako gaitasuna; izan ere, ISEIren (2023) ebaluazio diagnostikoaren arabera, LH4n ikasleen % 37,8k eta DBHn % 54,4k ez du elebitasun-helburua lortzen. Eta hiztun aktibo izateko, ezinbestekoa da ikasleak hizkuntza horretan eroso sentitzea. Norbanakoen erabilera erosoan zuzenean eragiten duten aldagaiak, nagusiki, hizkuntza erabiltzeko konpetentziari lotutakoak dira. Horien artean garrantzi berezia du euskara erabiltzeko gaitasun egokia izateak; alegia, euskara eroso erabili ahal izateko behar besteko gaitasuna izateak. Eta horrekin batera, motibazioa nahiz aldagai soziolinguistikoak ere aldagai garrantzitsuak dira maila indibidual nahiz kolektiboan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak aurkeztu berri duen Aroa plan berrian (Eusko Jaurlaritzak, 2024), ardatz estrategikoetan jaso du erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatzeko erronka. Ardatz horri erantzuteko hainbat ekimen proposatzen ditu, besteak beste: ikasleek ahoz komunikatzeko duten gaitasuna lantzeko metodologiak hobetzea, baita euskara ikasteko orduan komunikagarritasunean oinarritutako metodologia eta baldintza egokiak garatzea ere.

Ez da aski, ordea. Hizkuntza objektu modura soilik ikasten denean, sustatzen den ezagutza oso mugatua da eta ez da nahikoa erabilerari buruzko ezagutza suspertzeko (Genesee, 1987). Norbere hizkuntzarekiko eta beste hizkuntzekiko ditugun jarrera eta

atxikimendua, hiztunekiko dugun begirunea eta hizkuntzarekiko motibazioa ere funtsezko aldagaiak dira hizkuntzaren erabilera erosora igarotzeko. Euskara bezalako hizkuntza gutxituen kasuan, erabiltzen jakitea ez ezik, erabili nahi izatea eta erabili ahal izatea ere funtsezkoa da (Euskalgintzaren Kontseilua, 2021).

Horrek motibazioen esparrura garamatza. Esparru horretan bi motibazio-mota landu behar dira: motibazio afektiboa eta motibazio pragmatikoa edo instrumentala (Euskalgintzaren Kontseilua, 2021). Motibazio afektiboaren kasuan, komunitate baten parte izatea, identitatea, euskararekin izaniko bizipen atseginak eta abar landu beharko dira. Horrek esan nahi du hizkuntzaren eta kulturaren arteko hariak egoki josi beharko direla, eta jendea euskal kulturaren murgiltzera bultzarazteaz gain, motibazio hori lantzeko etengabeko sentsibilizazio eta komunikazio-estrategia egokiak garatu beharko direla.

Motibazio pragmatikoa estuki loturik dago norbere garapen pertsonalean eta profesionalean euskaraz hitz egiteak ekarriko dizkion onurekin. Hortaz, zerikusi handia izango dute horretan instituzioetatik garatzen diren politika publikoek, bai eta pribatuak ere (Euskalgintzaren Kontseilua, 2021). Ildo horretatik, Cenzoek eta Gorterrekin (2017) hizkuntza gutxiagotuen testuinguruetan jokatzeko funtsezkotzat jotzen dute: 1) arnagune funtzionalak diseinatzea euskara erabiltzeko ikasgelan bertan, eta 2) euskara erabiltzeko beharra garatzea (Pérez Lizarralde et al., 2021). Bi ardatz horiek hizkuntza-errutinen erdigunean kokatuko dira, eta horiek egituratzeko, ahozkoaren lanketan adituek jasotzen dituzten hatsarreak hartu ditugu abiapuntu. Hatsarre horiek dira, hain zuzen, hurrengo lerroetan jaso ditugunak.

3. AHOZKOAREN LANKETAREN INGENIARITZARAKO HATSARRE BATZUK

Eusko Jaurlaritzaren 77/2023 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa behartuta, eskolak euskarazko ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera. Ildo beretik, Dolzek (2006) zioen moduan, haurrak gero eta lehenago eskolatzen dira, eta ondorioz, eskolan garatzen dute beren ahozko hizkuntza. Hortik abiatuta, ezinbesteko bihurtzen da eskoletan ahozko adierazpena irakastea (Dolz & Mabillard, 2020; Gagnon & Dolz, 2016); are gehiago, ikasle guztiei aukera berdina eman nahi bazaizkie. Ahozko hizkuntzaren lanketaren beharra ez da egungo auzia; ikerketek erakusten dute duela urte batzuk ere aldarrikatzen zela (Ruiz Bikandi & Camps, 2007):

Zein dira irakasleek ahozko hizkuntzaren ikaskuntzari buruz dituzten usteak? Zer lotura dago horien artean eta haien praktikaren artean? Zer estrategia erabiltzen dituzte irakasleek H2ko ikasleen ahozko diskurtsoaren garapena sustatzeko? [...]

Zer mailatan eragiten da metakognizioa eta zer ikas-objektuaren gainean? Ahozko hizkuntzaren zein irakaskuntza-diseinu jar daiteke abian [...] (Ruiz Bikandi & Camps, 2007, 217. or. [artikulugileek itzulita]).

Egun ere, orduko galdera horiek bizi-bizirik daudela esaten ausartuko ginateke. Ahozko jardunak gelaratu eta modu zehatz batean ebaluatzeko zailtasunak egungo hezkuntza-sisteman ahozkoa gainerako trebetasunekiko desabantailan dagoela esatera ere eraman ditu adituak (Fallarino et al., 2020). Zabalak (2018, 115. or.) ere azpimarratzen duen moduan, «praktika kontziente eta gidatuak falta dira ahozko hizkuntza-aren irakaskuntzan». Hain zuzen ere, ahozkoa ikasgelan lantzeak dakartzan zailtasunei erantzun nahiak eraman gaitu ahozkoa lantzeko metodologia bat eraikitza, etxekoa ez den hizkuntzan aritzen diren ikasleen ahozko diskurtsoaren garapenean eragiteko estrategiak bilduko dituen eta ekoizpenean eta metakognizioan ere eragingo duena.

Euskararen ahozkotasunaren irakaskuntzari eskainitako hainbat ikerlan ditugun arren (García-Azkoaga & Zabala, 2015; Gartzia, 2008; Pérez Lizarralde, 2014), gaur-gaurkoz ahozko hizkuntza-aren lanketak ez du berariazko lekua aurkitu gure eskoletan, nahiz eta eskolak asko duen lantzeko eta emateko (Dolz & Schneuwly, 1998; García-Azkoaga et al., 2019). García-Azkoaga eta besteren arabera (2019, 270. or.), «hainbat arrazoi egon litezke horretarako: tradizioaren ohitura, ahozko hizkuntza objektu harrapagaitza dela pentsatzea, ahozkotasunaren konplexutasuna bera, hura lantzeko behar diren baliabideak eta denbora, edota Baine (1994) azaltzen zuen bezala, dispositibo didaktiko egokiak sortzeko zailtasuna».

3.1. Ikuspegi soziodiskurtsiboa

Esan daiteke nolabaiteko adostasuna dagoela adituen artean ahozkoaren didaktika ikuspegi soziodiskurtsibotik eraikitzeko (Dolz et al., 2010; Zabala, 2018). Ikuspegi horren arabera, hizkuntza egoera komunikatibo erreal eta konplexuei erantzuteko baliatuz ikasiko da, betiere, testu-generoen baitako prozesu jarraiak diseinatuz. Hain zuzen ere, Genevako eskolak garatutako ingeniartza didaktikoaren oinarrian dagoen *sekuentzia didaktikoa* izan dugu abiapuntu hizkuntza-errutinak sortzeko. Sekuentzia didaktikoa testu genero baten baitan modu sistematikoan antolatutako eskola-jardueren multzoa da (Dolz et al., 2010), eta lau fase nagusi ditu: 1) ikasleek egin beharko duten ahozko edo idatzizko azken ekoizpenaren aurkezpen zehatza; 2) langai den testu-generoaren baitako aurretestu bat, ahoz nahiz idatziz; 3) hainbat jardueraz osatutako modulu-multzo bat; 4) eta, azkenik, ondorengo bat, ikasleari prozesuan zehar landu eta ikasi dituen ezagutzak praktikan jartzeko aukera emango diona eta, era berean, izandako garapena neurtzeko aukera emango duena. Askok eta askotarikoak dira sekuentzia didaktikoez egin izan diren ikerketak eta proposamenak (Larringan & Idiazabal, 2012; Sainz Osinaga et al., 2012), eta horiek funtsezkoak izan dira hizkuntza-errutinen proposamen hau garatu ahal izateko.

Izan ere, Zabalak (2018) dioten moduan, testu-generoak sortzen ditugu errutinetan ere, eta egoera horiek baliatzea ahozko hizkuntza irakasteko. Horretarako, ahozko komunikazioan sakontzeko tresna gisa planifikatu eta diseinatu behar dira errutinak. Proposatzen den ingeniartza didaktikoaren baitan, oso garrantzitsua da aldarnatzearen bidezko laguntza-egoerak diseinatzea, gaitasun komunikatiboaren garapena laguntzeko. Aldarnatzearen bidez, irakasleak, ikaslearen garapen-maila konstante izanik, beharrezko laguntza emango dio haurrari eta gidatu egingo du hizkuntza-aren erabilera berriak, aberatsak eta askotarikoak eskura ditzan.

3.2. Ikaskuntza aldarniatzeaz

Inguru sozial, historiko eta kulturalak erabat baldintzatzen du norberaren pentsamenduaren garapena (Vigotsky, 1977), eta eskolan eraikitzen diren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuek kontuan hartu behar dute ikaslearen garapen-prozesua zein unetan dagoen, bertan eragin ahal izateko. Horrela, Vigotskyk (1977) proposatutako Garapen Hurbileko Eremuan (GHE) kokatu behar da ikaskuntza-prozesua. Hain zuzen ere, GHEa izango da Garapen Zonalde Errealaren eta Garapen Zonalde Potentzialaren arteko tartea, eta Garapen Hurbileko Eremuan (GHE) aurrera egin ahal izateko aldarniatzeak garrantzia du (Bruner, 1978). Aldarniatzean, ikasleen gaitasunak aintzat hartzen dira, eta horien araberrako doikuntzan egiten dira esku-hartze didaktikoak, ikaskuntzan modu arrakastatsuan eta aktiboan aurrera egin dezaten.

Hizkuntza-errutinen diseinuan honako aldarniatze-estrategia hauek baliatu dira nagusiki: metakogniziorako estrategiak, hizkuntza-egiturak finkatzeko estrategiak, diskurtsoa luzatzeko estrategiak, birformulazioak, gaztelaniazko moldeak euskaraz emateko estrategiak zein akatsak zuzentzeko estrategiak (Howe et al., 2019; Mahan, 2020). Horiez gain, aurretestuaren nahiz ondotestuaren erdua ematetik abiatu dira errutinak (*modeling* gisa kontzeptualizatutako aldarniatzea). Azkenik, garrantzitsua da zehaztea materialean berariaz zehaztu direla ikasleen prozesua aldarniatzeko ego-kiak izan daitezkeen galderak, eginkizunen jomuga identifika dadin eta irakasgai diren alderdiak ongi finkatuta gera daitezen.

4. METODOLOGIA BERRITU BATEN JUSTIFIKAZIOA: HIZKUNTZA-ERRUTINA

Hizkuntza-errutinak Haur Hezkuntzako etapetan maiz erabili izan dira. Izan ere, etapa horretan gelan sortzen diren hizkuntza-erabilera eta -aukerak hiru multzotan banatu litezke (Huarte & Ozerinjauregi, 2012). Baga, ohitura eta errutinekin lotutako jardueretan egiten diren erabilerak, beti berdin errepikatzen direnak, umeak aurreikus ditzakeenak eta testuinguru esanguratsuetan gertatuko direnak (elikadura, garbitasuna, loa eta eguneroko harreman-egoerak, korro-egoerak eta abar); biga, esperientzia-eremu ezberdinetako lana aurrera ateratzeko egiten diren hizkuntza-erabilerak (arloetan egiten dugun lanari lotutako hizkuntza-erabilerari dagozkio); higa, hizkuntza berariaz lantzeko egoeretan egiten diren erabilerak (hizkuntza lantzeko helburuarekin lotutako erabilera ludiko-poetikoak eta ikus-entzunezkoak).

Asko dira Haur Hezkuntzan errutinak lantzearen onurak (Zabalza, 1987/2010): arretra mantentzeko gaitasuna eta segurtasuna, konfiantza, denbora ulertzeko gaitasuna, gaitasun kognitiboaren garapena sustatzea eta abar. Gainera, Zabalak (2018) jasotzen duenari jarraituz, ahozko komunikazioa irakasteko tresna eraginkorra izan daiteke errutina planifikatuak egitea. Ikusita etxean ikasi ez duten hizkuntzan eskolaratzen direla hainbat haur eta oinarritzko eguneroko komunikazioan hutsuneak dituztela, pentsatzekoa da Lehen Hezkuntzan ere errutina planifikatuaren proposamena

emankorra izan daitekeela. Gainera, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako iraganbidea ere erraztu lezake jarduteko modu horrek.

Gorago aipatutako guztia aintzat hartuta, Lehen Hezkuntzarako errutinek eskakizun dute testu-generoen baitako ikas-objektuak eta progresioa planifikatzea eta ikaskuntza aldamiatzeko estrategiak diseinatzea. Hori guztia modu dinamiko eta ludikoan, ikasleen Garapen Zonalde Hurbilean kokatuko diren erronka linguistiko lorgarriekin.

Metodologia horren bidez, egunero modu sistematikoan eta hogeita bost bat minutuz elkarrekin ahoz komunikatzeko espazioa sortuko da, helburu hauekin: batetik, gaitasun sortzailea bultzatzea, oinarritzko hizkuntza formak ezagutuz erabilera errealean ekoizteko; bestetik, hizkuntzarekin gozatzea eta euskararekiko atxikimendua handitzea, kultura baliatuz hiztun aktiboak sortzeko (Alonso & Bidegain, 2023; Pérez et al., 2021; Sarasua, 2013). Hizkuntzak ez baitira komunikazio-tresna isolatuak; euskaldun eleaniztunak sortzeko, hizkuntzaz gain, euskal gizarteko eta kulturako adierazpenak barneratu behar dituzte ikasleek.

4.1. Hizkuntza-errutinen aurrekariak

Hizkuntza-errutinen kontzeptuan eta izaeran sakontzeko lehen eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren teorietatik eratoritzen diren hainbat aurrekari aipatuko ditugu eta horietatik bigarren hizkuntzan komunikazio-gaitasuna garatzeko zein ildo eta printzipio metodologikotan hartu dugun oinarri zehaztuko dugu.

Jerome Bruner psikologo kognitibistak garatu zuen sostengu egituraren ideia vygostkiarra, eta hortik eratorrita *formatuen* kontzeptua, artikulu honetan hizpide izango dugun errutinaren metodologiaren oinarrietako bat bihurtu dena. Brunerren ustetan (1986), hizkuntzaz jabetzeko daukagun berezko mekanismoak (LAD) ez luke funtzionatuko inguruan ez balu sostengu egitura sozial bat, helduek prestatutakoa eta gidatutakoa, hizkuntzaren jabekuntzari testuinguru komunikatiboa emateko (Jauregi, 2020). Hain zuzen ere, egitura sozial horri Hizkuntzaz Jabetzeko Mekanismoaren Sostengu Sistema (ingelesez LASS, *Language Acquisition Support System*) deitu zion.

Brunerrekin lehenengo hizkuntzaren jabekuntzari erreferentzia egin arren, zenbait adituk sistema horren azterketan sakondu dute bigarren edota hirugarren hizkuntzaren jabekuntzaren gaiari heldu diotenean. Blancoren esanetan (2007), hizkuntza berri bat ikasten dugun bakoitzean, gure ama-hizkuntza ikasi genuenean erabilitako ikaskuntza-ereduei jarraituz ikasten dugu; alde horretatik, Hizkuntzaz Jabetzeko Mekanismoaren Sostengu Sistemak ahalbidetzen digu bigarren hizkuntzara iristea aurretik dugun esperientzia baliatuz (Blanco, 2007). Hortaz, lehen hizkuntzaren jabekuntzak eragina du bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan (Ruiz Bikandi, 1990):

Argi dago bigarren [hizkuntza]-ri aurre egin behar dion unerako, haurrak ezagutza zabala duela ezezagunak zaizkion egoeren inguruan, bete ditzakeen funtzio linguistikoak eta funtsean bere munduan esku hartzea ahalbidetzen dioten ezagutza kulturalen inguruan (Ruiz Bikandi, 1990, 61. or. [artikulugileek itzulita]).

Hizkuntzez jabetzeko sistema horren osagai nagusia formatua da. Formatu bat da heldu baten eta haur baten arteko elkarrekintza estandarizatua, mikrokosmos bat (Bruner, 1986). Mikrokosmos hori arauak definitzen dute, eta gutxienez bi parte-hartzaileen arteko elkarrekintza kontingentea adierazten du. Formatua hizkuntza eta bere kultura transmititzeko tresna da (Bruner, 1986).

Formatuak denborarekin garatu egiten dira eta behar bezain konplexuak eta askotarikoak izan daitezke. Garapen edo hazkunde hori modu sistematikoan egiten da. Formatuak, maiz, izaera alaia eta jostaria du (Bruner, 1984, 1986) eta aldi berean, irakaskuntzarako eta hizkuntza erabiltzeko aukerak sortzeko iturri oparoa da. Helduak eredu, antolatzaile eta monitore gisa balio du (Bruner, 1984), harik eta haurrak bere kabuz egiteko behar diren prozedurak garatu arte. Helduak azken xedea sostengatzen laguntzen dio haurrari, eta horretarako beharrezkoa duen lexiko zehatza eta gramatikazko egitura jakin batzuk eskaintzen dizkio. Guztiaren gainetik, haurrari bere asmoak hizkuntza-baliabideekin lotzen laguntzen dio, helburu horiek erdiesteko (Bruner, 1984).

Brunerren formatuaren kontzeptua bera gela barruko errutinekin lotu zuen Zaballak ere (2018, 27. or.) eta tresna eraginkor gisa definitu zuen euskara H2 dutenentzat: «eskolako errutinen funtzio komunikatiboa horixe baita, hain zuzen: egoera errepikatuen bitartez hizkuntza molde jakinak barneratzen laguntzea, eta aldian-aldian, egoerak eraldatuz hizkuntza molde gero eta konplexuagoak barneratzen eta haiek ekoizten laguntzea».

Bestalde, Ruiz Bikandik (2010) ere formatuen kontzeptua berrartu eta bi mota hauek ekarri zituen: arreta bateratuko formatuak (helduak eta haurrak gauza bat behatu eta hartaz jarduten dute; esaterako, irudidun liburuak irakurritik) eta ekintza bateratuko formatuak (jarraibide jakin batzuen arabera jarduteko jolastxoak; esaterako, kuku jolasa, hartu eta eman jolasa eta abar).

Ildo horretatik, Krashenek (1981) azpimarratzen du afektibitatea eta inputen kalitatea eta kantitatea ezinbestekoak direla bigarren hizkuntzaren jabetzaren prozesuetan. Era berean, oinarritzko lau hatsarre metodologiko proposatzen ditu Wellsek (1988): 1) haurrak esan nahi duenari erabateko arreta eskaini; 2) haurrak esan nahi duena ulertzeko ahal den guztia egin; 3) haurrak adierazitakoa ondoren esango denaren oinarri bihurtu; 4) mezua hautatu eta kodetzeko garaian, haurraren ulermen gaitasuna aintzat hartu behar da, haurraren gaitasunari egokitutako interpretazioa. Hatsarre horiek beste hainbat jarraibide metodologikorekin osatu eta zehaztu zituen Ruiz Bikandik (1990), bigarren hizkuntzaren irakaskuntzarako beharrezkoak zirelakoan. Funtsean, Ruiz Bikandiren (1990) ustez, haurraren etxeko hizkuntza balioan jarri behar da eta ikasleentzat ikasgelan atmosfera egokia, askotariko testuinguruak (bakarkako zein talde txikietako harremanak ahalbidetzeko modukoak), eta haurraren hizkuntzaren garapen-erritmoari arreta jartzea ere funtsezkoa izango da. Horrekin batera, irakasle eta ikaslearen arteko harremanari kalitatezko denbora eskaini behar zaio eta oinarritzko komunikazio-estrategiak baliatu behar ditu irakasleak, bigarren hizkuntza horretako mezuak ikasleek uler ditzaten bermatzeko; esate baterako, testuingururik

gabeko errepikapenak saihestu; baliabide linguistiko aski eskaini haurrak hipotesiak eraiki ditzan; birformulazioak, parafrasiak... erabili, mezuaren ulermena bermatzeko; irakaslearen inputak garbiak, adierazkorrak eta ez-hitzezko baliabideez lagunduak izan daitezela zaindu; erroreak baimendu eta horiek jaso, hizkuntza-ezagutzaren eta prozesuaren adierazle gisa. Horrez gain, irakasleen ardura izan ohi den errorearen zuzenketari dagokionez, askotariko zuzenketak erabili behar lituzke irakasleak, ikasle bakoitzaren beharrei eta erritmoei egokituta.

4.2. Berba-lapiko egitasmoan sortutako hizkuntza-errutinen izaera

Goian esandako aurrekariak aintzat hartuta, sortu diren hizkuntza-errutinek izaera hibridoa dute, eta hibridotasun hori hizkuntzaren jabekuntzatik nahiz hizkuntzaren ikaskuntzaren printzipioetatik dator (ikus atal honen amaierako sintesi-taula); hori da, hain zuzen ere, metodologia berritu honen ekarpen nagusia. Batetik, hizkuntza-errutinen zutabe izan dira hizkuntzak ikasteko garaian sekuentzia didaktikoei eskaintzen duten sistematizazioa, hizkuntza-erronken mailaketa, aldamiatzea, testu-generoaren berariazko lanketa eta eruditik abiatuta azken xedera begirako prozesuak. Bestetik, errutinek funtsean duten espazio-antolaketa (topagunea), antolaketaren sistematizazioa, jarduerak berak eskaintzen duen ziurtasuna eta dinamikaren ezagutza eta errepikapenaren bitartez finkatzen joateko prozesua. Azken batean, haurrari zer egin behar duen jakiteak larritasuna gutxitu egiten dio eta, beraz, hizkuntza-errutinak helduleku eta sostengu batzuk eskaintzen dizkio komunikazioan lehen urratsak emateko eta esan nahi duen hori esateko.

Gure metodologiaren hibridotasunean, bestalde, elementu berriak ere txertatu dira, bai ikasleen hizkuntza-irakaskuntzarako beharrezkoak diren elementuak, bai eta irakaslearentzat ere prozesua aldamiatzeko eta konplexutzeko bitartekoak. Lehenengoei dagokionez, oinarritzko komunikaziorako baliabideak, estrategiak eta horiek finkatzeko denboran zehar luzatzen diren testuinguruak eskaintzen zaizkio ikasleari. Aldi berean, aldamiatzeko estrategiak ere eskaintzen dira irakaslearentzat, une bakoitzean, hizkuntzaren ikaskuntzan, zein egituratan arreta jarri jakin dezan, hizkuntza-objektuak mailakatu eta garatzeko ikuspegia eta baliabideak fintzen joan dadin.

Errutinek egoera komunikatibo ahalik eta errealean eta hurbilekoenak eraikitzen dituzte, ikasleei eskatuko dietenak oinarritzko hizkuntza-formak ezagutzea eta baliatzea. Hizkuntza-errutinak Lehen Hezkuntzako lehen mailatik laugarren mailaraino esperimentatzeko sortu dira oraingoz, eta maila bakoitzean 8 astez modu sistematikoan lantzeko proposatu dira, egunean 25 minutuko tarteak eskainiz (laburtasunak eta trinkotasunak ere lagundu dezaketelakoan) eta saioak errutinaren gaiarekin zerikusia duen herri-literaturako kanta batekin hasiko dira beti, errutinaren unea eta gaia iragartzeko. Ikerketek erakusten dute, bestalde, eskolan konfiantzazko giroak bizikidetzan nahiz hobekuntza akademikoa sustatzen duela (Rodríguez Buitrago & Sandoval-Estupiñán, 2022). Hori dela eta, hizkuntza-errutinetan kontuan izan ditugu irakasle-ikasle arteko hurbiltasun-harremana eraikitzeko emankorrak diren elkarrekintzak, oinarritzko komunikazioa garatzeko testuinguru segurua eskaini dezaten.

Errutinen ohiko metodologia errepikapenenean oinarritzen bada, honek garapena du ardatz: errepikatu eta beste urrats bat erantsi. Proiektu honetan diseinatutako errutinak hizkuntza-objektuen arabera mugarriak izango ditu, ikasleei hizkuntza-erronkak finkatu, konplexuagotu, aberastu eta neurriko erronkak proposatzeko.

Errutinen diseinuan, bestalde, herri-literaturari protagonismoa eman diogu ahozko testu-genero berezituekin, ikasleek ahozko ereduak aberasteko aukera izan dezaten modu ludiko eta errazean. Batzuetan, errutinaren gaiarekin lotutako material osagarri gisa eskaini dira aho-korapilo, ipuin, abesti, ikus-entzunezko, pasadizo eta ateraldiak. Beste batzuetan, berriz, herri-literaturaren berariazko lanketa bermatu da hizkuntza-errutinan bertan; esaterako, Pernando Amezketarraren pasarteak irakurri, ikusi eta entzun dituzte gero ahoz kontatzeko edota tradiziozko euskal jolasak aito-na-amonengandik jaso dituzte eta ikaskideei azaldu dizkiete elkarrekin jolastu ahal izateko.

Sintesi modura, hizkuntza-errutinen izaera eta oinarriak biltzen ditu 1. taulak.

1. taula. Hizkuntza-errutinetan erabilitako ingeniaritza didaktikoaren sintesia

Errutinak	Antolaketaren sistematizazioa: • errutina gidatzen duen musika • espazioaren giro ludiko eta konfiantzazkoa • testuinguru auresangarriak • eguneroko ekintzen inguruko mintzagaiak • dinamikaren ezagutza eta errepikapena • espazio-antolaketa topagunean • denboralizazioa (laburtasuna eta trinkotasuna, 20-25 min.)
Sekuentzia didaktikoa	Ahozko hizkuntzaren lanketaren sistematizazioa: • testuinguru komunikatibo ahalik eta gertukoena • testu-generoaren berariazko lanketa urratsez urrats eredutik abiatuta • azken xedera begirako prozesua (aurretestu/ondotestu)
Hibridazioan txertatutako elementu berriak (hizkuntza-errutinetako materialean berariaz adierazi direnak)	Ikaslearen gaitasun sortzaileetan arreta jarri beharra hiztun aktiboak lortzeko: • dinamikaren errepikapena (hizkuntza-egiturak finkatzeko) eta garapena (hizkuntza-egiturak konplexutzeko). • Azpigaika egoera komunikatibo berria aurkeztu testu-genero beraren lanketaren baitan • konfiantzazko giroa, afektibitatea, gertutasuna bilatzen duen berariazko espazioa sortu • iraupen zehatza bermatu: astean lautan, 8 astez segidan • ikasleen berbaldiei kalitatezko denbora eskaini: banakako ikasleen ekoizpenei denbora eskaini eta ostean irakasle-ikasle arteko elkarrekintza bideratu • ikasleak adierazitakoa ondoren esango denaren oinarri bihurtu • irakaslearen esku-hartzea diseinatuta egunez egun: prozesua aldamiatzeko estrategiak eta irizpideak eskaini. • hizkuntzarekin jolastea eta gozatzea metodologia honen erdigunean jarri: ikasleak jolas gisa barnerratu modu naturalean oinarritzko komunikazio-formak Ikaslearen gaitasun hartzzaileetan arreta jarri ulermen gaitasuna garatzeko: • ikasleen berbaldiei kalitatezko debora eskaini: banakako ikasleen ekoizpenei denbora eskaini eta ostean irakasle-ikasle arteko elkarrekintza bideratu • ulermen gaitasunetik abiatu haurren gaitasunari lotutako interpretazioak eskaintzeko • kalitatezko inputak eskaini (irakasleak zehaztuta ditu eman beharreko inputak)

5. IKERKETARAKO METODOLOGIA ETA CORPUSA

Hizkuntza-errutinen materiala artikulu honen egileek diseinatu dute, eta ikaste-txeetan aurretik hainbat saio eskaini zaizkie irakasleei materiala nola erabili behar duten uler dezaten: espazioa nola eraiki; ikasleekin zein elkarrekintza-mota sustatu; une bakoitzean zuzenketek zein helburu izan behar duten, eta, beraz, nola zuzendu eta abar.

Kontuan hartuta ikasgelako ohiko errutinak oso testuinguru auresangarriak direla (Ruiz Bikandi, 2010), hizkuntza-errutinak hiru azpigaitan antolatu dira, eta azpigai bakoitzak egoera komunikatibo berri bat eskaintzen die ikasleei. Lehenbizikoan, eredu ematek abiatzen da: egoera komunikatiborako sarbidea egiten da; irakasleak ikasleei eskatuko zaizen azken xedearen eredu bat ematen die eta eredutik irakasgai diren alderdiak identifikatu eta pausoz pauso landu eta erabiltzeko testuinguruak sortzen dira. Horrez gain, aurretetuek jasotzeko baliatzen da. Hasiera batean, testu-generoaren hezurdura eta irakasgai diren hizkuntza-formarik sinpleenak lantzen dira modu ludikoan eta jabetuan (ikus 2. taulan lehen azpigaia nola antolatuta dagoen). Bigarren azpigaian, herri-kulturarekiko hurbilpena egiten da eta, aldi berean, modu mailakatuan (erronka linguistikoak handituz) irakasgai diren hizkuntza-formetan sakontzen da. Bigarren horretan, idatzizko euskarriek zein ikus-entzunezkoek ere aurreko azpigaian baino presentzia handiagoa dute. Hirugarren azpigaian, azkenik, hasierako azpigiaren antzeko egoera komunikatiboa proposatzen da eta ondoretuek jasotzen dira, ikasleen garapen-aztarnak identifikatzeko. Identifikazio horretarako, hasierako eta amaierako azpigaian grabazioak egiten dira, ausaz hautatutako ikasle batzuekin, irakasleen zein ikasleen legezko baimenak eskuratu ostean. Ondoren, artikulu honen egileek saio guztiak transkribatu eta aztertu dituzte, ikasleen garapen-aztarnak identifikatzeko.

Irakasleari eskaintzen zaion materialari dagokionez, saioetako jardueretan bi zutabe egon ohi dira: jarduera bera (eta jardueren arteko progresibotasuna), eta jarduera hori didaktifikatzeko irakasleari eskaintzen zaizkion gakoak. Gako horiek aparteko fitxetan bilduta daude (ikus 2. taula). Elkarrekin egingo den ibilbidea ahozkoaren garapenean aurretik diseinatuta eta irakasleentzako materialean zehaztuta dago xehe-xehe, era horretan, erronka linguistikoak identifikatzeko eta aldarmiatze-lanak egiteko baliatuko du irakasleak. Aldarmiatze horrek honako funtzioak betetzen ditu, egoeraren arabera: a) instituzionalizazioa edo finkatze-lana; b) zuzenketak eta birformulazio-estrategiak; c) diskurtsoa luzatzeko estrategiak; d) gaztelaniazko moldeak euskaraz emateko estrategiak; e) erabili ahala, gogoeta metalinguistikoa sustatzeko estrategiak.

2. taula. Hizkuntza-errutinaren metodologia azaltzen duen taula

1. azpigaia: elkarri txikitako bihurrikeriak kontatuko dizkiogu (zurea edo inguruko batena)		
Saioa	Ekintza	Hizkuntzaren arretaguneak
1	• Errutina girotu (kuxinak eta musika, hemendik aurrera egunero) eta dinamika aurkeztu • Irakasleak eredu eman • Ereduaren hezurdura atera + kontsigna	• Txokoari zentzua eman, konfiantza-giroa sortu • Irakaslearen ereduari ziurtatu letra lodiz daudenak adieraziko direla • Hezurdura: <i>noiz, norekin, non, zer, ondorioa</i>
2	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu + grabatu (aurretestua) • Ekoizpenean esku-hartuko da (C fitxa)	• Ondorengo alderdietan esku-hartuko da: <i>noiz, norekin, non, zer, ondorioa</i> (C fitxa)
3	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu + grabatu (aurretestua) • Ekoizpenean esku-hartuko da (C fitxa) • Material osagarria erabili (C1 fitxa)	• Ondorengo alderdietan esku-hartuko da: <i>noiz, norekin, non, zer, ondorioa</i> (C fitxa) • Eredu berriak eskainiko zaizkie (C1 fitxa)
4	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu • Ipuin bat entzun eta zenbait hitzei arreta jarri + familiaren hiztegia lantzen hasi (D fitxa) • Kontsigna eman hurrengo taldeari	• Familiako lexikoarekin loturiko hitzei arreta eskainiko zaie (D fitxa)
5	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu • Familiako hiztegia landu, jolasa (E fitxa) • Kontsigna eman hurrengo taldeari + etxerako lanak	• Familiarekin loturiko lexikoa landu (E fitxa)
6	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu • Ekoizpenaren araberrako esku-hartzeak egin	• Ekoizpenak oinarri hartuta egin lanketa: landutakoak indartu, berrekarri...
7	• Ikasle-talde batek bihurrikeria kontatu • Deklinabide-markak landu galdera bihurrien bitartez (F fitxa)	• <i>norekin, nori, noiz, non...</i> deklinabideak eta bihurrikeriak lotu (F fitxa)

5.1. Aztergai den corpusa

Azttertuko ziren ikastetxeak hautatzean, bigarren gune soziolinguistikoko (Eusko Jaurlaritza, 2020) ikastetxeak izatea hobetsi zen Eusko Jaurlaritzaren eskariz. Hori dela eta, herri-mailan euskaldun osoak herena edo gutxiago ziren herriak hautatzea izan zen lehenbiziko pausoa. Guk beste ezaugarri hauek gehitu genizkion eskolek izan beharreko ezaugarri horri: 1) D eredu edukitzea, 2) Lehen Hezkuntzako irakasleek parte hartzeko borondatea izatea, 3) gutxienez bi lerroko ikastetxeak izatea, 4) ikastetxeak proiektuan inplikatzeko aukera eta prestutasuna izatea.

Ezaugarri horiek guztiak aintzat hartuta, aztergai dugun ikastetxeak honako ezaugarri hauek ditu: bigarren gune soziolinguistikoan dagoen bi lerroko ikastetxe bat da, Bizkaian dagoena, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako bi ikastaldetan gauzatu da hizkuntza-errutina. Gelaratutako hizkuntza-errutinak kontaketa testu-generoa izango du oinarri. Aurretestuko egoera komunikatiboak, haurtzaroan egindako bihurrikeriak kontatzerako darama ikaslea eta ondorengoekin, bihurrikeria horiek udako

pasadizoekin gehiago uztartzen dira. Ikasgela bakoitzeko 14 ikasleren aurretestuak (errutinen lanketa egin aurretiko gelaratzeak) eta ondotestuak (errutinak landu ondorengoak) grabatu dira, eta horietatik 11 ikasleren ekoizpenak aztertu dira (Atik Kra, hurrenez hurren); guztira, 22 ekoizpen.

5.2. Ahozko garapen-aztarnen analisirako kategoriak

Bigarren hizkuntzaren ikaskuntza eta jabekuntzaren esparruan hainbat ikertzailek (Housen et al., 2012; Housen & Kuiken, 2009; Larsen-Freman, 2006, 2009; Wolfe-Quintero et al., 1998 apud Mavrou, 2016) azpimarratu dute aurre egin beharreko erronka nagusia ikasleek egindako garapena modu objektiboan aztertu eta ebaluatzeko indizea edo ebaluazio-irizpideak eraikitzea dela.

Ebaluatzeko garapen-indize horrek aukera eskainiko du, besteak beste, ikasleak hizkuntza-mailaren arabera bereizteko, ikerketa ugaritatik ateratzen diren datuak konparatzeko edo konparagarri bihurtzeko eta etxekoa ez den hizkuntza batean ikaskuntza- eta jabekuntza-prozesuetan eragiten duten faktoreak aztertzeko.

Hainbat autoreren ekarpenak aintzat hartuz (ikus Larsen-Freeman, 2009), *konplexutasun sintaktikoa eta lexikoa*, *zuzentasuna* (*zehaztasun linguistikoa* gisa izendatzen dutena) eta *jarioa* bihurtu dira H2n ikasten duten ikasleen hizkuntza-kompetentzia eta ekoizpena ebaluatzeko funtsezko irizpide (Arias-Hermoso & Imaz, 2023; Housen & Kuiken, 2009; Mavrou, 2016).

Artikulu honetan ere hizkuntza-errutinei esker jaso ditugun ikasleen ahozko ekoizpenak ebaluatzeko eta aurretestuetatik ondotestuetara dagoen aldea aztertzeko, kontzeptu horiek aintzat hartuko ditugu.

Hainbat adituren arabera (Bulté & Housen, 2012; Housen & Kuiken, 2009; Palloti, 2009), *konplexutasunaren* kontzeptua da osagairik anbiguoena eta problematikoa (Mavrou, 2016 lanean aipatua), dimentsio anitzeko kontzeptua izanik, definizio bakarra edo bateratua sortzeko zailtasunak daude. Hiru osagai behintzat bilduko lituzke: 1) proposizio mailako konplexutasuna, informazio-unitate eta ideien kantitatearekin loturan; 2) konplexutasun diskurtsiboa eta interakziozkoa, diskurtso dialogikoan hitz-txanden kopuruarekin loturan; eta 3) hizkuntza-konplexutasuna.

Guk, analisisian, hizkuntza-mailako konplexutasunari erreparatuko diogu eta, zehazki, ikasleak irakaslearekin gauzatzen duen interakzio horretan, ikasleen bakar-kako ekoizpenari; hau da, ikasleak bere kabuz, irakasleen galderen laguntzarik gabe, ekoizten duen diskurtsoa izango dugu aintzat.

5.2.1. Hizkuntza-konplexutasuna

Hizkuntza-konplexutasunaren baitan, konplexutasun sintaktikoa eta konplexutasun lexikoa bereizi dira (Mavrou, 2016).

Konplexutasun sintaktikoa aurpegi anitzekoa da eta ikasleak ekoizteko garaian (ahoz zein idatziz) askotariko forma eta egitura sintaktikoak (oinarrizkoak zein sofistikatuak) erabiltzeko duen trebetasun gisa definitzen da (Mavrou, 2016; Ortega, 2003; Wolfe-Quintero et al., 1998). Aldi berean, hizkuntza-dimentsio hori enuntziatu berriak sortzeko ikasleek hartzen duten arriskuekin ere lotzen da (Skehan & Foster, 2001), eta gure aztergaiari begira funtsezko alderditzat jotzen dugu, errutinen bidez sortzen dugun konfiantzazko espazioan gaitasun sortzailea bultzatu nahi baita eta, horretarako, akats egiteko lizentzia hartzea ere funtsezkoa baita. Hizkuntza-konplexutasuna maila ezberdinetan gauzatzen da (Mavrou, 2016), eta kuantifikatzeko adierazle ezberdinak baliatu ohi dira (ikus Mavrou, 2016).

Konstruktuaeren ebaluazioan erabilitako adierazleei dagokienez, bi kategoria zabal identifika daitezke: unitateen batez besteko luzera-neurriak [...] eta menderakuntza-dentsitatea ebaluatzen duten neurriak (Mavrou, 2016, 52.-53. or. [artikulugileek itzulita]).

Konplexutasun sintaktikoaren baitan honako adierazle hauek hautatu ditugu:

- Diskurtsoaren luzera (ekoizpenen hitz-kopuruak).
- Esaldi bakun eta konposatuen kopurua. Bertan, aditz jokatu eta jokatu gabeei esker gauzatzen den ere kontuan hartuko da.
- Mendeko esaldiak, eta mendeko esaldi-motak.

Hizkuntzaren konplexutasunari dagokion kategoria horrek, iritzi ezberdinak ekarri ditu. Ikerketa batzuetan, luzera hizkuntza-konplexutasunaren adierazle da (Kormos, 2011; Sotillo, 2000); beste ikerketa batzuetan, berriz, jarioaren adierazle (Wolfe-Quintero et al., 1998).

Konplexutasun lexikoaren aberastasuna neurtzea ez da erraza, eta azterketa horretan hiru alderdi hartu ohi dira aintzat (Bulté & Housen, 2012; Mavrou, 2016; Wolfe-Quintero et al., 1998): 1) aniztasuna edo askotarikoa izatea, 2) lexikoaren sofistikazio-maila, hau da, oinarrizkoa edo aurreratua den eta 3) lexiko-dentsitatea; ikasleek erabiltzen duten hiztegiaren kantitateari eta aniztasunari erreparatu ohi zaio. Guk analisisian ikasleek erabiltzen dituzten aditz-ekintzetan dagoen aniztasunari eta kantitateari erreparatuko diegu bereziki, bihurrikeriak zein udako pasadizoak kontatzeko garaian, funtsezkoak baitira. Horiekin batera hizkuntza-errutinetan berariaz landutako familia edo sendiaren eremu semantikoari ere arreta jarriko zaio. Izan ere, bi alderdi horiek errutinetan langai izan dira eta hizkuntza-errutinen metodologiak ere zertan lagundu duen aztertzeke lagungarri dira.

Zuzentasuna edo zehaztasun linguistikoaren kategorian, bereziki zuzentasun gramatikalean jarri ohi da arreta.

5.2.2. *Jarioa*

Jarioa kontzeptua definitzerakoan alderdi kuantitatiboak zein kualitatiboak hartu ohi dira kontuan.

Jario terminoa, oro har, hizkuntza oso ondo menderatzearen sinonimo gisa erabili izan da, eta abiadurarekin, adierazgarritasunarekin eta hizkuntza ekoizteko erraztasunarekin lotu izan da (Mavrou, 2016, 60. or. [artikulugileek itzulita]).

Guk analisisian *jarioa* bi alderdi kontuan hartuz aztertu dugu: batetik, etenak, isiltasunak eta makuluak izango ditugu aintzat, baina baita diskurtsoa eraikitzekeko estrategiak ere; hau da, diskurtsoa zehazteko, adibidetzeko eta birformulatzeko erabiltzen diren estrategiak. Horiek funtsezko bitarteko dira ematen den informazioaren edukia egoera komunikatiboari eta hartzaileei egokitzeke eta doitzeko.

Horrenbestez, ikasleen ekoizpenetan aurretestuetatik ondotestuetara dagoen aldea aztertzeko, hizkuntza konplexutasunaren dimentsioaren baitako konplexutasun sintaktikoa, lexikoa eta zuzentasuna eta *jarioaren* dimentsioa aintzat hartuko ditugu, hizkuntza-formari dagokionez aski informazio esanguratsua eman baitezakete eta, autoreen arabera, ekoizpenak ebaluatzeko neurgarriak baitira.

6. EMAITZEN ANALISIA

Atal honetan, ikasleek aurretestutik ondotestura izan dituzten garapen-aztarnak azalertzeko erabili dugun kategoria-sistema deskribatuko dugu lehenbizi. Segidan, kategoria horien arabera analiza ekarriko dugu.

6.1. Analisia eta emaitzak: ikasleen garapena aztertzeko kategoria-sistema

Ikasleen ekoizpenetan aurretestuetatik ondotestuetara dagoen aldea aztertzeko, metodologiaren atalean zehaztu bezala, hizkuntza-konplexutasuna dimentsioaren baitako *konplexutasun sintaktikoa*, *lexikoa* eta *zuzentasuna* kategoriak aztertuko dira eta, horiekin batera, *jarioaren* dimentsioa ere aintzat hartuko da. Alabaina, analiza ahalik eta osatuena izan dadin, helburu komunikatiboari egokitutako testu-generoaren hezurdura edo makroegituraren dimentsioari ere erreparatzea egoki iritzi diogu. Azken batean, ikasleen ekoizpenetan informazio-edukia nola antolatu den (testu-generoari dagokion hezurdura kontuan izan den ala ez) eta horretarako erabili dituen antolatzaileetan jarriko dugu arreta.

Hori guztia kontuan izanik, corpusaren analisirako honako kategoria-sistema sortu dugu.

3. taula. Corpusaren analisirako kategoria-sistema

Dimentsioak	Kategoria	Adierazleak
1. Makroegitura	1.1. Kontaketaren egitura	–Informazio-multzoak: –Noiz gertatu zen –Norekin gertatu zen –Non gertatu zen –Zer gertatu zen –Ondoriorik izan ote zuen
	1.2. Antolatzaileak	<i>eta, -(e)la, (e)lako, -(e)nean...</i>
2. Hizkuntza-konplexutasuna	2.1. Konplexutasun sintaktikoa	–Diskurtsoaren luzera edo ekoizpenen hitz-kopurua –Esaldi bakunen eta konposatuen kopurua –Menpeko perpaus-motak eta kopurua
	2.2. Konplexutasun lexikoa	–Ekintza-aditzen aniztasuna eta kantitatea
	2.3. Hizkuntza-zuzentasuna (hizkuntza-zehaztasuna)	–Deklinabidearen erabilera –Aditzaren forma, aditz-denbora eta erabilera –Sintaxi mailako akatsak
3. Jarioa	3.1. Isiltasuna, makuluak, etenak	–Isiltasuna eta etenak (luzera eta kopurua) –Makuluak: <i>osea, eee...</i>
	3.2. Diskurtsoa egituratzeko estrategiak	–Birformulazioak, adibidetzeak, zehaztapenak, berrartzeak...

Lehenik, goiko dimentsio, kategoria eta adierazleak aintzat hartuz, bereziki hizkuntza-konplexutasunari lotutako datu kuantitatiboak ekarriko dira analisi kualitatiboaren osagarri gisara; makroegiturari eta jarioari dagokion dimentsioa, berriz, kualitativoki bakarrik aztertuko da.


Hona hemen hizkuntza-konplexutasunaren baitako zuzentasunari lotutako datu kuantitatibo batzuk.

4. taula. Konplexutasun sintaktikoa: ekoizpenen hitz-kopurua

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-indizea
A	35	90	2,6
B	34	94	2,8
C	16	30	1,9
D	23	59	2,6
E	52	115	2,2
F	35	227	6,5
G	66	138	2,1
H	29	65	2,2
I	67	61	0,9
J	73	167	2,3
K	6*	80	13,3
Batez beste	436	1126	3,6

*K ikaslearen kasuan aurretestuan ez da diskurtso monologalik sortu. Erabaki da ikasleak modu monologalean ekoiztu duen perpausik luzeena hartzea.
Azalpena: Hazkunde-indizeak adierazten du ikasleak ondotestuan ekoiztu duen hitz-kopurua zenbat handitu edo txikitu den aurretestuarekiko.

Ikasleen ondotestuko hitz-kopurua aurretetuko hitz-kopuruarekin alderatuz ugaritu egin da; 3,5 aldiz gehiago ekoiztu dute ikasleek. Zehatz esateko, zazpi ikaslek aurretetutik ondotestura bikoiztu egin dute ekoizpena eta bada seikoiztu duenik ere. K ikaslearen kasuan aurretetuetan ez da diskurtso monologalik egin (galde-erantzun formatua izan da) eta aurretetuetan sei hitz ekoiztetik 80 hitz ekoiztera pasatu da.



1. irudia. Konplexutasun sintaktikoa: esaldi bakunen eta konposatuen kopurua eta menpeko perpausen kopurua eta motak.

Perpaus moten sailkapena egiteko eta datuak kuantifikatzeko, hiru maila bereizi ditugu konplexutasunaren arabera¹:

- PM1 Perpaus bakuna.
- PM2 Perpaus elkartua lokailu bidez.
- PM3 Menpeko perpausa.

Goiko grafikoak erakusten duen bezala, aurretetuetatik ondotestura perpausen konplexutasuna handitu egin da. Lokailu bidez (PM2) elkartutakoak aurretetuan 33 ditugu eta ondotestuan, berriz, 106. Bestalde, 7 menpeko perpaus daude aurretetuan eta ondotestuan 23 menpeko perpaus ekoiztu dituzte ikasleek. Era berean, ondotes-tuan bi ikaslek (I eta F ikasleak) menpeko perpausetan ere bi motatako edo gehiagoko menpeko perpausak egin dituzte. Horren erakusgarri I ikaslearen adibidea dakargu,

1 Azterketarako oharra:
• Amaitu gabeko esaldiak ez dira «ekoiztutako perpaus» moduan zenbatu.
• Perpausa sortzerakoan akatsa egon bada ere, «ekoiztutako perpaus» moduan zenbatu da.

ondotestu gisara ekoiztu duena. Bertan ikus liteke aditz jokatuekin denborazkoa eta baldintzazkoa sortu dituela, aurretestuan, aitzitik, ez du menpekorik sortu.

1. adibidea (I ikaslea, ondotestua):

Hamabost hilabete neukan**nean** ikasi nuen ibiltzen eta hurrengo astean jausi jausi nintzen atzerantz [...] hanka ipintzen **banuen** lurrean negarrez ipintzen nuen.

F ikasleak, berriz, bere ondotestuan denborazkoa, kausazkoa eta ezezko esaldi konpletiboa sortu ditu:

2. adibidea (F ikaslea):

Pasa den urtean Benidorrra joan nintzen, kotxez joan nintzen, nire aita, neba eta ama-
rekin eta hotelera helt**zean**, e neska bat etorri zen niregana ingelesez esaten [...] eta ni
geratu nion horrela **ze** nengoen kotxe batekin horrela (keinuak) eta ze **ez nekien zer**
egiten ari nintzen eta egun batean.

Halaber, grafikoak erakusten duen moduan, perpaus bakunen kopurua ere handitu egin da eta bereziki *eta* lokailuari (PM2) esker jositako perpaus elkartuetan. Aurretes-
tuan 24 izatetik 86 ekoiztera pasa dira. Hirugarren adibidea horren lekuko:

3. adibidea (G ikaslea):

Lehenengo egunean, ailegatzean lagun bat egin nuen **eta gero** haserretu ginen. Bera zen
frantsesa **eta** ni nintzen gaztelaniazkoa **eta eta** bera hitz egiten genuen ingelesez **eta** eem
egun batean ez dakit zer esan zidan ingelesez edo frantsesez edo ez dakit ze idiomatan,
esan zidan gauza bat horrela **eta gero** nik esan nion gaztelaniaz **eta gero** egin zidan [...]

5. taula. Konplexutasun lexikoa: ekintza-aditzen barietatea eta kantitatea

Ikaslea	Aurretestua	Ondotestua	Hazkunde-indizea	Lexiko berria
A	3	7	2,3	4
B	4	9	2,3	7
C	3	8	2,7	3
D	2	5	2,5	3
E	4	9	2,3	6
F	4	20	5,0	8
G	8	19	2,4	5
H	4	7	1,8	5
I	4	7	1,8	4
J	4	15	3,8	13
K	1	7	7,0	7
Batez beste			3,1	5,9

Azalpena: Hazkunde-indizeak adierazten du ikasleak ondotestuan ekoiztu duen lexikoa zenbat handitu edo txikitu den aurre-
testuarekiko.

Lexikoari dagokionez, ekintza-aditzak hartu dira kontuan eta taulak erakusten duen bezala, zazpi ikasleren ondotestuetan, aurretestuetako ekintza-aditza kopurua bikoiztu edo hirukoiztu egin da. F ikaslea 4tik 20ra pasatu da; beraz, boskoiztu egiten da ondotestuan agertzen den ekintza-aditzen kopurua. Jauzirik txikiena H eta I ikasleek egin dute (1,8 puntu).


Lexikoaren nolakotasunari dagokionez, batez beste 6 ekintza-aditz berri, alegia, ezberdin ekoitzi dituzte.

6. taula. Hizkuntza-zuzentasuna: deklinabidearen eta aditzaren erabilera²

Ikaslea	Aurretestua			Ondotestua		
	Akatsak	Hitz-kopurua	Akats-kopurua %	Akatsak	Hitz-kopurua	Akats-kopurua %
A	1	35	% 2,9	3	90	% 3,3
B	2	34	% 5,9	5	94	% 5,3
C	3	16	% 18,8	1	30	% 3,3
D	5	23	% 21,7	1	59	% 1,7
E	5	52	% 9,6	2	115	% 1,7
F	2	35	% 5,7	6	227	% 2,6
G	2	66	% 3,0	4	138	% 2,9
H	1	29	% 3,4	2	65	% 3,1
I	3	67	% 4,5	2	61	% 3,3
J	2	73	% 2,7	2	167	% 1,2
K	1	6	% 16,7	0	80	% 0,0
Batez beste			% 8,6			% 2,6

Hizkuntza-zuzentasunari dagokionez, akatsen kopurua aurretestutik ondotestura jaitsi egin da, % 8,6tik % 2,6ra, batez beste. F ikasleak, esaterako, aurretestuan 35 hitz egitetik 227rako jauzia egin arren, akats-kopurua ez da proportzio horretan handitu. Aurretestuan % 5,7 akats egitetik (2 akats) ondotestuan % 2,6 egitera pasa da (6 akats).

2 Azterketarako oharra: errepikatutako akatsak zenbatu egin dira, nahiz eta akats berdina izan.



2. irudia. Hizkuntza-zuzentasuna: akats-motak.

- A: Aditzean egindako akatsa.
- S: Sintaxiko akatsak.
- D: Deklinabidea.
- L: Lexikoa.

2. grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasleen ekoizpenetan deklinabideari, aditzari, sintaxiari eta lexikoari dagozkion akatsak identifikatu dira; eta, egindako akatsak nagusi bai aurretetuan, bai ondoretuan, aditzarekin loturikoak izan dira. Ondoretuan ergatiboarekin egindako akatsak tarteko, deklinabidean gora egin du akats-kopuruak.

Goian emaitza kuantitatiboak ikasle guztien ekoizpenak aintzat hartuz azaldu ditugun arren, ikasleen ekoizpenak ikuspegi kualitatibotik aztertzeko, lau ikaslerenak ekarri ditugu.

Makroegituraren dimentsioan, kontaktaren egiturari eta antolatzaileei dagokienez, bi ikasleren aurretetuek eta ondoretuek daude jarraian:

4. adibidea (E ikaslearen aurretetua)

Nik laugarren maila **bederatzi urtekin** nengoen **jantokiaren orduan patioan Jonekin eta Anerekin eta gero** jolasten e nik itxi behar nuela begiak eta beraiek caminu bat egin behar zuten niri, **eta** e eta asustatu behar zuten eta tropetaz eta tropezatu nuen **eta gero** Jon, ze Jon ez zen konturatu eta gero barkatu esan zidan.

5. adibidea (E ikaslearen ondotestua)

Ikerketa honek kontzientzia metalinguistikoaren lanketa hizkuntzen arteko ikuspegitik eta diziplinarteko proiektuetan txertatzeko saiakera bat aurkeztu du, hizkuntza gutxitua irakas-hizkuntza nagusia den hezkuntza testuinguru eleaniztunean. Kontzientzia metalinguistikoak berebiziko garrantzia du irakurtzeko gaitasuna eskuratzeko eta hobetzeko orduan (Gaspar, 2024; Ke et al., 2023; Leonet et al., 2024; Nagy et al., 2014) eta, beraz, beharrezkoa da ikerketa lerro honi jarraipena ematea, ikasle eleaniztunen garapen akademikoa erraztuko duten estrategia didaktikoa eta ikuspegi pedagogikoak garatzeko.

Ikerketa honek mugak izan ditu. Ikerketa-proiektuaren muga metodologikoak nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, emaitzen konparazioan eragina du kontrol-taldeak hezkuntza-zentro berekoa ez izateak. Bigarrenik, esku-hartzearen osteko probaren uneak, ikasturte-amaieran, ikasleen errendimenduan eragina izan zezakeen, nekea eta motibaziorik eza bezalako faktoreengatik. Ikerketa EAEko ikastetxe bakar batean bakarrik gauzatu da eta, beraz, emaitzak ezin dira lurralde osora orokortu, baina abiapuntu bat ezartzen du euskara irakas-hizkuntza nagusia den testuinguruetan HAOTen garapena aztertzeko. Etorkizuneko ikerketek testuinguru soziolinguistiko zein adin tarte desberdinak aintzat hartu beharko lituzke.

6. ERREFERENTZIAK

- Akbasli, S., Sahin, M. & Yaykiran, Z. (2016). The effect of reading comprehension on the performance in science and mathematics. *Journal of Education and Practice*, 7(16), 108-121.
- Arocena, E., Cenoz, J. & Gorter, D. (2015). Teachers' beliefs in multilingual education in the Basque country and in Friesland. *Journal of Immersion and Content-Based Language Education*, 3(2), 169-193. <https://doi.org/10.1075/jicb.3.2.01aro>
- Bailey, A.L. (2007a). Introduction: teaching and assessing students learning English in school. In A. Bailey (arg.), *The language demands of school: putting academic English to the test* (1.-26. or.). Yale University Press.
- Bailey, A.L. (2007b). *The language demands of school: putting academic English to the test*. Yale University Press.
- Bangert-Drowns, R.L., Hurley, M.M. & Wilkinson, B. (2004). The effects of school-based writing-to-learn interventions on academic achievement: A meta-analysis. *Review of Educational Research*, 74(1), 29-58. <https://doi.org/10.3102/00346543074001029>
- Barr, C.D., Uccelli, P. & Phillips Galloway, E. (2019). Specifying the academic language skills that support text understanding in the middle grades: the design and validation of the core academic language skills construct and instrument. *Language Learning*, 69(4), 978-1021. <https://doi.org/10.1111/lang.12365>

- Beacco, J.C., Fleming, M., Goullier, F., Thürmann, E. & Vollmer, H. (2016). *A handbook for curriculum development and teacher training: the language dimension in all subjects*. Council of Europe.
- Biber, D. (1986). Spoken and written textual dimensions in English: resolving the contradictory findings. *Language*, 62(2), 384-414. <https://doi.org/10.2307/414678>
- Biber, D. & Conrad, S. (2009). Register, genre and style. *Canadian Journal of Linguistics/Revue Canadienne de Linguistique*, 57(1), 164-166. <https://doi.org/10.1017/S0008413100002280>
- Blum-Kulka, S. & Snow, C.E. (2004). Introduction: The potential of peer talk. *Discourse studies*, 6(3), 291-306. <https://doi.org/10.1177/1461445604044290>
- Bunch, G.C. (2013). Pedagogical language knowledge: preparing mainstream teachers for English learners in the new standards era. *Review of Research in Education*, 37, 298-341. <https://doi.org/10.3102/0091732X12461772>
- Cenoz, J. (2003). The additive effect of bilingualism on third language acquisition: a review. *International Journal of Bilingualism*, 7(1), 71-88. <https://doi.org/10.1177/13670069030070010501>
- Cenoz, J. (2013). The influence of bilingualism on third language acquisition: focus on multilingualism. *Language Teaching*, 46(1), 71-86. <https://doi.org/10.1017/S0261444811000218>
- Cenoz, J. & Gorter, D. (2017). Minority languages and sustainable translanguaging: threat or opportunity? *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 38(10), 901-912. <https://doi.org/10.1080/01434632.2017.1284855>
- Cenoz, J. & Gorter, D. (2021). *Pedagogical translanguaging*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/9781009029384>
- Cenoz, J., Leonet, O. & Gorter, D. (2022). Developing cognate awareness through pedagogical translanguaging. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 25(8), 2759-2773. <https://doi.org/10.1080/13670050.2021.1961675>
- Cenoz, J. & Santos, A. (2020). Implementing pedagogical translanguaging in trilingual schools. *System*, 92, 102-273. <https://doi.org/10.1016/j.system.2020.102273>
- Corson, D. (1995). *Using English words*. Kluwer. <https://doi.org/10.1007/978-94-011-0425-8>
- Corson, D. (1997). The learning and use of academic English words. *Language Learning*, 47(4), 671-718. <https://doi.org/10.1111/0023-8333.00025>
- Cummins, J. (1979). Cognitive/academic language proficiency, linguistic interdependence, the optimum age question and some other matters. *Working Papers on Bilingualism*, 19.
- Cummins, J. (1999). *BICS and CALP: clarifying the distinction*. ERIC. <https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED438551.pdf>
- Cummins, J. (2008). BICS and CALP: empirical and theoretical status of the distinction. *Encyclopedia of Language and Education*, 2(2), 71-83.
- Cummins, J. (2017). BICS and CALP: Empirical and theoretical status of the distinction. In B. Street & S. May (arg.), *Literacies and language Education: Encyclopedia of Language and Education, 3rd Edition* (59-71. or.). Springer Science; Business Media LLC. https://doi.org/10.1007/978-3-319-02252-9_6

- Cummins, J. (2021). Translanguaging: A critical analysis of theoretical claims. In P. Juvonen & M. Källkvist (arg.), *Pedagogical translanguaging: theoretical, methodological and empirical perspectives* (7-36. or.). Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781788927383-004>
- DiCerbo, P.A., Anstrom, K.A. Baker, L.L. & Rivera, C. (2014). A review of the literature on teaching academic English to English language learners. *Review of Educational Research*, 84(3), 446-482. <https://doi.org/10.3102/0034654314532695>
- Erkizia, T. (2024, otsailaren 7a). Nekazarien haserrea eta elikadura. *Berria*. https://www.berria.eus/iritzia/artikuluak/nekazarien-haserrea-eta-elikadura_2120214_102.html
- Eusko Jaurlaritza. (2023). 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren ezarpena eta inplementazioari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302729e.pdf>
- Gaspar, A. (2024). Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 138, 649-676. <https://doi.org/10.35462/flv138.9>
- Graham, S. & Hebert, M. (2011). Writing to read: A meta-analysis of the impact of writing and writing instruction on reading. *Harvard Educational Review*, 81(4), 710-744. <https://doi.org/10.17763/haer.81.4.t2k0m13756113566>
- Graham, S. & Perin, D. (2007). A meta-analysis of writing instruction for adolescent students. *Journal of Educational Psychology*, 99(3), 445. <https://psycnet.apa.org/doi/10.1037/0022-0663.99.3.445>
- Heppt, B., Sofi e Henschel, S. & Haagb, N. (2016). Everyday and academic language comprehension: investigating their relationships with school success and challenges for language minority learners. *Learning and Individual Differences*, 47, 244-251. <https://doi.org/10.1016/j.lindif.2016.01.004>
- Heredia, L.J., Guamán, V.A., Vélez, W.J.V. & Vásquez, P.R. (2024). Diseño universal para el aprendizaje, entre la teoría y la práctica. *Revista Franz Tamayo*, 5(13), 162-177. <https://doi.org/10.61287/revistafranztamayo.v.5i13.8>
- Hermida, D.J. (2009). The importance of teaching academic reading skills in first-year university courses. *The International Journal of Research and Review*, 3. <https://doi.org/10.2139/ssrn.1419247>
- Huang, X. & Chalmers, H. (2023). Implementation and effects of pedagogical translanguaging in EFL classrooms: a systematic review. *Languages*, 8(3), 194. <https://doi.org/10.3390/languages8030194>
- Ibrahim, R., Eviatar, Z. & Aharon-Peretz, J. (2007). Metalinguistic awareness and reading performance: A cross language comparison. *Journal of Psycholinguistic Research*, 36(4), 297-317. <https://doi.org/10.1007/s10936-006-9046-3>
- ISEI. (2025). *Ebaluazio diagnostikoa. Etapa erdia: LH4 eta DBH2 (ED23), Etapa amaiera: LH6 eta DBH4 (ED24). Txosten exekutiboa*. Eusko Jaurlaritza. https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/d/guest/ed23_24_eus-2?imagePreview=1
- Izadi, M. & Yarahmadzahi, N. (2020). The metalinguistic awareness of bilingual (Persian-Baluchi) and monolingual (Persian) learners of English language.

- Linguistic Approaches to Bilingualism*, 10(2), 249-289. <https://doi.org/10.1075/lab.16012.iza>
- Jessner, U. (2006). *Linguistic awareness in multilinguals: English as a third language*. Edinburgh University Press.
- Jessner, U. (2008). Teaching third languages: findings, trends and challenges. *Language Teaching*, 41(1), 15-56. <https://doi.org/10.1017/S0261444807004739>
- Jorrín Abellán, I.M., Fontana Abad, M. & Rubia Avi, B. (2021). *Investigar en educación: Manual y guía práctica*. Síntesis.
- Ke, S.E., Zhang, D. & Koda, K. (2023). *Metalinguistic awareness in second language reading development*. Cambridge University Press.
- Lasagabaster, D. (1998). Metalinguistic awareness and the learning of English as an L3. *Atlantis*, 20(2), 69-79.
- Leonet, O., Cenoz, J. & Gorter, D. (2020). Developing morphological awareness across languages: translanguaging pedagogies in third language acquisition. *Language Awareness*, 29(1), 41-59. <https://doi.org/10.1080/09658416.2019.1688338>
- Leonet, O. & Saragueta, E. (2024). The case of a pedagogical translanguaging intervention in a trilingual primary school: the students' voice. *International Journal of Multilingualism*, 21(4), 2112-2130. <https://doi.org/10.1080/14790718.2023.2224009>
- Leonet, O., Arocena, E. & Saragueta, E. (2025). Young bilingual students' use of metacognitive strategies to overcome comprehension difficulties when reading in the foreign language. *Literacy*, 59(2). <https://doi.org/10.1111/lit.12383>
- Leonet, O., Saragueta, E. & Arocena, E. (2024). Shifting the perception of languages and their status through the use of pedagogical translanguaging as a tool to increase language awareness. *Language, Culture and Curriculum*, 37(3), 363-384. <https://doi.org/10.1080/07908318.2024.2344562>
- Lesano-Albán, Á.U. & Troya-Ayala, G.P. (2024). El diseño universal para el aprendizaje (DUA) como marco para las adaptaciones curriculares en los estudiantes con necesidades educativas especiales de básica superior. *MQR Investigar*, 8(2), 901-917. <https://doi.org/10.56048/MQR20225.8.2.2024.901-917>
- Lyster, R., Quiroga, J. & Ballinger, S. (2013). The effects of biliteracy instruction on morphological awareness. *Journal of Immersion and Content-Based Language Education*, 1(2), 169-197. <https://doi.org/10.1075/jicb.1.2.02lys>
- Majedi, N. & Pishkar, K. (2016). The effect of self-directed learning on Iranian intermediate EFL learners speaking accuracy. *Journal of Applied Linguistics and Language Research*, 3(2), 86-95.
- Massaro, D.W. (2015). Two different communication genres and implications for vocabulary development and learning to read. *Journal of Literacy Research*, 47(4), 505-527. <https://doi.org/10.1177/1086296X15627528>
- Nagy, W.E., Carlisle, J.F. & Goodwin, A.P. (2014). Morphological knowledge and literacy acquisition. *Journal of Learning Disabilities*, 47(1), 3-12. <https://doi.org/10.1177/0022219413509967>
- Orcasitas-Vicandi, M. & Leonet, O. (2022). The study of language learning in multilingual education: students' perceptions of their language learning experience in Basque, Spanish and English. *International Journal of Multilingualism*, 19(1), 124-141. <https://doi.org/10.1080/14790718.2020.1822365>

- Otwinowska, A. (2016). *Cognate vocabulary in language acquisition and use: attitudes, awareness, activation*. Multilingual Matters. <https://doi.org/10.21832/9781783094394>
- Phillips Galloway, E., Stude, S. & Uccelli, P. (2015). Adolescents' metalinguistic reflections on the academic register in speech and writing. *Language and Education*, 31, 221-237. <https://doi.org/10.1016/j.linged.2014.10.006>
- Phillips Galloway, E. (2016). *The development of core academic language and reading comprehension in pre-adolescent and adolescent learners* [Doktore-tesia, Harvard Graduate School of Education]. DASH. <https://dash.harvard.edu/handle/1/27112709>
- Phillips Galloway, E. & Uccelli, P. (2019). Examining developmental relations between core academic language skills and reading comprehension for English learners and their peers. *Journal of Educational Psychology*, 111(1), 15-31. <https://doi.org/10.1037/edu0000276>
- Phillips Galloway, E., Qin, W., Uccelli, P. & Barr, C.D. (2020). The role of cross-disciplinary academic language skills in disciplinary, source-based writing: investigating the role of core academic language skills in science summarization for middle grade writers. *Reading and Writing*, 33(1), 13-44. <https://doi.org/10.1007/s11145-019-09942-x>
- Rafi, A.S.M. & Morgan, A.M. (2023). Blending translanguaging and CLIL: pedagogical benefits and ideological challenges in a Bangladeshi classroom. *Critical Inquiry in Language Studies*, 20(1), 20-45. <https://doi.org/10.1080/15427587.2022.2090361>
- Rauch, D., Naumann, J. & Jude, N. (2011). Metalinguistic awareness mediates effects of full biliteracy on third-language reading proficiency in Turkish-German bilinguals. *International Journal of Bilingualism*, 16(4), 402-418. <https://doi.org/10.1177/1367006911425819>
- Rivera Mandarache, E.Y., Rojas Tello, L.L. & Cuneo Álvarez, G.L. (2019). Bilingüismo y comprensión lectora en estudiantes en la Universidad Nacional de San Cristóbal de Huamanga. *Conrado*, 15(70), 219-225.
- Snow, C.E. & Uccelli, P. (2009). The challenge of academic language. In D.R. Olson & N. Torrance (arg.), *The Cambridge handbook of literacy* (112.-133. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511609664.008>
- Tunmer, W.E., Herriman, M.L. & Nesdale, A.R. (1988). Metalinguistic abilities and beginning reading. *Reading Research Quarterly*, 23(2), 134-158. <https://doi.org/10.2307/747799>
- Uccelli, P., Phillips Galloway, E., Barr, C., Meneses, A. & Dobbs, C. (2015a). Beyond vocabulary: exploring cross-disciplinary academic-language proficiency and its association with reading comprehension. *Reading Research Quarterly*, 50(3), 337-356. <https://doi.org/10.1002/rrq.104>
- Uccelli, P., Barr, C.D., Dobbs, C.L., Galloway, E.P., Meneses, A. & Sánchez, E. (2015b). Core academic language skills: an expanded operational construct and a novel instrument to chart school-relevant language proficiency in preadolescent and adolescent learners. *Applied Psycholinguistics*, 36(5), 1077-1109. <https://doi.org/10.1017/S014271641400006X>

- Uccelli, P. (2023). The language demands of analytical reading and writing at school. *Written Communication*, 40(2), 518-554. <https://doi.org/10.1177/07410883221148727>
- Volodina, A., Weinert, S. & Mursin, K. (2020). Development of academic vocabulary across primary school age: differential growth and influential factors for German monolinguals and language minority learners. *Developmental Psychology*, 56(5), 922-936. <https://doi.org/10.1037/dev0000910>
- Wei, L. (2018). Translanguaging as a practical theory of language. *Applied Linguistics*, 39(1), 9-30. <https://doi.org/10.1093/applin/amx039>
- Woll, N. (2019). How French speakers reflect on their language: a critical look at the concept of metalinguistic awareness. *Language Awareness*, 28(1), 49-73. <https://doi.org/10.1080/09658416.2019.1567743>
- Wong Fillmore, L. (1982). Language minority students and school participation: what kind of English is needed? *Journal of Education*, 164(2), 143-156. <https://doi.org/10.1177/002205748216400204>
- Wong Fillmore, L. (2009). *English language development: Acquiring the language needed for literacy and learning*. http://assets.pearsonschool.com/asset_mgr/versions/2011-11/810BE0C344E9450E567F7A8877946BDB.pdf
- Wong Fillmore, L. (2014). English language learners at the crossroads of educational reform. *TESOL Quarterly*, 48(3), 624-632. <https://doi.org/10.1002/tesq.174>
- Wong Fillmore, L. & Fillmore, C.J. (2012). *What does text complexity mean for English learners and language minority students?* Stanford University Understanding Language Project. <http://ell.stanford.edu/papers/language>
- Yüzlü, M.Y. & Dikilitaş, K. (2022). Translanguaging as a way to fostering EFL learners' criticality in a hybrid course design. *System*, 110, 1-12. <https://doi.org/10.1016/j.system.2022.102926>

Intimitatearen idazketa Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* liburuan

Escribir la intimidad en *Un ojo de cristal* de Miren Agur Meabe

The writing of intimacy in *A glass eye* by Miren Agur Meabe

Elena Olave Duñabeitia
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
elenamercedes.olave@ehu.eus
<https://orcid.org/0009-0006-2099-2117>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.7>

Lan hau UPV/EHUREN Ikertzaileak Prestatzeko Kontratuaren (PIF/23) finantzazioari esker egin da.

Jasotze data: 2025/03/26. Behin-behineko onartze data: 2025/05/15. Behin betiko onartze data: 2025/11/03.



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honek kritika feministak eta genero-ikasketetatik intimitatearen kontzeptuari eta hari lotutako literaturari egindako ekarpen teorikoetan oinarrituta, intimitatearen idazketarako hurbilpen bat proposatzen du, kronotopo intimoak analisi elementu gisa baliaturik. Hori horrela, kronotopo intimoa Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* (2013) liburua lantzeko abiapuntuetako bat izango da, horren bitartez intimitatearen idazketa nola eraikitzen den eta intimitateak publikotasunarekin zein harreman duen aztertzeko.

Gako hitzak: idazketa; intimitatea; kronotopoa; genero-ikasketak; feminismoa.

RESUMEN

Este artículo propone una aproximación a la escritura de la intimidad a partir de las críticas feministas y las aportaciones teóricas desde los estudios de género a la noción de intimidad y a la literatura relacionada con dicho concepto, utilizando el cronotopo íntimo como elementos de análisis. Así, el cronotopo íntimo será uno de los puntos de partida para analizar el libro *Un ojo de cristal* (2013), de Miren Agur Meabe, mediante el que profundizar en cómo se construye la escritura de la intimidad y en cómo se relaciona la intimidad con lo público.

Palabras clave: escritura; intimidad; cronotopo; estudios de género; feminismo.

ABSTRACT

This article proposes an approach to writing intimacy based on feminist critiques and theoretical contributions from gender studies to the notion of intimacy and the literature related to this concept, using the intimate chronotope as an analytical tool. Thus, the intimate chronotope will serve as one of the starting points for analyzing the book *A glass eye* (2013) by Miren Agur Meabe, in order to explore how the writing of intimacy is constructed and how intimacy relates to the public.

Keywords: writing; intimacy; chronotope; gender studies; feminism.

1. SARRERA. 2. MIREN AGUR MEABE ETA KRISTALEZKO BEGI BAT. 3. INTIMITATEAREN HARIRA. 4. ANALISIA: INTIMITATEAREN IDAZKETA ETA KRONOTOPO INTIMOA. 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Lan honek, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* (2013) liburua oinarri hartuta, intimitatearen idazketaz hausnartzea du helburu. Intimitatearen idazketa deritzogunaz jarduteko ezinbestekoa da XX. mendetik aurrera intimitatearen inguruan egindako hausnarketa teorikoak birpasatzea, hainbat baitira intimitatea ulertzeko edo definitzeko egindako saiakera teorikoak. Izan ere, intimitatea esfera, espazio, bizitza pribatuaren baliokidetzat ulertu izan da, eta, horregatik, partekaezina edo publiko bilakatzean desagertzen den zerbait bezala definitu. Beraz, eztabaida teoriko horretan kokatu ahal izateko, lan honetan, besteak beste, José Luis Pardo (1996) eta Leonor Arfuch (2005) pentsalarien ildo jarraitzea proposatzen dut, batez ere, pribatutasuna, intimitatea eta bi esfera horien arteko ezberdintasunak eta berezotasunak zehaztu, ulertu eta landu ahal izateko. Bestalde, bi autore horiek azpimarratzen duten ideia bat ezinbestekoa izango da jarraian egingo dugun azterketan: intimitatea esperientzia aurrelinguistikoa izanagatik ere, berorren kontakizunean bilakatzen da egiazko eta hautemangarri. Ideia horri helduta, lan honen helburuetako bat eraikuntza narratibo hori nola gertatzen den aztertzea izango da. Horretarako, Leonor Arfuchek garatutako kronotopo intimoaren nozioaz baliatuko naiz, Meaberen liburuan denbora eta espazio intimoen nolakotasuna, eta horiek intimitatearen idazketa nola eraikitzen duten aztertzeko.

Azken urteetan, zenbait lan akademikok Meaberen *Kristalezko begi bat* liburua aztertu dute. Aipatzea komeni den horietako bat Meri Torrasen «Cuando el cuerpo de la autora traza la poética emocional del corpus. *Un ojo de cristal*, de Miren Agur Meabe» (2019) liburu-atala da. Bertan, afektuen teorian oinarriturik, Torrasek afektuak gorputzeko moduak kontakizun literarioa eta autore-narratzailearen subjektibitatea nola

baldintzatzen dituen aztertu izan du. Bestalde, Ibon Egañaren «Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan: Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat» artikulua aipatu beharra dago (2021), non kritika feministan oinarrituta, autoreak nobelan egiletasuna gorpuzteko duen era aztertzen baita, liburuaren alderdi testuala zein testuinguru soziala kontuan hartuta. Marta Pascua Canelok ere generoa eta egiletasunaren arteko harremanari buruz hausnartzen du «Mujeres a la vista: género e inscripción autorial en *Un ojo de cristal*, de Miren Agur Meabe» (2021) artikuluan. Aipatutako lan horiek egiletza, gorputza eta genero-irakurketetan jartzen dute arreta, gehien bat. Horregatik, aurreko lan horiek egindako proposamenak baliatu eta kontuan hartuko baditut ere, artikulua honek *Kristalezko begi bat* liburuari heltzeko bestelako ikerketa-ildo bat proposatzen du; zehazki, intimitatea eta idazketaren arteko bidegurutzeetan sakontzeko.

Azterketari heldu aurretik, lehen atalean Meaberen lanaz esandakoak eta egindako irakurketak aipatuko ditut. Bigarrenean, intimitateri buruzko eztabaida teorikoen inguruko zertzeladak emango ditut; bereziki, intimitatea, sorkuntza eta subjektibitatearen arteko loturei erreparatuko diet. Hirugarren atala *Kristalezko begi baten* azterketak osatuko du, kronotopo intimoan (Arfuch, 2005) oinarrituta, eta, bukatzeko, ondorioek eta bibliografiak itxiko dute artikulua.

2. MIREN AGUR MEABE ETA KRISTALEZKO BEGI BAT

Miren Agur Meabek 1980ko hamarkada bukaeratik ibilbide literario nabarmena izan duen arren, 2000. urtera arte *–Azalaren kodea* (Susa) poesia-liburuarekin– ez zuen jaso «errekonoizimendu eta zilegitasun literario androzentrikoa» (Egaña, 2021, 16. or.) eta euskal literaturako zirkuitu estandarrerako sarbidea (Rodríguez, 2019, 56. or.). Handik hamahiru urtera, 2013an, argitaratu zuen Meabek *Kristalezko begi bat* liburua, zeinak hainbat eztabaida literario sortu zituen garaiko euskal literaturako panoraman. Eztabaida-giroaren arrazoietakoa bat izan zen autoreak bere bizi-esperientzia, «bere intimitatea», literatura egiteko baliatu izana. Batzuek bizitza ez aski interesgarria –edo hura kontatzeko forman hanka sartu izana–, fikzio-gabezia eta lirismo gehiegi leporatu zioten Meaberi (Zaldua, 2013), emakumezko batek egindako kontakizun sentimentalak fikzioaren ukazioa berezkoa balu bezala. Beste batzuek, aldiz, itun narratiboa hautsi izana leporatu zioten, horrelakoak aipatuz: «autoimitazioa aldarrikatzea apur bat tranpa iruditzen zait [...] liburuarekin batera egilearen biluzi desplegable bat erregalatzea bezalakoa [...]. Terapia ariketa baten antza hartu diot» (Morales, 2013). Baieztapen horiek ez dute harridurarik sortzen euskal literatura-sistema txikian, Lorea Azpeitiak *Autofikzioa euskal literaturan* gradu-amaierako lanean (2016, 13. or.) azaldu bezala, gure testuinguruak autoreen biografia ezagutzea errazten baitu, eta horrek erabat baldintzatzen du autofikzioa idatzi edo irakurtzerako garaian. Halere, gerora aipatuko dudana bezala autofikzioaren inguruko polemika edo eztabaida beste literatura-esparru handiagotan ere gertatzen da, eta, hortaz, ondoriozta dezakegu badirela beste arrazoi batzuk autofikzioa gutxietsi edo arbuiaitzeko. Ez da lan honen helburua ur horietan murgiltzea, baina interesgarria da iritzi horietako batzuk hemen aipatzea.

Kristalezko begi bat liburuaren aurkezpenean Meabek bere obra sailkatzeko zailtasunak helarazi zituen, baina, baita hura «auto-imitazio» gisa definitu ere. Izan ere, errealitatearen errepresentazio bat da liburua ontzen duen kontakizuna, hau da, errealitate ezinbestean fikzionatua. Zentzu horretan, gakoa ez da errealitatearekiko leialtasuna, baizik eta mimesia. Hala ere, urte berean egindako elkarrizketa batean aipatzen du liburua «nobela» deitu zutela «arrazoi praktikoengatik [...] baina hurbilago dago egunerokoaren generotik» (Meabe, 2013). Aipu hori bereziki interesgarria da, aurre-rago argudiatuko dudana bezala, agerian uzten baitu egileak, liburuaren forma hautatzerakoan, intimitearen idazketari hobe egokitzen zaion forma hautatu zuela era kontziente batean. Elkarrizketa horretan aipatzen dituen hitzetan igar daiteke hori:

[...] genero horrek erreparoa ematen du, muzin egiten zaio, «niaren idazketa»-ren eremua delako, eremu arriskutsua, edukiaren eta adierazmoldearen arteko uztarketa ez bada ganoraz egiten. Izan ere, koadernoak, edo egunerokoak, artxibategi handi baten modukoa da, berez funtzio ez-literario batzuk dituen; esaterako, deskarga emozionala bideratzea, oroimena bermatzea, hausnarketak ordenatzea... Baina badu funtzio literarioa ere, estilo ariketa bat den neurrian eta egituratzeko plan bat eskatzen duenez gero (Meabe, 2013).

Hitz horiek erabat lotuta daude Meabek berak Eider Rodriguezek plazaratutako *Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian* (2019) saiakeran egiten duen hausnarketa batekin:

Esparru guztietan emakumezkoek beren dohainak demostratu behar dituzte gizonezkoek baino neurri handiagoan. Premisa horretatik abiatuta... Literaturan ere gauza diferenteak eskatzen zaizkie... Pentsatzen dut emakumeoi eskatzen zaigula, eta hori onerako da, emakume pertsonaiak jartzea istorioen erdigunean. Eskatzen zaigu baita ere geure barne mundua zintzotasunez konpartitzea... Horrek ez du esan nahi kontatzen duguna egia autobiografikoa denik... Bestalde, ni pertsonaletik ni kolektibora zurbia egitea, hori ere baloratzen dela uste dut. Eta estereotipoen kontra doazen ahotzak sortzea. Gizonezkoen kasuan, esango nuke ez zaiola hainbeste garrantzi ematen ni biografikoa eta ni narratiboa berdina izateari. Izan ere, emakumezkoek idatzitako literaturaren kasuan "bera da" pentsatzen du irakurleak; gizonezkoen kasuan ez da automatikoki egiten (62. or.).

Beraz, ez da ausazkoa Meabek jarrera horri erreferentzia egitea, hau da, emakumezkoen literaturan «ni biografikoa» eta «ni narratiboa» berdina diren uste orokortuari. Suposizio horrek Meaberen lanaren irakurketa, kritika eta interpretazioa baldintzatu izan du. Izan ere, irakurketa- eta interpretazio-modu hori hertsiki lotuta dago XX. mendetik aurrera ezarritako dikotomia batekin, zeinak fikzioa gizontasunarekin eta niaren literatura femeninitasunarekin lotu izan duen. Bada, emakumezkoen, disidentzia sexualen, beltzen, indigenen eta subjektu subalternoen literaturan pertsonalegitzat eta konfesionaltzat hartutako edukia ez da modu berean izendatu gizonezkoen literaturaren kasuan (Russ, 2018, 72. or.). «Edukiaren bi aurpegi-tranpa» izendatu zuen Joannna Russek gertaera hori, esperientzia batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak kontsideratzearen ondorio. Hala, gai eta formatu

batzuk unibertsalak, objektiboak, eredugarriak eta kanon baten baitan kabitzen diren bitartean, beste batzuk txikikeriak, salbuespenak, immoralak, lotsagarriak edo genealogia gabekoak dira (89.-90. or.). Hori guztia kontuan hartuta, hurrengo atalean intimitatearen genero irakurketan sakonduko dut.

Hortaz, *Kristalezko begi bat* argitaratzean, pentsa dezakegu Meabek paratestuari garrantzia eman ziola eta autoimitazio gisa definitu zuela liburua, kontziente zelako «intimista», «konfesional» edo «autofikzio» kategoriek euskal literatura-sisteman zuten kutsu ezkorraz. Jarrera arbuizatzaile horren adibide da 2014an, liburua argitaratu eta urte betera, Iban Zalduak idatzi zuen *Autofikzioaren kontrako manifestua* (2014), non «selfearen literaturaren tirania» salatu eta autofikzioaren kontrako alegatua egin zuen. Hala eta guztiz ere, agerikoa da Meabek intimitatearen idazketari lekua egin nahi izan diola bere lanean; ez soilik bere literaturan, baizik eta euskal literaturaren argazki orokorrean ere.

3. INTIMITATEAREN HARIRA

Sarreran aipatu dudana bezala, intimitatea definitzeko hainbat jarrera eta ildo teoriko topa ditzakegu. Aipagarria da horretarako Carlos Castilla del Pinok koordinatutako *De la intimidación* (1989) liburua, non kontzeptu abstraktu hori lurreratzeko zenbait saia-kera eta proposamen biltzen diren, marko filosofiko, soziologiko edo historiko desberdinetatik landuak, batez ere, Europako testuinguruari begira. Lan horretan badaude intimitatea asmakizun moderno eta liberalizatzen ulertzen dutenak, eta, hortaz, intimitateak espazio pribatuaren beharra duela aldarrikatzen dutenak. Badira uste dutenak intimitatea bizitza pribatu modernoaren ondorioz sortu zela, baina, hala ere, esfera bakoitzak –publiko, pribatu eta intimoak– bere berezitasunak eta berezko definizioa duela adierazten dutenak (Camps, 1989, 60.-61. or.). Bestalde, badira *privacy*a eta intimitatea bereizten dituztenak, intimitatea «barne-munduarekin lotuz» eta ez esfera pribatua edo liberalismo ekonomiko eta politikoarekin (Bejar, 1989, 45. or.). Azken ideia hori da lan honetan baliatuko dudana intimitatea definitzeko, horri tiraka errazago uler dezakegulako intimitatea gizarte aurre-modernoetan eta bestelako gizarte egituradun komunitateetan ere existitzen dela. Halaber, ideia horrek balio digu intimitatea banakotasunarekin bainoago, publiko eta kolektiboarekin elkarreraginean ulertzeko, eta, zentzu horretan, intimitatearen politizazioaz jarduteko.

Bada, testu honetan intimitateari erreferentzia egitean, ez dut hura ulertu esfera pribatura soilik lotutako nozio gisa. Izan ere, bi kontzeptu horiek faltsuki elkarrekin lotu badituzte ere, intimitatea eta pribatutasuna ez dira gauza bera. Hala ere, bi nozio horiek nahasteko tendentziak «intimo» hitzaren hutsaltzea eragin du (Pardo, 1996, 23. or.). Jakina da intimitateak bere zentzu modernoaren erreforma protestantearekin lortu zuela, zentzu moderno horren gorenaren liberalismoarekin batera heldu zelarik (Bejar, 1988, 16. or.). Hori horrela, gaur egun mendebaldeko iruditeria kolektiboan intimitateaz ulertzen dena XVIII. mendeko Europan sortu zen, esfera pribatu burgesa eta subjektibotasun modernoaren finkatutako zirenean (Arfuch, 2005, 240. or.). Momentu horretatik aurrera, beraz, intimitatea modernitatearen berezko balioek definitu dute: indibidualismoa, jabetzan oinarritutako askatasuna eta arrazoien gorespina. Gauzak horrela, intimitate modernoaren pribatuaren eta

publikoaren arteko bereizketa artifizialean oinarritzen da, zeinak publikoa eta pribatua erabat kontrajarritako eta elkarrengandik bereizitako esferatzat jotzen baititu. Banaketa horrek lagundu zuen berresten esfera pribatua, burgesa eta legegilea, hura pribatutasuna, familia-unitatea, jabetza pribatua eta indibidualismoa bezalako nozioei loturik. Pribatutasunaren sorrerak, aldi berean, oinarri liberaleko sentimendu berriak sortu zituen eta bizitza publikoaren, sozialaren eta partekatuen gainbehera eragin.

Zentzu horretan, «intimoa» ez da soilik etxeko espazioari, jabetza pribatuari eta haren transakzioari lotutako kategoria bat. Beraz, garrantzitsua da berriz ere azpimarratzea intimitatea pribatutasunaren ideiatik eta intimitate moderno eta burgesaren sorrera baino aurretik existitzen zela eta, gaur egun ere, halaxe existitzen dela, esfera pribatutik publikora joan-etorrian.

Esfera publiko, pribatu eta intimoak haien berezko ezaugarriak eta existitzeko moduak dituzte. Hala ere, bakardadearen, pribatutasunaren eta intimitatearen arteko lotura bortxatuak intimitatea esfera pribatuan soilik ager daitekeenaren ustea sortu du, eta, horregatik, gaizki ikusi eta moralki epaitu da intimitatea erakutsi edo partekatzea (Pardo, 1996, 140. or.). Azken ideia horrek intimitatea idazteari egindako epaiketa eta kritika moralak azalduko lituzke, hein handi batean.

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, artikulua honetan ez da intimitatea esfera publikotik bereizita ulertuko, ezta bere baitan existitzeko pribatutasunaren beharra duen zerbait bezala ere. Izan ere, intimitatea berezko espazio eta denborak dituen nozioa litzateke, eta, ondorioz, esfera pribatu zein publikoan ager daiteke. Bada, sarreran adierazi dudana bezala, intimitatea esperientzia aurrelinguistikoa denez, berorren narrazioan, kontaketa agertzen da. Hau da, intimitatea kontakizunarekin lotuta legoke, eta, ondorioz, artearekin (Pardo, 1996, 30. or.).

Edonola ere, bada aurretik aipatutako autore gehienek aipatzen duten ezaugarri komun bat: sekretua. Uler dezakegu intimitatea sekretua agertzeko baldintza proposak sortzen dituen espazio eta denbora gisa. Sekretua barnekoarekin, ikusten ez denarekin, lot daiteke, pentsamendu eta emozioen munduarekin, baina ez horregatik indibidualismoarekin. Izan ere, autobiografiak edo niaren idazketak arbuiaitzeko falazia nagusietako bat da horiek ustez nartzisismoa eta indibidualismoarekin duten harremana. Alabaina, intimitatearen idazketa osatzen duten pentsamendu eta sentimenduek subjektibitatearen eraikuntzarekin lotura estua duten arren, subjektibitate hori ez da soilik banakotasunarekin lotu behar, hura partekatutako testuinguru historiko, politiko, ekonomiko eta kultural batek baldintzatuta eraikitzen baita. Beraz, barnekoa kanpokoaren baldintzapean modelatzen eta eraikitzen da. Hau da, intimitatea norberarena bezain kolektiboa da, pertsonala bezain soziala.

Aurreko esaldi horri helduta, Meaberen lana aurkeztean agertu den ideia bati helduko diot berriz: intimitatearen genero-irakurketa. «Intimismoa eta sentimenduak» du izenburu Laura Mintegik 1987an *Jakin* aldizkarirako idatzitako «Emakume-literatura: zer da eta zertan da» artikuluko ataletako batek. Emakumea eta literaturari buruzko testu horretan bi hitz horien arteko loturaz mintzo da Mintegi, intimitatearen

genero-irakurketari erreparatuz. Mintegik azaltzen du emakumeek esperientzia komun batzuk izateak ez duela esan nahi emakume guztiek sortutako lanak berdinak direnik, komunitate oso batek ez baitu zertan bizipen, estilo edo eduki bera partekatu behar. Gainera, XX. mendea barnerantz zuzendutako literaturaren testuingurutzat jotzen du, «literatura intimista»-rena. Hori horrela, Mintegiren ustez, XX. mendeko panorama orokorrean literatura intimista egiten baldin bazen, ez da harritzekoa emakume idazleak ere horretan aritu izana (1987, 10.-11. or.). Beraz, Mintegik intimitatearen idazketaren genero-irakurketari egiten dio erreferentzia –zeharka bada ere–, Russek bezala (2018), edukiaren bi aurpegiko tranpan erreparaturik. Aurretik aipatu dudak bezala, euskal literaturan «intimista» terminoa emakumeen literatura-lanak gutxiesteko kategoria gisa erabili izan da, eta horren salaketa egin dute, besteak beste, Itxaro Bordak «Intimitatea zartagailu» artikuluan (2013) edo Amaia Lasak *Jakin* aldizkarirako Amaioa Gurrutxagak (2022) egindako elkarrizketan.

Sentimenduekin lotura duten edo intimotzat hartutako edukiak ez dira modu berean irakurtzen gizonezko egileen edo «besteen» literaturan. Ibon Egaña era argian azaltzen du kontu hori, literatura-kritikak iritzi eta irakurketa horietan izan duen eragina aztertzean (Egaña, 2014). Izan ere, Egaña, besteak beste, Andreas Huyssen (1986) hipotesia berreskuratzen du azaltzeko XIX. mendetik aurrera modernismoak eta haren literaturak masa kulturaren aurkaritzan definitu zuela bere burua, eta, ondorioz, eguneroko bizitza eta sentimenduekiko distantziak markatu zuela haren definizioa. Hala, gizon zuriaren literatura moderno, kanoniko eta ustez unibertsal horren negatiboa besetasunaren literaturak osatuko luke eta, pentsamendu dikotomiko horri jarraiki, intimistatzat hartutako besteen literatura kontrajarriko litzateke unibertsaltzat eta jasotzat hartutako literaturarekin (Huyssen apud Egaña, 2014, 326.-331. or.). Argudio horrek argi eta garbi babesten du Russen (2018, 212. or.) hurrengo baieztapen hau: «publikoa pribatutik aldentzen da, politikoa pertsonaletik, hori guztia irizpide absolutu batzuk inposatzeko. Beltzen, emakumeen, txikanoen arteak beldur ematen du ezbaian jartzen duelako objektibitatearen eta irizpide absolutuen ideia bera».

Bada, literatura modernoaren definizio horrek arestian aipatutako intimitate pribatu, moderno eta burgesaren definizioarekin lotura estua du. Intimitate moderno eta ezinbestean patriarkal horri kontrajarritasuna, lan honetan intimitatea bilakaera publikoa duen kategoria gisa aurkeztuko dut, hau da, politikoa eta sozialarekin harremanetan ulertu beharreko kontzeptutzat (Berlant, 2020). Izan ere, Maria Teresa Luna C.-ren (2007) hipotesia berreskuratuz, intimitatea ez da soilik garrantzitsua subjektibitate indibidualaren espresio eta garapenerako, intimitateak zuzenean baldintzatzen baititu norbana-koek publikoa bizitzeko eta subjektu politiko bilakatzeko dituzten moduak.

4. ANALISIA: INTIMITATEAREN IDAZKETA ETA KRONOTOPO INTIMOA

Literatura intimista, auto-imitaziozkoa, autobiografikoa, autofikziozkoa, konfensionala... XX. mendetik aurrera izendapen horietako asko era nahasian erabilitako etiketak izan dira, besteak beste, «nia»-ren esplorazioarekin lotutako idazketak edota literatura-lanak aztertu eta kategorizatzeke. Lan honetan ez dut sakonduko

autofikzio, autobiografia edota bestelako etiketa batzuen arteko diferentzia edo definizio-eztabaidetan, taxonomiaren kontuan sakontzeko Manuel Albercaren *El pacto ambiguo: de la novela autobiográfica a la autoficción* (2007), Ana Casasen *El yo fabulado: nuevas aproximaciones teóricas a la autoficción* (2014) edo Vera Tororen “Soy simultáneo”: *El concepto poetológico de la autoficción en la narrativa hispánica* (2017) liburuek agertzen dituzten ikerketak interesgarriak izanik. Azterketa honen kasuan, ordea, autofikzioaz edo nia-ren literaturaz baino, intimitearen idazketaz arituko gara. Zergatik? Intimitearen idazketa «literatura intimista» deitu izan denaz bereizi nahi dudalako, eta, horretarako, genero baten edo bestearen epaian eta sailkapen metodoan oinarritu beharrean, intimiteak testuan (forman zein edukian) gorpuzteko modu posibleetan jarriko dut arreta. Hortaz, literatura-lanetan intimiteak izan ditzakeen arkitektura-motak eta eraikuntza-elementuetan zentratuko naiz, Ernauxen (2024, 61. or.) gogoetei jarraiki, intimitearen idazketaz jarduteko zentrala baita formaren afera –eta ez «genero» hitzarena–, zeina edukiaz bereizezina den.

Gauzak horrela, literatura intimoaz arituko ez banaiz ere, baliteke hurrengo lerrotan harekin lotutako zenbait ideia agertzea. Izan ere, esaterako, Lejeunek (1991, 49. or.) «El pacto autobiográfico» funtsezko testuan memoriak, egunerokoak eta saiakerak literatura intimoari lotutako testu-motatzat hartzen ditu, eta azterketa honetan ere, formari erreparatzerako orduan, memoriak eta egunerokoak intimitearen idazketarekin harremanetan ulertu ditut.

Intimitearen idazketa aztertzeko «kronotopo intimo»-en analisisan jarri dut arreta. Arfuchek *Pensar este tiempo: espacios, afectos, pertenencias* (2005) liburuko «Cronotopías de la intimidad» atalean garatzen du kontzeptu hori, zeina Mijai Bajtinen (1989) kronotopo kontzeptuan oinarritzen baita. Literalki *denbora-espazioa* esan nahi duen berba horrek literaturak asimilaturiko denbora-espazio harremanen korrelazioari egiten dio erreferentzia. Hala, kronotopoa espazioa, denbora eta afektibitatea barnebiltzen dituen kontzeptua da eta lan artistikoaren forma eta edukia determinatzen ditu. Izan ere, ikuspuntu baloratibo eta emotibo batetik eraikitako denbora-espazioak kontakizunaren funtsezko oinarria dira (Bajtin, 237.-393. or.), zentzua ematen baitiete ekintza, egoera eta pertsonaiei. Intimitearen kronotopoei dagokienez, Arfuchek (2005, 254.-260. or.) aipatzen du hainbat kronotopo intimo existitu daitezkeela, baina badirela eszena, objektu edo idazteko egitura batzuk (etxearekin, identitatearekin, subjektibitatearekin edo memoriarekin lotura dutenak) sinbolikoki intimitearen espazio, denbora eta afektuen agerpena ahalbidetzen dutenak, hori gertatzeko erabilitako lengoia artistikoa edozein dela.

Hannah Arendten gogoetei jarraiki, pribatutasunak ez bezala, intimiteak ez duenez munduan espazio ukigarririk, kontakizun literarioa proposatzen da intimitea gorpuzteko espazio eta denbora material gisa, transfigurazio artistikoa izanik intimitearen agerpen modu ohikoena, eta, era berean, bere errealtatearen baieztapena (Arendt, 2021, 50. or., 60. or.). Hala, sentimenduekin gertatzen den antzera, intimitea adierazpenaren aurretik existitzen bada ere, haren inguruko kontzientzia bere efektuetan eta ondorioetan gertatzen da (Ahmed, 2015, 40. or.). Hau da, kontatzen denean da.

Barnera edo kanporako kontakizuna, baina kontaketa funtsean. Hortaz, intimitatearen existentzia berorren idazketak bermatuko luke –hein handi batean–, zeina formalki kronotopo intimoek eta eduki aldetik afektuek osatuko luketen.

Jarraian azalduko dudan moduan, kontakizuna ezinbestekoa da intimitateari kontingentzia emateko, kasu honetan, idazketaren bitartez. Hipotesi hori lurreratzeko, jarraian aztertuko dut nola eraikitzen den intimitatearen idazketa *Kristalezko begi bat* liburuan. Horretarako, elementu batzuk hautatuko ditut kronotopo intimoen nolakotasuna definitu eta aztertu ahal izateko, hau da, ulertzeko denborak, espazioak eta afektuek zein harreman duten eta elkarren arteko loturak nola bermatzen duen intimitatearen agerpena eta idazketa.

Liburuko espazioaren egituratzeari dagokionez, besteak beste, bi ikuspuntutatik azter daiteke. Alde batetik, liburuaren espazioa bera har dezakegu autore-narratzaileak bere burua eraikitzeko espaziotzat, eta, beste alde batetik, kontakizunaren baitan agertzen diren espazio eta lokalizazioak. Bigarren ildo horri dagokionez, hor ere bi espazio mota bereizi beharko genituzke: orainaldian agertzen direnak eta iraganeakoak. Izan ere, bereizgarria da orainaldian idazten dela Landetako etxean eta horrekin lotutako espazioetan. Bestalde, oroitzapenekin korapilatutako lokalizazioetan iraganean idazten da. Bi denborazkotasun horiek pasarte batetik bestera aldatuz doaz, tartekatuz, eta horien arteko harilkatzeak memoriaren errelatoekin antzekotasunak dituen kontakizun bat sortzen du.

Denbora, beraz, espazioaren nolakotasunarekin erabat loturik legoke, baina baita afektuekin ere. Liburuan oraina, iragana eta etorkizuneko denborak erabat nahasten diren arren, badira data batzuk kontakizuna marko tenporal baten baitan kokatzen dutenak. Esaterako, «Urriaren 7a» pasarte, «Gutuna» pasarteko hasierako marka («Vieux Boucau, 2011ko urriaren 14a»), Kukutza utzaraztea, ETAk borroka armatua uztea «urriaren 20an» zein liburu bukaeran ageri den denbora-aipu zehatza, liburu osoaren kronotopoa markatzen duena: «Vieux Boucau, 2011ko irailaren 9tik azaroaren 22ra bitartean» (Meabe, 2013, 159. or.). Oro har, liburuko denbora orainaldi introspektibo batetik memoriazko lehenaldi batera doa, erabat subjektiboa eta emozionala dena. Izan ere, denbora intimoa zaila da kuantifikatzen edo kualifikatzen, bizi duen subjektuaren esperientziarekin lotua baitago ezinbestean (Pardo, 1996, 175. or.). Horregatik, objektiboki txikia eta laburra izan daitekeen egoera bat kontakizunean nahi beste hedatu eta zabaldu daiteke.

Gauzak horrela, aipatu beharreko aurreneko kronotopo intimoa autore-narratzaileak idazteko baliatutako espazioa da: *Le rayon vert* etxea. Izan ere, hasieran aipatzen da Landetara, Vieux-Bocauxera, egindako ihesaldi bati esker idatzi dela liburua «Etxe bat utzi didate Landetan. [...] Oraingoan isilka, irailaren hasieretan, arduretatik ihesi aldi baterako» (15.-16. or.). Vieux-Bocauxeko etxea eta bertako txoko eta objektuak izango dira liburu honetan intimitatearen idazketarako elementu sinboliko garrantzitsuetako batzuk. Etxeaz gain, ohea, logela, lorategia eta baratzea, hondartza, kristalezko begia, edota ametsak ere aipa ditzakegu, eta elementu horietako bakoitza espazio-denbora-afektu harreman batek eraikitzen du.

Bada, liburuko kronotopo intimoetako bat etxea da. Alde batetik, Landetako etxea, eta, bestetik, memoriatik eratorritako hainbat etxe. Landetako etxea liburuko kronotopo nagusietako bat da, zeinak, orainaldiko idazketarekin lotzen bada ere, iraganari buruz hausnartzeko eta idazteko ateak zabaltzen dituen. Aipatu bezala, bi etxe mota bereizi behar ditugu, orainaldikoa eta memoriazkoak. Izan ere, Arfuchi (2005, 260. or.) jarraiki, intimitatea, besteak beste, esfera domestikoaren baitan zein egunero-kotasunean topa ditzakegun hainbat elementuren bitartez ager daiteke, batez ere, denbora pausatzen eta identifikazioa edota subjektibitatearen eraikuntzan eragiten dutenetan. Horixe bera ikusiko dugu Meaberen lanean, non esaterako koadernoak, orriak, mahaiak, erlojuak, leihoak, bitxiontziak, oheak, itsasoa edota loreak ageri diren. Horiek guztiak elementu errepikakorrek dira testuan ageri diren deskribapenetan, non autore-narratzaileak bere buruaz, gizonekin dituen harremanez, galeraz, gaixotasunez, maitasunaz eta idazketaz hausnartzen duen. Besteak beste, M.rekin harremana deskribatzen duten eszena gehienak –kontakizuneko gai nagusietako bat, edo, gutxienez, haren gogoeta-motiboetako bat– etxean gertatzen dira: orainaldiko etxean zein memoriazkoetan. Memoriazko logela, ohe, etxe, iratze-habi zein hondartza eszenetan M.ren figura pasioarekin lotzen da, batez ere, eta horrek intimitate sexualarekin lotutako literatura-pasarteak aldizkatzea eragiten du, besteak beste, horrelakoak:

Oldarka egiten genuen lehen saioa (ez dauzkat ahazteko ohearen krakadak lehenbizikoz oheratu ginenean). Eskua pasatzen zidan bizkarretik, goitik behera [...] Gero, zamalkatzean iletik heltzen zidan, leun, tirakadaren bidez nire gerriaren kurbatura doitzeko justu. Izerditan hasten banintzen, putz egiten zidan azalean. Amaitutakoan, musu bat ezker sorbaldan. Goiz partean, esnatzearekin batera, bareago aritzen ginen, ni bere gainean jarrita edo biok alboz. Gero larritu egiten nintzen, instant batez, zer diosal etorriko zen: “Egun on, guapa, ez daukat presarik” edo “Banoa, zeregin asko dut gaur”. Ez nintzen jaikitzen berak alde egin arte. Ohean irauten nuen, izterren artean M.ren esnari eutsiz, edo izarei usnaka, haren usaina barruntatzearen. Animaliena den zerbaitek estekatzen ninduen beragana (54.-55. or.).

Horratik, sexuari aipamena egiten bazaio ere, interpretatu daiteke lerrook liburua-
ren oinarritzko gaiak diren galera eta minari buruzkoak direla. Aipatu beharra dago, emakume autoreen liburuetan sexualitatearekin lotutako eszenak agertzen direnean, maiz kritika heteropatriarkalak erotiko moduan epaitu izan dituela, liburuok bestelako gaiak jorratu eta eleberri erotikoein loturarik ez izan arren (Egaña, 2014).

Bestalde, orainaldian oinazea, mina edota desilusioarekin lotzen da M., batez ere, etxe barneko eta ametsetako kronotopoetan, hurrengo pasarteetan irakur daitekeen eran:

Beste batzuetan mina zorrotza da, ziri bat saihets-hezurren artean aztarrika. Min horrek begiak eta eztarria harrapatzen dizkizu. Negarra dakarren mina izaten da, zeure buruaren errukia pizten dizuna. Esaldia etsiak murduskatzen dituzu, zeure paraderoaz zu zeu hunkitzeraino. Negarra zotin bihurtzen denerako, ohean jesartzen zara, eta geldi egoten sabaiari adi, edo logelako beste edozeri, koadro bati edo auki bati, arnasa baretu arte (2013, 18. or.).

[...] Oroitzapenak tropelan datozkizu aliritzira. Hasieran txera egiten diezu. Burmuinaren opariak dira Urbasako pagadian egindako siesta, Apikaleko terran hartutako bainua, Bardeetako sorbeltzak, M.ren begi berdantzak. Ai, memoria traidorea, beti leku-denboren arroilaren gainetik hegan. Segituan dator sastakoa: "ez duzu sekula hain hurbil izango berriro". [...] Landetan zaude, Le Rayon Vert izeneko etxe batean. Eta mamu bat etorri zaizu bisitan. Haren izena ahoskatzen duzu, mikatz (2013, 34. or.).

Logela eta ohea, beraz, pasioari zein minari lotutako kronotopoak dira, biak ala biak, intimoak eta autore-narratzailearen subjektibitatearekin hertsiki lotuak. Horiekin batera ametsak ere aipatu behar ditugu kronotopo intimo gisa. Izan ere, askotan ageri dira ametsak idazteko abiapuntu edo eszena moduan, izan M.ri buruz edota amari buruz idazteko, non autore-narratzailearen beldurrak edo lotsak iradokitzen dituzten irudiak nabarmentzen diren, bere identitatearen bestelako osagarriekin batera (103. or.).

Lorategia edo baratzea ere aipagarria den beste kronotopo intimo bat da, non autore-narratzaileak barnera begira egoteko denbora eta tokia lortzeaz gain, bere idazketa elikatze elementu sinbolikoekin harremantzen baita (palmondoa, txoriak, belarrak, loreak, katuak...). Elementu hori, besteak beste, Barthesen idazketan ere intimitatearen kronotopotzat irakurri izan da (Arfuch, 2005), ziztada sentikorra eragin lezakeen espazio gisa, ebokaziorako, hausnarketarako eta memoriaren berreraikuntzan eragiteko ahalmena duena. Beraz, liburuan elementu horren presentzia ez da ausazkoa, ezta bere eragina intimitateren idazketan ere, hurrengoko lerroetan antzeman dezakegun moduan:

Baratzera etorri naiz. Utzita dago. Aspaldian ez du inork oinik hemen ipini, eta landare baldresak hedatu dira. [...] Hauxe izan dut, sarritan, ezongi-unadak eramateko bazterra. Ai, Emily Dickinson, zuk bai jakin! [...] Toki hau ez da paradisu galdu bat (hemen eta gaur dago), ez da paisaia bukolikoa (izerdiak bota nituen hibiskoak landatzen eta belar txarrak segatzen, belar txarrik baldin badago), ez da nire sancta sanctoruma (mundutarra da hemen egosten den guztia), ez da klub bat (atea zabalik dago nahi duenarentzat). Bizitzako gertaerak gogorarazten duten momentu iheskorak begiztatu ditut hemen, adibidez tximeleta kalaren bularrean gordetzen edo mikaren mokoak harra akabatzen. Toki honetan xehetasunei begiratu izan diet, hautu bakoitzaren arrazoiak aintzatetsi ditut, eta horiekin gozatu dut neure arauen arabera: toki honetan idatzi egin izan dut (137.-139. or.).

Hala eta guztiz ere, kronotopo intimoak ez dira esfera domestikora edota pribatura mugatzen, badira esfera publikoan kokaturiko lakuak, hondartzak, ospitaleak... Zentzu horretan, sexuarekin lotutakoak ere aipatu behar dira, zeinak ez baitira esfera pribatura mugatzen. Izan ere, aurrekoarekin kontrastean, irlan, itsasoan kokaturiko intimitate sexuala agertzen duen kronotopoa ere aurkituko dugu, esaterako, *Trompe l'oeil* pasartean, memoria ariketa lez antzeman daitekeena, hizkuntzaren erabilera zuhur eta ia kliniko batekin (ez inondik inora erotikoa):

Bizkor aritu gara. Amaieran musu bat ezker sorbaldan, beti bezala. [...] Kamera baten bidez ikusita bezala gogoratzen dut topaldia, ni neu neure buruari begira, bikoiztuta, eszenan eta eszenatik kanpo aldi berean. Irudi-segida batean laburbildu ahal nuke.

[...] Hauxe da egoera, irlaren arrakala batean: hankak tinko itsas likenez beteriko harri batean, eskuak haitzaren kontra, bularrak dantza zurian bainujantzitik kanpora. Gizonak isuri du. Egurdiko argiak ezpainak isiotu dizkie ginebrazko lip-gloss batek bezala. Igeri itzuli dira ertzero. Gizonaren hats garratza kriseilu bat da arekak argitzen (127.-128. or.).

Pasarte hori memoria ariketa baten deskripzioa den arren, autore-narratzaileak orainaldian idazten du eta ez lehenaldian. Interesgarria da baliatutako denbora-markak aztertzea, horiek gertakizunarekiko distantzia azpimarratzeko balio baitute, hau da, autore-narratzaileak gertaerarekiko sentitutako hurbiltasuna edo urruntasuna. Zentzu horretan, Annie Ernauxen (2024, 123.-124. or.) ideiei jarraikiz «orainaldi burutua gauzekiko hurbiltasunezko aditz aldia da, denboran eta espazioan. Bizitza eta idazketaren artean dagoen denbora».

Halaber, igar dezakegu nola sexuarekin lotutako intimitatea (erotikoa izan gabe) ez den esfera pribatura murrizten, eta haren publikotasuna kontakizunaren, liburuaren, izaera publikoak indartzen du. Ideia hori Lauren Berlantek «Sexo en público» (1999) testuan azaleratzen dituen gogoetekin lotu daiteke. Izan ere, Berlantek azpimarratzen du kultura eta politika zisheterosexual eta nazionalistek (Estatu Batuetako kasuari begiratzen dio autoreak, bereziki) zenbait espazio eta konbentzionalismotara murriztu dutela intimitatea, «bizitza pertsonala», lana, politika eta esfera publikoaren arteko diferentziak indarturik. Ideologia nazional-kapitalista horren ondorioz, sexua auzi pertsonal eta pribatu lez definitu izan da, sexua kontu publiko eta kolektibo gisa ulertzea eragotzita (Berlant, 1999, 94. or.). Zentzu horretan, pribatutzat definitu nahi izan den praktika sexuala irla eta hondartzaren kronotopoen kokatzean, hura esfera publikoan kokatzen du, izaera publiko hori biderkatzen delarik liburuaren espazioaren baitan gertakizuna kontatzearen ondorioz. Ez nuke esango inondik inora sexua denik liburu honen gai zentralerako bat, baina bada testuan ikusgarritasuna duen gertaera bat, galera, mina edota autore-narratzailearen identitatean eragiten duena. Hortaz, interesgarria da erabaki literario horren aipamena eta hura agertzeko kronotipoei erreparatzea, intimitatearen idazketaren elementuetako bat baita. Izan ere, autore-narratzaileak sexualitate heterosexualari erreferentzia egiten badio ere, publikoki «adin arriskutsuan» kokatzen den pertsonaiaren, fisikoki ez normatiboaren, sexualitateaz aritzeak ondorio politikoak dituela eztaba daezina litzateke.

Horrez gain, aipagarriak dira «Adin arriskutsuaz» (Meabe, 2013, 63. or.) eta «Mamografia batek nola eragin zuen kalearen alegoria» (Meabe, 2013, 68. or.) pasarteak. Izan ere, segidan doazen bi pasarte horiek kolektiboak eta sozialak diren bi esperientzia intimo kontatzen dituzte: menopausiaren eta mamografia bat egitearen esperientziak. Lehenengoan, autore-narratzaileak «iraultza intimo» izendatzen duen sasoian bere gorputzean bizitako aldaketa hormonal, emozional zein fisikoak deskribatzen eta kontatzen ditu. Bigarrenean, mamografiak dakartzan sentrazioak, beldurrak eta ospitaleko giro hotza antzeman ditzakegu. Hala, intimoak eta ustez pribatuak diren gaiak kontakizun literarioaren bidez publiko egin eta kolektibizatzen ditu, horiek politizatze bidea eginez. Izan ere, esperientzia pertsonal horiek –gorputzaren aldaketari, gaixotasunari edo horiek eragindako emozioei lotutakoak– dimentsio soziopolitikoak dute, testuinguru

historiko eta kultural jakin batek baldintzatutako izaera afektiboa baitute. Gauza bera gertatzen da dolua edo galeraren esperientziarekin, zeina liburuaren ardatz nagusietako bat den. Izan ere, doluaren izaera *aldikazkoa* (Barthes, 2025, 82. or.) marrazten du liburuak, gorputz konkretu baten samina eta argialdiak harilkatzen dituzten literatura-txatalekin. Hala, kontakizun literarioaren bitartez antolatu eta kontatzen ditu autore-narratzaileak galeraren bizipenari lotutako emozioak eta gertaerak, zeinak marka indibiduala izan dezaketen arren, esperientzia kolektibo baten berri ematen baitute.

Azkenik, sakondu beharreko beste kronotopo bat egiturari, formari lotuta egongo litza-teke, hau da, liburuaren eraikuntzarako espazio eta denborekin. Izan ere, liburu honetan zaila da bereiztea trama beraren kronotopoak eta hura eraikitzekeo baliaurikoak, bien arteko gainjartzea agerikoa baita. Hau da, zaila da bereizten kontakizuna bera eta kontakizuna eraikitzekeo prozesua, biak harilkatuta ageri baitira eguneroko formatua duen kontakizun batean. Bada, horrelako formatua erabiltzearen hautuak ez dirudi ausazkoa, egunerokoaren egiturak eduki zehatz batzuen agerpena eta idazketa baimentzen baitu, kasu honetan intimitatearekin eta memoriarekin zerikusia duena. Izan ere, liburua eguneroko gisa planteatzeak memoria ariketa bat egitea baimentzen du, lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna halabeharrez nahasi egiten baitira formatu horren baitan.

Ez dut hemen egunerokoaren tradizio historiko eta literarioari buruz sakonduko, baina haren definizioari buruzko zertzelada batzuk emango ditut, aztertu beharreko azken espazio-denbora egiturari buruz fundamentuz aritze aldera. Nora Catelliren (2007, 109. or.) ideiak berreskuratuz, egunerokoaren formak eta funtzioak askotari-koak eta kontrajarriak izan daitezke, idealki haren exigentzia formal bakarra sekuen-tzia kronologikoa delarik: egunen, gertaeren harilkatzea. Hala ere, dataren agerpenak baldintzatzen du bereziki egunerokoaren izaera, hura grafikoki agertu edo ez. Hortaz, formari begira, idazketa zatikatuak, daten agerpenak, gutunak, oharak, deskribape-nak –liburuko pasarte batzuen bukaeran autore-narratzaileak aurretik idatzitakoari buruz eginiko iruzkinak edo zuzenketak aipatu daitezke– edota zerrendatzeek eduki intimoa ahalbidetzen dute, besteak beste, emozioen isuriarekin batera.

Hala eta guztiz ere, gure azterketa kasuaren analisisa apropos egin ahal izateko, egu-neroko pertsonalaren eta eguneroko literarioaren arteko bereizketa egin behar da, lehenik eta behin. Izan ere, eguneroko literarioa egunerokoaren praktikatik eratorri-tako testu-mota da, zeinak bere baitan intimo lez definitu daitekeen espazio testuala eraikitzen baitu. Izan ere, eguneroko literarioak agerrarazten duen intimitatea, forma linguistiko oro legez, eraikuntza testuala baino ez da, hots, intimitate literarioa (Luque, 2018, 751.-757. or.). Hori guztiori kontuan hartuta, *Kristalezko begi bat* eguneroko literario gisa definituko ez nukeen arren, badu haren eragin handia. Izan ere, liburu honek eguneroko literarioaren formatik edaten duela esan daiteke, fikziozko narrazioe-tatik edaten duen modu berean.

Aurretik esan dudana bezala, artikulua honen helburua ez da liburuaren generoa zehaz-tea ezta mugatzea ere, baina bai kategoria horien ezaugarriek eskaini ahal dizkiguten erreminta analitikoak erabiltzea. Gauzak horrela, eguneroko literarioa ezaugarritzen duten hautu formalek intimitatearen idazketa elikatzen dutela ondorioztatu dezakegu.

Bada, egunerokoaren kronotopoa testuaren forma zatikatuan, denbora jauzietan, datetan, memoriarekin harremana duen ebokazioan, oroitze ariketetan, zirriborro eta hausnarketa kutsuko oharretan, sentimenduen deskribapenetan zein horien intelektuallizazioan antzeman dezakegu. Halaber, testuak agertzen duen denbora denbora kondentsatu bat da, eta, aldi berean, idazteari esker hedatua. Azken buruan, autore-narratzaileak berak azaltzen duen legez:

Baliteke idazki honi eguneroko intimo baten kutsua hartzea. Horrek baditu bere arriskuak, eta izango ditu bere ondorioak. Ezen eta pertsonaia ere bihurtu naiz orriotan, ezinbestean: ni neu izanik, ez naiz neu erabat (nahita edo nahi gabe). Horra hor, autoimitazioaren mugak eta onurak. Nire beste ni bat sortuz joan da hemen [...] aitorpen biografiko egiazko bezain iruzurtia eraiki dut, hain da meharra gertatuaren eta asmatuaren arteko bana-lerroa [...] pintura bat errealtatearen kopia leiala izanik ere, ez da errealtatea bera. Kristalezko begia ere ez da kristalezkoa (157. or.).

5. ONDORIOAK

Laburbilduz, mendebaldeko modernitatea geroztik intimitatea esfera pribatura murriztu nahi izan bada ere, agerian geratu da intimitateak existitzeko kontakizunaren premia duela, hau da, kontakizunak egiten duela intimitatea hautemangarri eta bertan agertzen dela egiazko. Hortaz, artikuluan zehar argudiatu bezala, intimitatea esfera pribatu zein publikoan ager daiteke, idatzizko kontakizuna izanik agerpen modu horietako bat eta idazketa mota hori kronotopo intimoek osatzen dutelarik, besteak beste.

Honenbestez, Meaberen liburuaren azterketaren bitartez, lan honetan intimitatearen idazketaren nondik norakoak antzeman eta aztertu ditut. Izan ere, lan honen helburu nagusietako bat intimitatearen eraikuntza narratiboaren nolakotasunaz aritzea izan da, denbora, espazio eta afektuen arteko korrelazioak baldintzatutako kronotopo intimoen analisisan oinarrituta. Hala, etxea, hondartzak, ospitaleak, logelak, oheak, ametsak zein lorategiak kronotopo intimo gisa aurkeztu eta aztertu ditut, horiek *Kristalezko begi batean* idazketa intimoa eraikitzeke baliabide gisa aurkeztuz. Alde batetik, argi geratu da, espazioari dagokionez, espazio intimoak esfera publikotik pribatura joan-etorrian ageri direla. Beste alde batetik, denborari dagokionez, ikusi dugu egunerokoaren praktikarekin lotutako orainaldi deskriptiboa eta memoria-ariketarekin lotutako lehenaldia nahasita ageri direla, pasarte pasarte tartekatuta. Bukatzeko, formaren aferari ere heldu diot eta, ondorioztatu, Meabek eguneroko literarioaren ezaugarriak probestu zituela era kontzientean idazketa prozesuan zehar, intimitatearen idazketaren mendeetan. Bestalde, kronotopoak eta horiek gordetako afektuak aztertzeak pertsonalak bezain kolektiboak diren pentsamendu eta emozioez aritzeko aukera eskaini dit, bizipen eta kontakizun intimoek izaera soziala eta publikoa dutela, eta autorearen zein irakurlearen identitate politikoa baldintzatu dezaketela berretsiz.

Artikuluan azpimarratu nahi izan dudana bezala, liburuan intimitatearen kontakizuna eraikitzen duten denbora, espazio eta afektuen arteko harreman dinamikoek eraikitako idazketa ageri da, eta horrek eskaintzen dio izaera intimoa liburuari –eta ez

soilik autoreak ustez bere bizitza kontatzeak–, baina ez horregatik genero intimistara murrizten. Hau da, aurretik esan bezala, artikulua honen helburua ez da izan liburuaren genero-sailkapena edo taxonomian zentratzea, ezpada kontakizuna eraikitzeko elementuen azterketa eta horien zergatian sakontzea. Hori horrela, azterketa honen xedea intimitateari buruzko aurreiritziak eta falaziak azaltzea eta intimitatearen idazketa aztertzeke eta lantzeko bidean erreminta analitikoak eskaintzea izan da, azalpena *Kristalezko begi bat* liburuaren bitartez lurreratuta.

6. ERREFERENTZIAK

- Ahmed, S. (2015). *La política cultural de las emociones* (itzul. C. Olivares Mansuy). Universidad Nacional Autónoma de México. (Jatorrizko obra 2004an argitaratua)
- Alberca, M. (2007). *El pacto ambiguo: de la novela autobiográfica a la autoficción*. Biblioteca Nueva.
- Arendt, H. (2021). *La condición humana* (itzul. R. Gil Novales). Paidós. (Jatorrizko obra 1985ean argitaratua)
- Arfuch, L. (2005). Cronotopías de la intimidad. In L. Arfuch (arg.), *Pensar este tiempo: espacios, afectos pertenencias* (237.-290. or.). Paidós.
- Azpeitia, L. (2016). Autofikzioa euskal literaturan [Gradu-amaierako lana, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/21205>
- Bajtin, M. (1989). *Teoría y estética de la novela*. Alfaguara.
- Barthes, R. (2025). *Dolu-egunerokoa* (itzul. D. Sarriugarte). Katakarak. (Jatorrizko obra 2009an argitaratua)
- Bejar, H. (1988). *El ámbito íntimo: privacidad, individualismo y modernidad*. Alianza Editorial.
- Bejar, H. (1989). Individualismo, privacidad e intimidad: precisiones y andaduras. In C. Castilla del Pino (arg.), *De la intimidad* (33.-58. or.). Editorial Crítica.
- Berlant, L. (1999). Sexo en público. *Fractal*, 12, 91-120. <https://www.mxfractal.org/F12berla.html>
- Berlant, L. (2020). Intimidación (itzul. J. Kratje & M. Szurmuk) *Revista Transas, Letras y Artes en América Latina*, UNSAM. <https://www.revistatransas.com/2020/07/16/intimidacion/> (Jatorrizko obra 1998an argitaratua)
- Borda, I. (2013). Intimitatea zartagailu. *Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua Aldizkaria*, 9, 42-55. http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf
- Camps, V. (1989). La reconstrucción de lo público y lo íntimo. In C. Castilla del Pino (arg.), *De la intimidad* (59.-76. or.). Editorial Crítica.
- Casas, A. (2014). *El yo fabulado: nuevas aproximaciones críticas a la autoficción*. Iberoamericana.
- Castilla del Pino, C. (1989). Público, privado, íntimo. In C. Castilla del Pino (arg.), *De la intimidad* (25.-32. or.). Editorial Crítica.
- Catelli, N. (2007). *En la era de la intimidad. Seguido de: El espacio autobiográfico*. Beatriz Viterbo editora.

- Egaña, I. (2014). *Izen gabe denaz: euskal literatur kritika hedabideetan: hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/35036>
- Egaña, I. (2021). Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan: Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 132, 375-402. <https://doi.org/10.35462/flv132.5>
- Ernaux, A. (2024). *Idazketa labana bat da* (itzul. L. Lakasta). Katakarak. (Jatorrizko obra 2003an argitaratua)
- Gurrutxaga, A. (2022). Amaia Lasa Alegriari elkarrizketa. *Jakin*, 250, 11-54.
- Lejeune, P. (1991). El pacto autobiográfico. *Anthropos: Boletín de Información y Documentación*, 29, 47-62.
- Luna, M.T. (2007). La intimidad y la experiencia en lo público. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud*, 5(1), 0-15. <https://doi.org/10.11600/rlcsnj.5.1.298>
- Luque, A. (2018). La construcción del espacio íntimo en el diario. *Revista Signa*, 27, 745-767. <https://doi.org/10.5944/signa.vol27.2018.18828>
- Meabe, M.A. (2013). *Kristalezko begi bat*. Susa.
- Mintegi, L. (1987). Emakume-literatura: zer da eta zertan da. *Jakin*, 45, 7-23. <https://jakin.eus/show/b99be6ec06f8c7b0cf2e7bace816d2f4b9c06830>
- Morales, A. (2013, apirilaren 11). Erantzuna ["Eragozpenak" post-ean, 2]. *Armiarma: Literatura Sarean*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5792>
- Pardo, J.L. (1996). *La intimidad*. Pre-textos.
- Pascua, M. (2021). Mujeres a la vista: género e inscripción autorial en "Un ojo de cristal", de Miren Agur Meabe. *Estrategias de Género y Posturas Autorales en el Campo Literario Actual*, 9(2), 343-359. <https://doi.org/10.37536/preh.2021.9.2.839>
- Rodriguez, E. (2019). *Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko-ze-laian*. Susa.
- Russ, J. (2018). *Cómo acabar con la escritura de las mujeres* (itzul. G. Fortún). Barret, Dosbigotes. (Jatorrizko obra 1983an argitaratua)
- Toro, V. (2017). "Soy simultaneo": el concepto poetológico de la autoficción en la narrativa hispánica. Iberoamericana.
- Torras, M. (2019). Cuando el cuerpo de la autora traza la poética emocional del corpus. *Un ojo de cristal*, de Miren Agur Meabe. In R. Spiller, A. Calderón Puerta, K. Moszczyńska-Dürst (arg.) *Extremas. Figuras de la felicidad y la furia en la producción cultural ibérica y ibericoamericana del siglo XXI* (27.-46. or.). Peter Lang.
- Zabala, J.L. (2013, maiatzaren 26a). Intimitea baliotsuagoa da zerbait sortzeko lehengai denean. *Berria*. https://www.berria.eus/kultura/intimitea-baliotsuagoa-da-zerbait-sortzeko-lehengaia-denean_1074846_102.html
- Zaldua, I. (2013, apirilaren 9a). Eragozpenak. *Armiarma: Literatura Sarean*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5790>
- Zaldua, I. (2014, irailaren 11). Autofikzioaren kontrako manifestua. *Oharrak & Hondarrak: Iban Zalduaren Kontuak*. <https://ibanzaldua.wordpress.com/2014/09/11/autofikzioaren-aurkako-manifestua/>

Hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna: euskara ikasteko modua aztergai

Variación en la pronunciación según los registros de habla: modo de aprender euskera

Pronunciation variation according to speech registers: mode of learning Basque

Irati Urreta Elizegi
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
irati.urreta@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-3181-4969>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv140.8>

Artikulu honetan agertzen diren eduki eta datuak 2025eko urtarrilean UPV/EHUKo Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean aurkeztutako doktoretza-tesiaren zati dira: *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen*. Lan hura Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza Aurreko Programako laguntzaren (2020 – 2024) babesarekin egin zen. Eskerrak eman nahiko nizkieke tesi-zuzendariei, Oroitz Jauregi eta Miren Lourdes Oñederri, ikerlana egiteko eskainitako laguntzagatik. Era berean, eskerrak ikerlaneko parte hartzaile guztiei euren eskuzabaltasunagatik.

Jasotze data: 2025/04/10. Behin-behineko onartze data: 2025/12/09. Behin betiko onartze data: 2025/12/11.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago.

LABURPENA

Artikulu honetan, euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera izan daitekeen aldakortasuna da aztergai: euskara ikasteko moduak (etxean / ez etxean) aldakortasun horretan izan dezakeen eragina aztertzea da helburu. Horretarako, euskara etxean eta etxetik kanpo (irakaskuntza formalaren bidez) ikasitako Ikaztegieta eta Baigorriko zenbait hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko ahoskerak bildu eta aztertu dira, Fonologia Naturala oinarri hartuta. Ondoriozta daiteke, oro har, euskara etxean ikasitako hiztunen hizkeran aldakortasun handiagoa dagoela, euskara etxean ikasi ez dutenenean baino. Alde horien arrazoen artean, besteak beste, aldaera estandarraren eta idatziaren eragina leudeke.

Gako hitzak: ahoskera; hizkera-mailak; aldakortasuna; euskara ikasteko modua; irakaskuntza.

RESUMEN

Este artículo analiza la variación en la pronunciación del euskera dependiendo del registro de habla, con el fin de examinar el impacto del modo de aprender la lengua en dicha variación. Se han recopilado y analizado, desde el enfoque de la Fonología Natural, muestras de pronunciación en registros informales y formales de hablantes de Ikaztegieta y Baigorri, que han aprendido euskera en el ámbito familiar o a través de la enseñanza formal. En general, los hablantes que han adquirido el euskera en casa presentan una mayor variación que aquellos que lo han aprendido en contextos formales. Entre las causas de esta diferencia destacan la influencia de la variedad estándar y del lenguaje escrito.

Palabras clave: pronunciación; registros de habla; variación; modo de aprender euskera; enseñanza.

ABSTRACT

This article examines variation in Basque pronunciation across different speech registers, focusing on how learning mode influences such variation. Speech samples in informal and formal registers were collected and analysed within the framework of Natural Phonology. The speakers were from Ikaztegieta and Baigorri and had acquired Basque either at home or through formal education. In general, those who learned Basque at home display greater variation than those who acquired it in formal educational contexts. Among the factors contributing to these differences, the influence of the standard variety and written language appears particularly significant.

Keywords: pronunciation; speech registers; variation; Basque learning mode; education.

1. SARRERA. 2. HIZKERA-MAILAK. 2.1. Hizkera-maila arduragabea eta zaindua. 2.2. Euskalkiak, euskara batua eta hizkera-mailak. 2.3. Irakaskuntza eta hizkera-mailen arabera aldakortasuna. 3. CORPUSA: HIZTUNEN AHOSKERAK AZTERTZEN. 3.1. Hitzunak. 3.2. Datuen bilketa eta azterketa. 4. EMAITZAK. 4.1. /ua/ bokal-bilkura. 4.2. Bokalarreko /b/, /d/, /g/, /t/ kontsonanteak. 5. AURRERA BEGIRAKO GOGOETAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Hiztunaren hizkeran aldakortasuna izan daiteke egoeraren arabera; besteak beste, solaskidea, hizketagaita eta lekua zein den kontuan izanda, hiztunaren hizkera aldatu egin ohi da. Hizkuntza osasuntsuetan hiztunek eurek eratzen dute aldakortasun funtzionala; hau da, kanpoko esku-hartze baten beharrik gabe hiztunek zenbait hizkera erabiltzen dituzte egiteko edo egoera jakinetarako (Milroy, 1994, 21. or.). Euskaraz, ordea, hizkera-mailen arabera aldakortasun hori urria izan da, hizkuntza gutxitua izanik, soziologikoki murriztua izan baita urte askoan. Denbora-tarte luzean beste hizkuntza batzuek (gaztelania eta frantsesak gehienbat azkenaldian) bete dituzte euskararen barnean estandarri legezkiokkeen esparruak (irakaskuntza, administrazioa eta hedabideak, besteak beste) eta euskara etxeko eta lagunarteko erabilere-tara mugatu izan da. Hizkera-maila formalagoetarako eredurik ez da sortu denbora luzean; hau da, ez da eratu hizkera jasorako eredu sendorik urte luzez, elizak eta bertsolariek erabilitako zenbait aldaera lirateke salbuespen nagusiak (Oñederra et al., 2015, 507. or.).

Hasiera batean behintzat, berariaz antolatu behar izan da aldakortasun funtzional hori. Euskara batuak lagundu du horretan, hiztunei hainbat egitegori erantzuteko baliabideak eman baitizkie. Ahoskeraren kasuan, ordea, gainerako hizkuntzetan ere ohikoa izaten den bezala (ikus Jauregi & Urreta, 2023), berandu etorri zen estandarizazioa (idatzia berarena baino geroago esan nahi da), lehen garaietan, euskara batua idatzirako proposatu baitzen (Euskaltzaindia, 1968, 250. or.). 1968an euskara batu idatzirako arauak plazaratu ziren, baina 1998ra arte ez zen ahozko ezer proposatu. Urte hartan atera zuen Euskaltzaindiak *Euskara batuaren ahoskera zaindua*

araua (EBAZ hemendik aurrera). EBAZ ahazko hizkera estandarrerako hiztun ororen erreferentzia tresna litzateke, hizkuntzaren maila jasoetan erabiltzekoa (Euskaltzaindia, 1998). Ahoskeraren estandarizazioa idatziarena baino geroago etorri izanak ekarri du, neurri batean, egun, idatzi estandarra aski finkatua eta hiztunen artean aski onartua den arren (ikus Hualde & Zuazo, 2007), ahoskeran oraindik asko geratzen dela egiteko.

Artikulu honetan, euskararen ahoskeran hizkera-mailaren arabera gertatzen den aldakortasuna izango da aztergai, Fonologia Naturalaren teoria oinarri hartuta (Donegan & Stampe, 1979, 2009; Stampe, 1979). Hain zuzen ere, hiztunek euskara ikasteko izan duten moduak (etxean edo etxetik kanpo, irakaskuntza formalaren bidez) hizkera-mailaren arabera ahoskera-aldakortasunean nola eragiten duen aztertuko da. Batez ere, bi profil horietako hiztunen artean, aldakortasunari dagokionez, jaso diren ahoskera-ezberdintasunetan jarriko da arreta. Erakutsi nahi da euskara ikasteko modua kontuan izateko aldagai esanguratsua dela ahoskerak hizkera-mailaren arabera izan dezakeen aldakortasunari dagokionez.

Horrela, bada, lehendabizi, 2. atalean, hizkera-mailez arituko gara: hizkera-mailak zer diren, euskalkiekin eta euskara batuarekin duten lotura zein den eta irakaskuntzak hizkera-mailen arabera aldakortasuna eratzeko duen garrantzia azalduko da. Jarraian, 3. atalean, artikulu honetarako erabilitako corpusaren berri emango da. 4. atalean hiztunen ahoskerak aztertuta lortutako emaitza nagusiak aurkeztuko dira, eta azkenik, 5. atalean, aurrera begirako gogoeta batzuk ekarriko dira.

2. HIZKERA-MAILAK

Hizkuntzan aldakortasuna gerta daiteke egoeraren nolakotasunagatik: «Language is subject to variation not only geographically or according to the social characteristics of the speaker but also according to the situational context in which they find themselves» (Hernández-Campoy, 2016, 37. or.).

Hiztunek hizkera, une jakin bakoitzeko testuinguruaren edo egoeraren arabera, aldatu egiten dute. Egokitze horretan hainbat alderdik izaten dute eragina; hizkera-mailen¹ inguruko lanetan (besteak beste, Joos, 1961/1967, 1968; Labov, 1966/2006, 1972; Llisterri, 1992), oro har, hiru alderdi aipatzen dira²: solaskidea (hartzailea edo entzulea), hizketagaia eta hizketa-jarduna gertatzen deneko lekua.

1 Artikulu honetan darabilgun *hizkera-maila* terminoa hainbat lanetan *erregistro* izena ematen zaion hori da.

2 Hizkuntza gutxituen kasuan, estiloan izan daitekeen aldakortasunean eragina izan dezaketen aldagaien berri izateko, besteak beste, Kasstan (2019) eta Nance (2020) lanak gomendatzen dira.

2.1. Hizkera-maila arduragabea eta zaindua

Hizkera-mailen arabera aldakortasunari ez zaio, oro har, arreta askorik eskaini hizkuntzalaritzako lanetan. Ez du tradizio handirik, nahiz eta azken urteetan gehiago landu den (Hernández-Campoy, 2016; Llisterri, 1992; Kasstan, 2019). Euskararen alorrean ere egoera antzekoa da; hemen ere hizkera-mailen gaineko ikerketak nahiko urriak dira. Gehienetan, zeharka aurkitzen ditugu hizkera-mailei buruzko aipamenak. Ez ditugu lan asko hizkera-mailen arabera hizkuntza-aldakortasuna aztertzeko helburuz eginak. Salbuespen gutxi batzuk ditugu, gehienak azken urteetakoak. Batetik, aipatzekoa da, kronologikoki lehenengoetakoa delako, Etxeberriaren (1994) hizkera jasoaren gaineko lana; bestalde, hor ditugu atal honetan aipatuko diren Euskaltzaindiko Ahoskera Batzordearen zenbait lan, ahoskeraren arautzean hizkera-mailek duten lekua erdigunera ekarri dutenak –ikus, besteak beste, Oñederra (2019) eta Oñederra et al. (2015)– edota Artzelusen (2020) lana, zeinak Garaziko (Nafarroa Beherea) hizkuntza-aldakortasun diafasikoa ikertzen duen, hiztun baten estilo informala eta formala alderatuta. Gainerakoan, oro har, han eta hemen, beste aztergai batzuk oinarri dituzten lanetan baino ez dira topatzen hizkera-mailei buruzko aipu eta azalpenak. Ikerlan honetarako, Ahoskera Batzordearen ideietan oinarrituko gara, batez ere.

Hizkera-mailak zenbakaitzak direla esan daiteke, euren arteko aldeak ugariak eta era askotakoak direlako, eta ezin delako erabateko mugarik aurkitu bataren eta hurrengoaren artean (Oñederra, 1994, 1592. or.). Ez da erraza hizkera-mailen artean banaketak egitea, *continuum* bat osatzen baitute. Hala ere, badira hizkera-mailen sailkapenak proposatu dituzten lan batzuk. Hor daude, esaterako, tradizio handienetakoa dutenak aipatzearren, Joosen (1961/1967, 1968) proposamena eta Labovena (1966/2006, 1972).

Artikulu honetan ez gara hizkera-mailen banaketen eztabaidan luzatuko. Ahoskera Batzordeak, Mitxelenagandik datozen terminoei (*zaindu* eta *arduragabe*) jarraituta, hizkera-maila zaindua eta arduragabea bereizten ditu; lehendabizikoa egoera jasoen baliokide litzateke, eta bigarrena lagunarteko egoerena. Gutxieneko sailkapen bat egitearren, banaketa horri jarraitu diogu gure ikerlanean, ondo lotzen baita ahoskera gaiak lantzeko ikerketekin. Kontuan izan da, ordea, bi hizkera-mailen banaketa horrek ez duela esan nahi bi maila banandu daudenik; izan ere, maila zaindua eta arduragabea *continuum* baten bi ertzak lirateke, bien artean hainbat maila leudeke, zenbatzen zail gertatzen direnak. Gainera, garrantzitsua da kontuan izatea arduragabe-zaindu *continuum* horrekin batera, hiztunaren unean uneko hizkeran eragina luketela beste hainbat alderdik ere; besteak beste, hiztunak bere identitatea proiektatzeko duen moduak edo hartzailearen ezaugarrietara hurbiltzeko moduak³.

3 Aldakortasuna soziolinguistikaren ikuspegitik aztertu duten zenbait lanek erakutsi dute, bereziki hizkuntza gutxituen kasuan, hizkera-maila informal eta formal ardatzean gertatzen den aldakortasuna baino konplexuagoa dela gertatzen den aldakortasuna: beste zenbait aldagai leudeke kontuan hartzekoak (ikus Kasstan, 2019; Wolfram, 2002).

Egoera formal edo jasoari legokiokeena litzateke hizkera zaindua, egoera horietan hitzunak arreta jartzen duelako, edukian (mezuan) ez ezik, besteak beste, eduki hori adierazteko forma fonikoan (ahoskeran) ere. Hortik ahoskerari horrenbesteko arreta eman ohi ez zaion lagunarteko egoerak, formari dagokionez, arduragabe lirateke (Oñederra et al., 2015, 525. or.).

Jendearen aurrean irakurtzeak eskaintzen du hizkera zaindua erabiltzeko aukera egokienetakoa (Durand, 2014, 253. or.). Esaterako, zientzia-alorreko kongresuetako hitzaldietan, telebistako albistegietan eta dokumentaletan, hizketa zaintzeko saiakera berezia egiten da. Egoera horietan hitz egitean beti irakurtzen ari ez garen arren, hizkera zaindurako eredia irakurritik sortzen da sarri, irakurtzea eskatzen duten edo irakurria abiapuntu duten egoerak izaten baitira maiz hizkera zaindua erabiltzeko egoeria nagusiak. Horrelakoetan, seinalea sendoa izan dadin, ahalegin berezia egin ohi da eta horretan ahoskerak leku esanguratsua betetzen du. Prosodiari dagokionez, esaterako, erritmoa eta ahotsaren indarra zaintzen dira (Llisterri, 1992, 16. or.).

Hizkera-maila arduragabeetan, berriz, hiztuna mezura begira egon ohi da gehiago eta ez da formaz, ahoskeraz, berariaz horrenbeste arduratzen; normalean ez dio maila jasoetan bezainbesteko arretarik jartzen, alegia (Donegan & Stampe, 2009, 2. or.; Labov, 1972, 79. or.). Horrelako egoerak sortzen dira, esaterako, herriko tabernan lagunaren artean joan den asteburuko parrandaz hitz egiterakoan edo afalorduan etxekoie egunean zehar egindakoak kontatzerakoan. Ez dira gutxi hizkera arduragabea erabiltzen dugun egoerak; areago, Dresslerren (1985, 315. or.) esanetan, egiten dugun hizketaren zatirik handiena (% 99) hizkera arduragabeari dagokio. Bat-batekotasuna, bizitasuna eta adierazgarritasuna izan ohi dira, besteak beste, maila arduragabeko hizketaren ezaugarriak (Oñederra, 1994, 1593. or.).

2.2. Euskalkiak, euskara batua eta hizkera-mailak

Artikuluaren sarreran azaldu da euskara denbora-tarte luzean soziologikoki murriztua izan dela: gehienbat maila arduragabeetan (lagunartean, etxekoekin) erabili da, maila zainduetan (irakaskuntzan, administrazioan, etab.) erdarak erabili dira askotan, gaztelania eta frantsesa batez ere. 1960ko hamarkadatik aurrera, ordea, euskal gizartea berpizten hasi zen eta, pixkanaka, euskara maila jasoetan sartu zen; irakaskuntzan eta hedabideetan, besteak beste. Euskara batua sortzeak (1968an finkatu ziren oinarriak) ere lagundu zuen euskara esparru berrietara zabaltze horretan (Zuazo, 2005/2006, 12. or.).

Euskara batua maila zainduetarako proposatu zen. Horrek banaketa eta lotura ekarri edo indartu du euskalkiak / euskara batua eta hizkera-mailei dagokienez: euskalkiak hizkera-maila arduragabearekin lotzeko, berdintzeko, joera dago batzuetan eta batua maila zainduarekin⁴. Lotura horren arrazoia, hein batean behintzat, goiko lerroetan

4 Aurrerago azalduko dugun bezala, batuaren hasierako garaietatik egoera aldatu egin da, egun euskara batua bakarrik jaso duten hainbat hiztun baitago eta, beraz, horiek, euskaraz aritzean, euskara batua egoera guztietan (izan jaso, izan lagunartekoa) erabiltzen dute.

aipatu den euskararen erabilera mugatuan kokatzen da: «euskara lagunartean erabili dugu, eta esparru jasoetan, berriz, erdarak baliatu ditugu. Hori dela eta, lagunarteko hizkera garatu da, gehienbat, euskaraz, eta hizkera horrexekin berdintzen da euskalkia» (Zuazo, 2005/2006, 217. or.).

Oñederrak (2017) ere heltzen dio ideia horri eta aipatzen du dialektoak maila arduragabearekin eta estandarra zainduarekin lotzea estutu edo indartu egiten duela euskararen egoera soziologiko mugatuak:

Not surprisingly, dialects are in general considered to be colloquial while any form the standard may take is considered to be a formal register. This well-known pattern is intensified by the sociological history of Basque bilingualism: along its history the Basque language was abandoned by social elites and restricted to households and small villages, while other languages occupied the public domain. Consequently, variation in Basque is rich along the geographical axis, but stylistically poor: numerous locally based varieties and subvarieties have developed, but functional variation is very limited (Oñederra, 2017, 344. or.).

Lotura hori, izatez, ez da nahitaezkoa hizkuntzetan. Dialektoak ez dira, derrigorrez, hizkera-maila arduragabearen sinonimo, ezta aldaera estandarra maila zainduarena ere. Dialektoaren eta estandarraren barnean ere izan daiteke hizkera-mailen antolaketa mailakatu bat. Hala gogorarazten digu Zuazok (2005/2006, 217. or.): «Eduki dezagun, beraz, gogoan lagunarteko hizkera eta jaso daudela euskalkiaren barruan, eta bata bezain euskalkia dela bestea. Euskara batuan ere badira bi maila horiek»⁵.

Erabileran, ordea, bestelakoa gertatzen da askotan. Esan daiteke euskaraz ez dagoela, oro har, hizkera-mailen egitura mailakaturik euskalkien eta euskara batuaren artean. Hau da, euskara batuak eta euskalkiek hizkera arduragabea eta zaindua, biak dituzte? Edo batua zainduarekin eta euskalkiak arduragabearekin berdintzeko joera da nagusi? Galdera horiek etorkizuneko ikerketek ziurtasun handiagoz erantzungo dituztela adierazita, aurreratu liteke, ziurrenik, gertuago geundekeela azke-neko galdera baieztatzetik.

Hiztunek euskara batua hizkera jaso edo zainduarekin eta euskalkiak lagunarteko edo arduragabearekin lotzeko izan dezaketen joerak lekarkeena da euskalkiko ezaugarriak hizkera-maila arduragabeko hizkuntza ezaugarriekin nahastea eta euskara batukoak zainduko ezaugarriekin. Esaterako, har ditzagun bi esaldi, batuaren gramatikaren eta hiztegiaren arabera moldatutzat eman daitezkeenak: *ikasten ai da* eta *ikasten a[r]i da*. Lehendabizikoan ez da bokalarteko ttaka ahoskatzen eta bigarrenean bai. Ttakaren kenketa ohikoa da hizkera-maila arduragabea; aldez, maila zainduan

5 *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* izenak berak ere aditzera ematen du euskara batuaren barnean (kasu honetan, baina berdin euskalkiei dagokienez ere) hizkera-mailak daudela, izan daitezkeela. *Zaindua* etiketaren zehaztapen horrek adierazten du baduela (izan dezakeela) batuak beste ahoskera modu bat ere, zaindua ez dena; arduragabea, alegia. Batuaren erabilera bakarra zaindua balitz, ez legoke *zaindu* terminoaren beharrik, *Euskara Batuaren Ahoskera* izenarekin aski litzateke.

ttaka ahoskatzearen alde egin ohi da (ikus 4.2. atala), EBAZen ere bide bera proposatzen da (V.3. araua). Berez, bada, hemen jokoan legokeena hizkera arduragabearen (*ai*) eta zainduaren (*a[r]i*) arteko aldea litzateke, ez euskalkiaren eta euskara batuaren artekoa (ikus Donegan & Stampe, 2009, 2. or.). Ziurrenik, ordea, hiztun batek baino gehiagok *ai* euskalkiaren ezaugarritzat hartuko luke eta *a[r]i* batuaren zantzutzat; izan ere, lehendabizikoa lagunarteko mailetan erabiltzen da gehienetan, eta bigarrena, zainduan. Literaturako irakasle bati entzundakoa da, aspaldiko testu bat aztertzen ari zela, testua euskalkian zegoela idatzita, besteak beste, (*e*)*in* ‘egin’ eta *euki* ‘eduki’ bezalakoak agertzen zirelako.

Euskalkiaren erabilera zainduaren adibide izan liteke herrikoentzat ematen den hitzaldi batean euskalkian aritzea, baina ahoskera zainduko ezaugarriak, gehiago edo gutxiago, erabilita⁶. Antzekoa esan liteke euskara batuaren lagunarteko hizkeraren erabilera ere. Azpiatalaren hasieran aipatu da euskara batua sortu zenean maila zaindurako proposatu zela. Egun, ordea, bada hiztunik (ez dira gutxi) batua lagunarteko mailetan ere erabiltzen duenik, erabili behar duenik; izan ere, egun zenbait hiztunek ez dute euskalkirik. Asko dira txikitatik euskara batua baino jaso ez duten hiztunak; ez dute euskalkirik bereganatu, euskara batua da duten euskal aldaera bakarra. Profil horretako hiztun asko euskara etxean jaso ez dutenak izan ohi dira (eskolan, euskaltegian, etab. jaso dutenak). Horrelakoak dira, euskara etxean bereganatu arren, etxean euskalkirik jaso ez duten hainbat hiztun ere. Maila arduragabeak euskalkiekin (bakarrik) lotzean, hankamotz gera litezke batua bakarrik erabiltzen duten hiztunak, ez baitute baliabiderik maila arduragabeetan euskaraz aritzeko; gogora bedi egiten dugun hizketaren zati handiena maila arduragabeari dagokiola (2.1. atala).

Horixe da euskara batua baino hitz egiten ez duten zenbait hiztunen egungo egoera. Baliabiderik gabe ikusten dute beren burua lagunarteko mailetan euskaraz aritzeko; izan ere, «orain arte eraiki den euskara batua esparru jasoetarako izan da; irakaskuntzan, liburuetan, hedabideetan, administrazioan eta tankera horretako jardunetan erabiltzekoa» (Zuazo, 2005/2006, 241. or.). Ortega eta bestek (2016, 161. or.) adierazten duten bezala, «batuaz ez da erregistro informalik garatu».

Izan euskalkidun edo izan batua besterik erabiltzen ez duena, hiztun guztiek ezinbestekoa dute egoera eta esparru bakoitzari (arduragabe nahiz zainduetarako) erantzuteko hizkerak eskura izatea; gainerakoan, zenbait egoerari euskaraz erantzun ahal izateko baliabiderik gabe geratuko dira, eta horrelakoetan, erdarara jo ohi da. Horrela, bada, helburua litzateke euskara batua bakarrik ikasi dutenei maila arduragabeetarako baliabideak eskaintzea eta euskalkia dutenei maila zaindurako bidea erakustea (Oñederra, 2019, 934. or.). Helburu hori lortu eta hizkuntzaren normalizazio estilistikoa erdies- teko, irakaskuntzak bereziki leku esanguratsua luke.

6 Egun, euskalki bakarrekoei zuzendutako jardun zainduak gutxiago izan ohi dira jende-multzo handiei zuzendutakoak baino, eta horrek ere euskalkia maila zainduetan erabiltzeko aukerak murriztu egiten ditu; jende-multzo zabalari (askotarikoari) zuzentzen gatzazkionean euskara batua erabili ohi dugu, oro har.

2.3. Irakaskuntza eta hizkera-mailen arabera ahoskeraren aldakortasuna

Hizkuntzen irakaskuntzaren helburu nagusietako bat hiztunen gaitasun komunikatiboaren garatzea da; hau da, hizkuntza testuinguru eta funtzio jakinetara egokitzeko ahalmena izatea (Siguan, 1990, 10. or.). Hitzunek baliabideak behar dituzte hizkera-maila bakoitzean era eraginkorrean komunikatu ahal izateko, eta hiztunei baliabide horiek eskuratzen lagun diezaikeen bide nagusia irakaskuntza litzateke:

Podemos decir por tanto que el resultado último de la educación lingüística consiste no sólo en el dominio de una lengua correcta, precisa y flexible sino también en la capacidad de utilizar en cada situación y para cada función que puede cumplir el lenguaje la variedad de lengua adecuada (Siguan, 1990, 26. or.).

Gauzak horrela, irakaskuntzara begira, erronka nagusietako bat litzateke ahoskeraren zaindurako proposamenak lagunarteko mailatan euskalkietako formekin bateratu, harmonizatu, irakasteko modua aurkitzea, hiztun guztiek hizkera-mailen arabera ahoskeraren aldakortasunerako bidea ezagut dezaten (Oñederra, 2017, 352. or.).

Hiztun berrien kopurua nahiko handia da egungo belaunaldietan⁷; hiztun-talde esanguratsua osatzen dute. Denborak aurrera egin ahala, kopurua hazten joan da eta hala jarraitzen du. 1991n % 13,6 baino ez ziren euskararen eremu osoan eta, aldiz, V. Inkesta Soziolinguistikoa arabera, 2011n jada % 34,9 ziren. Gainera, belaunaldi gazteen artean datuak are handiagoak dira: 2011n 16-24 eta 25-34 urte bitarteko artean erdiak baino gehiago euskara etxean ikasi ez zuten hiztunak ziren; % 51,8 eta % 52,5, hurrenez hurren. Gazte hiztun berri gehienak EAEn eta Nafarroan zeuden; Iparraldean gutxienez, baina azken eremu horretan ere geroz eta gehiago ziren (Eusko Jaurlaritza, 2013, 32.-33. or.). Azken urteetako norabideak bertsua izaten jarraitzen du. VI. Inkesta Soziolinguistikoa adierazten da 2016an euskararen eremu osoan % 36,2 hiztun berriak zirela eta belaunaldi gazteen taldean (16-24 urte) euskaldunen erdia baino gehiago (% 54,3) zela euskara etxetik ez zekarrena (Eusko Jaurlaritza et al., 2016, 16. or.). Datuek erakusten dutenez, ez da txikia euskal hiztun berrien kopurua eta, gainera, goranzko joera du.

Euskara batua izan da euskara eskolan ikasi duten hiztun gehienek bereganatu duten aldaera. Zehatzago esanda, euskara batu zaindua izan da, oro har, ikasi dutena, hori izan ohi baita eskolan (publikoan, ikastolan nahiz euskaltegian, esaterako) irakasten den eredu nagusia (Lantto, 2022, 643. or.). Hiztun horiek hizkera-maila zaindurako

⁷ *Hiztun berri* (edo *euskaldun berri*) terminoa zabala litzateke, bere baitan oso errealitate plurala biltzen baita: euskara helduaroan ikasi dutenak, euskara irakaskuntzaren bidez txikitatik jaso dutenak, eta abar daude (Ortega et al., 2013). Tradizioz, oro har, euskara helduaroan ikasi dutenak izendatzeko erabili izan da *euskaldun berri* adiera, baina gaur egun, hezkuntza-sistemari esker, beste modu bateko euskal hiztun berriak sortu dira; besteak beste, txikitatik jaso dutenak euskara eskolan (ez etxean). Gure laneko corpusean (3. atala) ez ditugu *euskaldun zahar* eta *euskaldun berri* terminoak erabili hiztunak izendatzeko, besteak beste, termino horiek oso lotuak daudelako hiztunen euren ideologia, jarrera eta identitateekin (Jaffe, 2015; Ortega et al., 2016; Ramallo, 2013). Hitzunek euskara etxean edo etxetik kanpo ikasi duten hartu dugu kontuan.

eredua bakarrik ikasten badute, beste aukeren berririk gabe, aldaera hori hizkuntza-ren egokiera guzti-guztietarako erabiltzeko joera izan dezakete (Oñederra et al., 2015, 513. or.)⁸. Egoera guztietan hizkera zaindua erabiliko dute edo egoera batzuetan (lagu-nartekoetan), agian, erdarara joko dute. Azken aukera hori ez da gutxitan egiten: «Maisu-maistrek antolatutako hainbat jarduera formaletan, euskara erabiliko dute, baina, handik kanpo, eta bereziki lagunen arteko harreman informaletan, gaztelania aukeratuko dute» (Jauregi, P., 2003, 105. or.).

Baldin eta irakaskuntza hiztunen erabilera-esparru arduragabeetara ere zabalduz egi-ten bada, hizkera-mailen arteko aldakortasuna garatzeko bide eraginkorra izan dai-teke. Are gehiago, eskolak egiteko garrantzitsua luke arlo horretan:

[E]n la escuela se ha de potenciar en el niño la capacidad de utilizar el lenguaje para relacionarse con interlocutores diversos, en diferentes contextos y con diferentes intenciones. Todo esto implica saber utilizar la lengua en su variedad de registros y funciones (Camps, 1990, 37. or.).

Euskara etxean jaso ez duenari edota euskalkirik etxetik ez dakarrenari ez litzaioke estandar zurrin maila bakarreko bat soilik eman behar. Horrek lekarke hiztuna hiztun oso ez izatea, hizkera-maila bakarreko hiztuna bailitzateke⁹. Modu horretan, eskolatik kanpoko erabileretan ondorio larriak etor litezke, komunikazio-egoeretakoko egokitze-estrategietan baliabide linguistikorik gabe gera baitaiteke hiztuna, hizkera-mailen araberrako aldakortasunetik datozen baliabiderik gabe. Gainera, hiztunentzat auto-pertzepziorako ere garrantzitsua da maila arduragaberako baliabideak eskura izatea (euskalkiak barne, askotan); horiek gabe ez dira hiztun oso sentitzen, ezta euskal hiztun legitimo ere –ikus Ortega et al. (2013, 2016)–.

Komeni da ohartzea edo gogoan izatea eskolako jardunaren barnean ere badirela hizkera-maila bat baino gehiago; hau da, irakaskuntza jardunean, hizkera-maila zainduaz gain, izan daitezke une eta egoerak, non hizkera arduragabeagoa (ez horren zaindua) erabil litekeen (Maia & Larrea, 2008, 126. or.). Hainbat hizkera-maila izan daitezke,

8 Hemen eragina du, noski, hiztuna bizi den edota harreman-sareak dituen ingurune egoera soziolinguis-tikoak; esaterako, euskara kalean asko edo nahikoa erabiltzen den edo ez eta euskalkidun ingurune batean bizi den edo ez. Lehenengo kasuan, hiztunak euskara kalean (lagunartean barne) nahikoa entzuteko aukera badu, lagunarteko aldaera ere bereganatzeko aukera izan dezake. Aldiz, hiztunak eskolatik kanpo euskara gutxitan entzuteko eta erabiltzeko aukera badu, euskara batu zainduarekin soilik gera daiteke eta, horrela, euskara maila arduragabeetan erabili behar duenean ere, batu zaindua erabili beharko du (edo erdarara jo, maiz egin ohi dena). Bigarren kasuan, bere inguruan euskalkia entzuteko aukera izateak ere (kasu horretan ere, euskalkiaren indarra handiagoa edo txikiagoa izan daiteke) eman diezaiok hiztunari baliabiderik maila arduragabeetako hizkera bereganatzeko, maiz euskalkiko formak izan ohi baitira hizkera-maila arduraga-beetan erabiltzen direnak. Euskalkirik gabeko guneeetan, ordea, nekez entzungo du estandarra ez den beste eredurik egunerokoan (ikus Lantto, 2022).

9 Gauza bera esan daiteke kontrako egoeraz ere, maila zainduenetan ere etxeko hizkera erabiltzeaz, alegia. Az-ken mota horretakoak euskara txikitatik etxean jaso duten eta euskalkiren bat menderatzen duten hiztunak izan ohi dira. Beren jokaeraren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Batzuek ez dakite batua erabiltzen, beste batzuek ez dute nahi edo ez dute egoeraren arabera hizkera egokitzeko beharrik sumatzen, ezta euskara batua sendotzekoa ere (Oñederra et al., 2015, 509. or.).

